



E2020DSS



ESTRATEGIA 2020
Donostia - San Sebastián

Aurkibidea

0.	Aurkezpena	04	5.	E2020DSS Estrategiaren Diseinua	53
1.	Sarrera	07	5.1	2020ra begira nahi dugun hiria	53
2.	Abiapuntua	09	5.2	Definizio Estrategikoa	57
2.1	Aspektu Nabarmenak	11	5.3	Estrategiatik Ekintzara	77
3.	Prozesuaren Deskribapena	14		DSSn Diseinatua	78
3.1	Proiektuaren Antolakuntza	17		Pertsonak eta Baloreak	78
3.2	E2020DSS Estrategia osatzen duten fase eta elementuak	19		Hiri Lotua	79
4.	Donostiako Errealitatearen Azterketa	23		Bizi, Gozatu	79
4.1	Diagnostiko Estrategikoa	25	6.	Pertsona eta erakunde gonbidatuak	81
4.2	Hiriaren Posizionamendua-AMIA	43	6.1	Batzorde Delegatua	81
4.3	Joeren Azterketa	49	6.2	Gizarte Kontseilua	82
			6.3	Lan Taldeak	84
			7.	Eranskinak	91
			I.	Eranskina. Gizarte Kontseilua eta Plan Estrategikoaren Batzorde Delegatua	91
			II.	Eranskina. Gogoeta Prozesuan Partaidetza Bertaratua: Estrategikoaren Batzorde Delegatua eta Sektoreko Komisioak	93
			III.	Eranskina. Gogoeta Estrategikoa: Prospektiba	94



Odón Elorza
Donostiako
Alkatea



Cristina Uriarte
Plan Estrategikoaren Batzorde
Delegatuko Presidentea

DONOSTIA 2020

2020 Plan Estrategikoak, gure desafioetatik eta harremana sustatu behar duen Gobernantzaren beharrak kontuan hartzetik abiatuta, hemendik hamarkada batera izan nahi dugun hiria bideragarri egin nahi du.

ESTRATEGIA 2020k etorkizuneko Donostian pentsatzea inplikatzeko du, bizi eta zoriotsu izan nahi dugun hirian, gure ametsetako asko betez. Eta horretarako, hiri kohesionatua defendatu behar dugu, bazterketarik gabekoa, indarkeriarik ez duena, hiritar aktiboak dituen, publikoan partaidetza gustukoa duena eta mundu global eta aldagarrian parte hartzeko prest dagoena.

Beraz, hiritar arduratsuez ari gara, agente sozial ugari parte hartu duten prozesuaren ondoren, antzemandako erronkak gainditzeko garaian protagonista dena. Elkarbizitzaz eta sormena alor guztietan presente izateaz arrot sentitzen den hiria, Bakea eta Berdintasunaren Kultura sustatzen duena, baloreek eta kapital sozialak protagonismo nagusia duten hiria.

Baina aldi berean, bere iraganaz arrot dagoen hiria, XX. mende hasieran hiri berritzailea izan zen heinean eta bere tradizio liberal-progresistatik ikusita. Baita bere izaera euskaldunaz ere, garai berrietara egokitzen jakin duena, kultur nortasun anitza modernitatea, globalizazioa eta beste herrialdeetatik datozen hiritarrek elkarbizitzan, kultur aniztasunarekin sustatzen jakin duena. Eta egokitzapen hori bere nortasuna eta singularitasuna galdu gabe gauzatu behar da.

Aieteko Bakea eta Giza eskubideen etxetik, bakearen kultura eta giza eskubide guztien errespetua indartzen dituzten hezkuntza politikak eta politika hirikorrak bultzatzen dira, nazioarteko erreferente bilakatuz eta balore demokratikoekin gizarteak behar duen adiskidetzeko prozesuari ekiteko garaian lagundu dezakeen hiri hezitzailea bultzatuz.

Adinduenekin hiri lagunkorra, boluntariotza eta belaunaldien arteko harremana sustatzen dituen, integratzailea, minusbaliotasunak dituen jendearen partaidetza aktiboarekin.

Hiri irekia eta abiadura handiko trena eta Irun-Donostia korridoreko Topo-Metroaren bidez ongi konektatuta dagoena, aireportuetara konexio egokiarekin eta lehen mailako merkantzia portuarekin. Baina pertsonen ikuspegitik ere konektatuta, kalitatea, sormena eta ikerketarekin lotutako nazioarteko proiektzioa duten partekatutako proiektuak dituen lurralde metropolitarra, bere elementu berezienak erabiliz eta erakargarritasun gaitasuna aprobetxatuz. Premisa hauek 2016an Europako Kultur Hiriburu izateko Hautagaitza babesten dute, hirien sareetara, Jaialdi eta Museo sareetara konektatutako proiektuaren aurkezpenarekin, elkarrekin lan egin, elkar trukatu eta jarduerak ekoizteko.

Hautagaitzaren prozesuak dakarren bultzada aprobetxatuz, salto bat eman nahi da kultur politikak gaztetu eta eguneratzeko asmoz, hiria Europako abangoardian kokatuz, kultur sektoreko ekonomiarekin erlazionatutako jardueratan erreferente izanik.

Aldi berean, Donostia ezagutza eta berrikuntzarekin erlazionatutako alorretan nabarmentzea nahi dugu, bere ikerketa zentro, unibertsitate, teknologia parke eta kultur parkeengatik. Energia Berriztagarrien, Turismoaren, Gastronomiaren eta Kirolaren eremuetan ikerketa, garapena eta berrikuntza ahalbidetzen duten azpiegiturak dituen hiria, enpresen arteko sinergiak bultzatu asmoz, kolaborazio eta koordinazio handiagoa bilatzen duten enpresaritza ekimen berrien ezarpenarekin.

Zientzia eta Teknologian nazioarteko erreferentzia izan gaitezke, jada Ministerioak onartu duena, ehun mila biztanletik gorako Zientziaren hamar hirien artean kokatuz. Garapen ekonomikorako eredu gisa jasangarritasuna duena eta CO₂ igorpenak gutxitzea lehentasunen artean duen hiria, hiriko Mugikortasun Plan jasangarria, HHSen plan integrala eta aldaketa klimatikoaren aurkako planaren bidez.

Hiritarrentzat egindako hiria, gizarteak planteatutako erronka berriei erantzuteko sorospen zerbitzu sarearekin, hainbat kolektibotara bideratutako politika eta zerbitzuekin, gertuko zentroei esker elkarbizitzarako espazioak bermatuko dituen hiria. Eta bikaintasuneko hiri espazioarekin, i-Urban, paisaia lagunkor, irisgarri eta jasangarriarekin hirigintza diseinuaren bitartez, ondarea babesten duena eta Urgull, Ulia, Aiete, Urumea, Ametzagaina eta beste hainbat guneren berrasmakuntzak lagunduta.

Etorkizuneko hiria, gazteak liluratu eta erakartzeko gai dena, gatazkak ekiditeko kultura sustatzen duena, Tabakalera eta beste hainbat espaziotan gazteentzat aisialdia eskaintzeko gaitasunarekin, talentua bertan gelditzea lortzen duena eta prezio eskuragarriko etxebizitza politikak dituen. Azken finean, norberak bere bizitza proiektua, ahalik eta baldintza onenean bideratzea ahalbidetzen duen hiria.



1. Sarrera

Dokumentu honek modu laburtuan Donostiaren inguruko gogoeta estrategikoaren emaitza jasotzen du, bertan, datozen urteotara begira desiratzen dugun hiri eredua planteatzen da, etorkizuneko helburuak eta hauek lortzeko bideratutako estrategiak mahai gaineratuz. Agente politiko, ekonomiko, sozial eta kultural nagusiek landu dute, *E2020DSS* deitzen den dokumentu estrategikoan irudikatu den elkarrizketa prozesuaren barruan.

Gogoeta hau ez da hutsetik abiatzen, 2010 Plan Estrategikoa hartzen baitu kontuan (2004ko Martxoan publikoki aurkeztu zen), azken finean Hiriak berrikuntza eta ezagutzara askoz gehiago bideratutako eredu berri baten alde egitea ekarri zuen eta. Gogoetan bertan eragina izan duen sakonera handiko krisi ekonomikoarekin batera etorri da gainera.

Bigarren atalak Donostiarentzat Estrategia 2020aren hasiera azaltzen du labur-labur, 2010 Plan Estrategikotik eta bere jatorritik abiatuta, plan estrategiko berriaren lanketa eusten duten egoeretaraino. Prozesua deskribatzea helburu duen hurrengo atalak berriz, aspektu metodologikoei begiratzen die eta aipatutako *E2020DSS* Estrategiaren lanketan eman diren pausoak labur-labur deskribatzen ditu.

Ondorengo epigrafeak *E2020DSS* Estrategia berez osatzen duten elementuei eskaintzen zaizkie. Horrela, laugarren atalak hiriaren gogoeta estrategikoaren bidez adostutako hasierako egoera edota eszenatokia jasotzen du eta bosgarrenak ardatz estrategiko eta helburu eta bide estrategikoen formulazioa barneratzen du. Eta seigarren atalak *E2020DSS* Estrategia honen lanketan parte hartu duten pertsonen zerrenda jasotzen du.

Eranskinek informazio osagarria barneratzen dute, sortutako gogoeta estrategikoaren prozesua ulertu ahal izateko.



2. Estrategia 2020ren abiapuntua Donostiarentzat

**Dokumentu honetan hizpide den Plan Estrategikoa indarrean dagoen 2010 Plan Estrategikoaren lanke-
ta eta osaketa prozesuan barneratutako esperientzia
eta ezagutza kontuan hartuz diseinatu da, baita honen
jarraipen eta bultzadaren ardura duen Estrategia Bule-
goaren existentziarekin ere. Hiriko eta inguruko agente
ekonomiko eta sozial nagusien ekarpenak eta modu
berezia PEko Batzorde Delegatuak eta Batzorde Sek-
torialek egindako lana berebizikoak izan dira.**

**Jada duela hamarkada bat hasi zen Donostiarentzat
2010 Plan Estrategikoaren lanketa prozesua.
Aipatutako planaren barruan 2008 urte inguruan honen
azterketa-ebaluazioa egitean aurreikusi zen,
2010-2020 eperako erreferentzia gune bat egituratze-
ko erronkarekin.**

**Beraz 2020 zerumugan hiriaren etorkizuna definitzeko
gogoeta estrategikorako prozesua irekitzeko beharra
planteatzen zen, alde batetik, azken urteotako
esperientziatik eratorritako hainbat aspektu
azpimarragarri kontuan hartuta, aldi berean, hirian
interesa duten agente politiko, sozial eta ekonomiko
guztien partaidetza abiapuntutzat hartuz.**



2.1. Aspektu nabarmenak

Donostiak badu jada garapen estrategikoa, 2010 Plan Estrategikoa; era berean, badu 2010eko ekainean onartutako Hiri Antolamendurako Plan Nagusia-HAPN delakoan gaurkotutako hiri-lurralde eredia.

Zentzu berean, Hiriko Gizarte Kontseilua eta Plan Estrategikoaren Batzorde Delegatuaren sorrera azpimaratu behar dira. I. eranskinak hiriko proiektu handiak, garapen ekonomikoa eta planifikazio estrategikoa bultzatuko dituen hiriaren garapenaren jarraipen eta azterketa egiten dituen erakunde iraunkor honen inguruko informazioa barneratzen du.


Hiriak 2010 PEak markatutako norabidean egin du aurrera, proiektuak eta hauen ekintzak abian, edota exekutatuta daude (Victoria Eugenia Antzokia, San Telmo Museoa, Donostia Turismo Elkartea, 2. ingurabidea, Biopoloa, Ikus-entzunezko Berrikuntza Ploa, Hiriaren Zientziagunea, Basque Culinary Center, Bakearen Etxea, etab.). Hori bai, hauek beren ibilbidea hasten ari dira, edota hastear daude, beraz, duten eragina eta sortuko dituzten garapen berriak datozen urteotan argiago nabarmenduko dira.

Beste proiektu batzuk azterketa fasean daude, edota exekutatzen ari dira, baina sekulako eragina izango dute datorren hamarkadari begira (Abiadura Handiko Trena, Pasaia Badiaren biziberritzea,

Metroa, 2016ko Europako Kultur Hiriburua, etab.). 2010 PE honen ondorioz eragindako hiri ereduaren aldaketak jarraipena eskatzen du oraindik behar den bezala landu ez diren aspektuak berriz bideratzeko eta bertan behar zen bezala islatu gabe zeuden gaietan sakontzeko (ingurumen eta jasangarritasun estrategia, edota aurreko planean kultur industrietara bakarrik zuzentzen zen ekonomia sortzaileko jardueren aldeko apustua).

Hurrengo hamarkadan diseinatutako azpiegitura handiak eraikiko dira (AHT, Metroa, Tabakalera, Autobus Geltokia, Herrera-Pasaia, etab), baina edukien unea da, ez horrenbeste edukiontziena. Gertuko azpiegiturak (Kultur Etxeak, Kiroldegia, Gizarte Zentroak, osasun Zentroak, hezkuntza arlokoak...) modu egokian eraikitzen joan dira, baina sistema mantentzeko gaitasun publikoa bere mugara heltzen ari da, ondorioz, ez dira datozen urteei begira azpiegitura berriak aurreikusten. Hala ere, ezinbestekoa da Hiriko eduki ukiezinetan bidea egitea eta hortxe saiatzen da proiektu berria sakontzen, besteak beste, eredu berria definitzen duten bi ardatzen eskutik: Kultura eta Zientzia. Azken finean, ezagutza, baloreak dituen hirian, beste hirientzat erreferente izango den hiritargoarekin.

Plan Estrategikoaren Batzorde Delegatua



2.1. Aspektu nabarmenak

1813an hiriaren berpizkundera eta 2013an bere bigarren mendeurrena – denboran etengabe berriz asmatu eta berritzen den Donostia bezalako hiriaren filosofiarekin bat egiten duen ekitaldia – hiritarrei ilusioa eman eta hauen partaidetza sustatu, nahiz Donostiaren kanpoko proiektzioa indartzeko berebiziko aukera bilakatzen da.

2016an Europako Kultur Hiriburu izateko kandidatek erronka berri bat dakar Donostiaren etorkizunean, nazioartean posizionamendu hoberantz laguntzeaz gain, hiritarren mobilizazioari bultzada ematen dio, kultura biziberritzeko eta hiriaren bizi-kalitatean eragina izango duen ideia eta sormen jarioaren bidez.

PE, hiriaren garapen eta egungo egoeraren inguruko gogoeta sakona izango da, indarrean dagoen estrategia alde batetik indartu eta bestetik eguneratzeko, egungo eta etorkizuneko egoerek beraiekin dakartzaten erronkei egokitzeko helburuarekin, 2010 PEan era tangentsialean jorratutako edota epe honetan eskatutako garapen maila lortu ez duten jardura ildoetan sakonduz, hala nola, hiriaren prestakuntza profesional gaituak ekartzeko, nazioartekotzea indartzeko, osagarri metropolitarra, zahartze demografikoa hiriarentzat erronka eta aukera gisa ikusteko... hiria eta bertako hiritarren bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko estrategia eta eskusartze egoki/berrituak eskatzen dituzten tokiko, eskualdeko, estatu mailako eta nazioarteko eremuan joera eta egoera berriak dira.

Azken finean, etorkizunari begira hiriaren ikuspegia azaldu, aurrean ditugun aldaketa sozioekonomikoak eta ingurumen arlokoak kontuan hartuta (inmigrazioa, zahartzea, globalizazioa, energia eta aldaketak limatikoa, hirien arteko lehia, ekoizpen industrialaren deslekuketa, etab.).

Plan hau planifikaziorako tresna estrategiko gisa planteatzen da, egiturazko izaerarekin - Donostiaren alde lan egiten duten departamendu eta erakundeekin batera - hirian gauzatzen diren sektoreko plan eta programazio multzoa bideratu eta artikulatu behar duena, tokiko kudeaketarako tresna gisa errotuz.

Ezinbestekoa da hiritarren partaidetza eta kolaborazio prozesua berritzea, agenteek eta hiritarrek beren osotasunean hiriaren garapen ekonomiko eta humanoarekin konpromisoa eta ardura har dezaten.


Plan Estrategikoaren bulegoa izateak hiriaren eza-gutza handiago batean lagundu du, nahiz datuei begiratuta (eguneratzea modu etengabe bideratzen joan da), nahiz harreman sistemaren alorrean arreta jarrita, nabarmentzeko moduko agenteekin elkarlan estuarekin. Zentzu berean, planifikazio estrategikoko tresnen erabilera zabala egin da (Hiriaren estrategia departamendu moduan). Dinamika honek hiriaren eta bere garapenaren inguruko informazio zabala izatea ahalbidetzen du eta honek aspektu garrantzitsuenak doitzeko unean lagungarri izan behar du.

Azken finean, Donostiak datozen urteotan inguru al-dakorrean jorratu behar dituen etorkizuneko erronka nagusiak identifikatzen dituen estrategia sortu, zuzendaritzaz hornitu eta epe luzera pentsatu behar du. Ildo horretan, berebizikoa da agente publiko, nahiz pribatuaren arteko kolaborazioa, partaidetza eta adostasuna sustatuz, partekatutako aukeraketak konpromisoa dakarrela jakinik.

2010eko Plan Estrategikoa

Lau Ardatz Estrategiko

- Kalitatearen Hiria
- Zientzia eta Berrikuntzaren Hiria
- Pertsonen Hiria
- Erlazionatutako Hiria



3. Prozesuaren deskribapena

Donostiako 2020 Estrategiaren lanketa jorratzeko garaian, hemen labur jasotzen ditugun hainbat premisa ezarri dira:

Jada aipatu bezala, E2020DSS Estrategia prozesu gisa ulertzen da, hiria osatzen duen agente sortak Donostiaren etorkizuneko apustuaren definizioan, “2020ra begira nahi dugun hiria”, parte aktiboa hartzen duten gogoeta estrategikoa.

Partaidetza.

Prozesuaren planteamendu honetan indar berezia egin daiteke, agenteen – publiko, nahiz pribatuak – arteko topaleku gisa, hiriaren eszenatoki politiko, ekonomiko eta sozialari begira. Honen partaidetza aktiboa areagotu behar da, ez Estrategia ezarri bitarteko lehendabiziko pausoetan bakarrik, ezarpen epe osoan baizik.

Gogoeta adostasuna.

Zentzu honetan, gogoeta prozesua eta estrategia adostuaren bilaketa helburu dira berez, aurrean dugun dokumentuaren erredakziotik harago.

PEa, gogoeta prozesua gauzatzen den dokumentu gisa ikusten da eta erabakiak hartzeko unean, erreferentziazko alorra markatu beharko du. Proposatutako estrategia eta funtsezko ideia, ikuspegi eta helburuekin koherentzian, azterketa burutu.

Koherentzia.

Gogoeta eta proposamen estrategikoa jada hirian proiektuan dauden eta martxan jarri diren plan eta estrategiak kontuan hartuta garatu eta burutzen da, baita eskualdeko testuingurua ere, proiektu eta kultur estrategien koherentzia eta osagarritasuna.

Jasagarritasuna.

Plana prozesu bizi gisa ulertuz, gogoeta estrategikoa modu irekian adostu eta onartutako proiektu eta ildo estrategiko sorta batean gauzatu da, ondorioz, ez da baztertzen erronka eta proiektu berriak eransteko aukera, ezta etorkizuneko proiektuak ere, kontrakoa agian.

Prozesu biza.

Bestalde, hiriko gogoeta estrategikoko foro iraunkorren egokitasuna zehazten da, abiapuntu gisa Plan Estrategiko honen lanketa prozesuaren alorrean eratutako lan taldeak hartuz.



3.1. Proiektuaren antolakuntza

PEaren antolakuntzaren egituraketa, prozesuan hainbat agente eta erakunderen partaidetzari dago-kionez, ondorengo irudian islatzen da:

Aurrez aipatu bezala, **Hiriko Gizarte Kontseiluak** prozesua balioztatzen du, E2020DSS Estrategia osatzen duten dokumentu nagusiekin batera, **PEaren Batzorde Delegatuak** Diagnosi Estrategikoan, prospektiba fasean, berez Ikuspegi eta Estrategiaren eraikuntzan parte hartzen duen bitartean, horrela sektoreko lan taldeek egindako lanaren kontrastea egiten du eta azken dokumentuaren hasierako onarpenaz arduratzen da.

Zuzendaritza Batzordeak proiektuaren kontrastea du ardura eta Jarraipen Batzorde lana egiten du. Sakoneko gogoeta sektoriala **lan batzorde edo taldeei** egokitzen zaie, hauek sektoreko diagnosi eta estrategiatan egiten dute indar berezia, baita proiektuen proposamenean ere.

Donostiako Estrategia Bulegoaren ardura da proiektua zuzendu eta kudeatzea, baita agente guztien koordinazioa eta prozesuaren eremuan suertatzen diren jardueren exekuzioa eta doku-

mentuak idaztea ere. Bitarteko dokumentu jakinen lanketarako, bileretan eta gogoeta prozesuan parte hartu duten aholkularitzen babesa izan dute baita ere.

Plan Estrategikoaren lanketa prozesua berarekin batera, hiritarren partaidetza hainbat ekintzen bidez sustatu da, gehienbat web orrialdetik bideratuta (www.donostiafutura.net), donostiarren partaidetzaz informatu eta hau errazteko helburuarekin.

LAN METODOLOGIA

Jarraian Plan Estrategiko hau egiteko erabilitako metodologiaren berri emango dugu. Honen lanketa prozesua, hiriak etorkizunean izango dituen erronkak jorratzeko gogoeta, azterketa eta proposamenerako tresna izan da. PEaren Batzorde Delegatuaren alorrean joan da gauzatzen, bertaratutako bileren eta inguru birtualen bidez izan duten jarraitasunari esker (II. Eranskinak Batzorde Delegatuak egindako lanaren inguruko informazio gehigarria dauka).

Organoak eta partaidetza

Gizarte Kontseilua
68 kideko Organo gorena

- Prozesua balioztatzen du
- Diagnostikoa
- Azken dokumentua

Batzorde Delegatua
Estrategia Planaren arduraduna

- Diagnostiko kualitatiboaren kontrastea.
- Ikuskera eta ardatz estrategikoaren eraketa.
- Lan taldeen kontrastearen emaitzaren koherentzi azterketa.
- Proiektuen lehenestea eta balioztapena.
- Azken dokumentuaren hasierako onarpena.

Zuzendaritza Batzordea
Lehendakaria, Lehendakariordea, Udal Lehendakaria, EP Zuzendaria

- Prozesuaren kontrastea eta jarraipena.

Lan Taldeak

- Ardatzen definizioetatik sortutakoak, helburuak berresteko estrategien sorkuntza eta proposamena.

Estrategia Bulegoa

- Prozesuaren euskarri teknikoa.

3.1. Proiektuaren antolakuntza

Berez PEa osatzen duten dokumentu guztiekin batera, lan dokumentu eta txosten ugari prestatu dira *ad hoc* (funtssezko gai estrategikoen ingurukoak, *benchmarking* delakokoak etab.) gogoeta prozesua eta debate partizipatiboa bultzatzeko tresna gisa.

Aipatutako **Diagnostikoaren** lanketa hainbat informazio iturritik abiatuz garatzen da, kuantitatiboak (estatistika ofizialak, txostenak...), nahiz kualitatiboak (agente eta kontraste talde, aditu eta abarri elkarrizketak, hiriaren inguruan duten pertzepzio espezifikoak ezagutzeko), Batzorde Delegatuen gogoeta eta debaterako abiapuntu gisa balio duen Dokumentu Diagnostikoari bidea emateko.

Diagnostikoa eta **Joeren Azterketaren** ondorioak Batzorde Delegatuaren baitan lantzen dira, hiriaren **AMIA azterketaren** bidez (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarrak eta Aukerak).

Erabilitako metodologiak planifikazio estrategikoen prozesua osatzen du, PEarentzat Gizarte Kontseiluaren Batzorde Delegatuak ere parte aktiboa hartzen duen **prospektiba ariketaren** bidez. Hau **Egituraren Azterketatik** (aldagarri estrategikoak aukeratu, hierarkizatu eta sailkatzen dira, hiriaren **Estrategiaren Ardatza** osatuz) eta **Azterketa Morfologikotik** (Delphi inkestaren bidez kontrastatzen diren 2020rako hipotesiak plazaratzen dira) abiatuta, 2020ra begira Donostiarentzat Eszenatokiaren zirriborro eta eraikuntzarekin burutzen da.

Eszenatokiaren eraikuntza apustu baten lanketatik begiratzen da, **Donostiaren Ikuspegia 2020ra begira**, etorkizunerako nahi dugun hiriari buruzko konpromisoa, **hiriaren Estrategia** zein oinarriaren gainean landu nahi dugun.

Erronka eta helburu estrategikoak identifikatu eta Batzorde Delegatuaren baitan kontrastatu ondoren, estrategia eta ekintza ildoen definizioan aurrera egiten da, **Batzorde, edo Sektoreko lan Taldetan** abian jarritz, alor jakinetan gogoeta eta kontrasteetan sakontzeko (estrategikoak direlako, edo azterketa sakonagoa behar dutelako).

Ekintza ildo hauen eta proiektu estrategikoen definizioaren ondoren eta hauek adostu eta gero, ekintza eta proiektuen koherentzia azterketari ekiten zaio (helburuen ahokadura, lehentasunak, ...), jarraipen mekanismoen ezarpenarekin batera (**Adierazle Sistema, ...**).



Plan Estrategikoko Batzorde Delegatua (2008-05-19). Donostiarentzat E2020DSS gogoeta prozesu berriaren hasiera.

3.2. E2020DSS Estrategia osatzen duten fase eta elementuak

Aurreko ataletik ondorioztatu daitekeen bezala, E2020DSS Estrategiaren eraikuntza prozesua hainbat etapatan banatzen da.

Gainetik aipatuta, nolakoak garen eta non gauden – Hiria zenbakietatik abiatuta eta hiritarrek eta bere garapen eta kudeaketan inplikaturako pertsonak ikusita – modu objektibo eta subjektiboan ezagutzeko alde analitikoa, lortu nahi dugun hiri eredua identifikatzeko proposamen lanaz jarraituta eta “2020ra begira hiriaren ikuspegia” eta helburuak, estrategien diseinua eta eskusartze proiektuak ezartzeko amaierako etapa.



I. Fasea. Azterketa eta Diagnostikoa.

Hainbat azterketa edota dokumentutan oinarritutako **Diagnostiko Estrategikoa** (hasierako egoeraren azterketa, **Diagnostikoa**, **Pertzepzio Inkesta**, **Joeren Azterketa**, **AMIA**, ...) etorkizunari begira erronka berriak ezartzeko eta hiriaren estrategiaren ardatza osatuko duten aldagarri estrategikoen aukeraketa eta identifikazioari bidea irekitzeko, hiriaren egoerari eta azken urteotako garapenari eta lurraldearen, ekonomiaren, nahiz gizartearen errealitatearen karakterizazio funtzionalari buruzko berrikuskapen eta azterketa prozesu bat da berez.

Diagnostiko Estrategikoaren lanketak partaidetza publiko handia dauka atzean, PEaren Batzorde Delegatuan ordezkartuta duten agente publiko eta pribatuen bidez egin da 2008ko azken erditik 2009ko otsaila bitarte.

II. Fasea. Prospektiba.

Prospektiba lanak sistemaren aldagarriak eta hauen arteko elkarrekiko harremana definitu eta identifikatzen ditu (**Estrategiaren Ardatza**) MIC-MAC egituraren azterketaren bidez, etorkizuneko garapenaren aurrerapen eta egituraketa lanarekin jarraitzen du, azterketa morfologikoaren (prozesuko partaideen posizionamendua kontrastatuz, Delphi inkesta) eta joeren **Eszenatokien egituraketaren** bidez, apustu erdua definitzen amaitzen du, partekatutako etorkizuneko **Ikuspegi** koherentearekin.

Hiriari buruzko etorkizunaren ikuspegia ideia gako sorta txikian laburbiltzen da. Ikuspegi honetan strategiaren oinarritzko baloreak jasotzen dira: nazioarteko proiektzioa, konektibotasuna, lurralde inteligentea, pertsona eta enpresentzat erakargarria, gizarte kohesioa, hiri partekatua, jasangarritasuna, bizitza-kalitatea, trebakuntza, ... **E2020DSS** Estrategiaren formulazio fase hau 2009ko urtarrila/otsailetik irailera egin zen.

III. eta IV. Faseak. Estrategiaren Formulazioa.

Behin hiriaren etorkizuneko apustua ezarri ondoren, gogoeta, ekiteko helburu eta erronka handien eta ardatz estrategikoen inguruan oinarritzen da lehenik eta behin. Prozesuan parte hartzen duten agente guztien kontsensusa eskatzen du honek.

Lau ardatz estrategikoak lan eta gogoetarako tresna gisa planteatzen dira, Planaren lanketaren baitan. Ardatz eta **helburu estrategikoen** egituraketak, planteatu ditugun aipatutako helburuetako bat asetzeko garatu beharreko ekintza ildoetan lan egitea ahalbidetzen du. Helburu, **ardatz** eta **estrategia** ildo, edo estrategia globalen hastapeneko definizio hau 2009ko azken hiruhilabetekotik, 2010eko otsailera arte burutu da.

Sektoreko gogoetaren unea da, gaikako batzordeen edo lan taldeen eskutik (azterketa sakona eta zehatza eskatzen duten gai eremuetan), hauek diagnosi estrategikoa adostu eta norberaren alorrekin erlazionatutako estrategia eta ekintza ildoetako bakoitzaren azterketa eta eztabaidan sakontzen dute, **E2020DSS** Estrategiaren hastapeneko eskemari erantsiko zaizkion ekintza proposamenen eta garatu beharreko proiektuen ekarpena eginez. Fase hau 2010eko otsailetik ekainera burutu da.

V. Fasea. Definizio Estrategikoa.

Aurreko fasea adostu eta gero, koherentzia azterketa bat egin eta, ekintza ildoak proiektutan taldekatzen dira, lehentasunak ezarri eta helburu eta ildo estrategikoetan txertatu da.

Jarraipen mekanismoak ezartzen dira, proiektu eta helburu estrategikoetarako adierazle sistema baten bidez.

Dokumentu hau barneratzen duen azken etapa 2011ko urtarrilera arte doana da, Batzorde Delegatuaren behin betiko onarpena eta **E2020DSS** Estrategiaren aurkezpen publikoa gertatzen direnean.

2020DSS Estrategia. Prozesuaren faseak.





4. Donostiako Errealitatearen Azterketa

Atal honetan modu laburrean deskribatuko dira, diagnosi fasean zehar landutako Donostiaren egoerari buruzko funtsezko ideiak. Diagnosian, hiriaren estrategia, bilakaera eta garapenetik abiatuta, Donostiaren adierazle nagusiak ikusi ahal izan dira, etorkizunari begira antzematen diren bere indarrak, ahuleziak, nahiz aukerak eta mehatxuak zehaztuz, hiriaren estrategiak berriz definitu eta eguneratu ahal izateko oinarri gisa. Amaitzeko, inguru globalean Joeren aldaketen Azterketaren sintesia erantsiko da.



4.1. Diagnostiko Estrategikoa

Jarraian aurkezten dugun diagnostikoa, 2008 amaieran eta 2009ko lehen hiruhilabetekoan landutako **“Donostiaren Diagnostiko Estrategikoa”** dokumentu zehatzak zituen ondorio nagusien laburpena da, bere garaian eta modu egokian aurkeztu zen eta Plan Estrategikoaren Batzorde Delegatuak baliotatu zuen. Aipatutako dokumentua eguneratu egin da funtsean, 2010eko udaberrian. Hiriaren erradiografia sektorialean sakondu da, lan taldeetan burututako lanari esker.

Diagnostiko Estrategikoa biztanleen bizi-kalitatea helburu duen hiri baten ikuspegitik bideratzen da, honako aspektu hauek nabarmenduz:

- **Bizi-kalitatea eta batez ere etorkizunekoak.**

- **Pertsona guztientzat**, hau da, hiri anitza (adinak, sexua, gaur egun bertan bizi direnak eta etorkizunekoak, jatorriak, ...), **kohesionatua** (kapital soziala, baloreak, sareak, lurraldearen oreka eta artikulazioa – auzoak eta lurraldea, berdintasuna, ongizatea, ...) eta **jasangarria** (ingurumena-energia, gizartea-berdintasuna, hezkuntza, ekonomia-berrikuntza, ezagutza).

- **Hiri inteligentea** (ezagutza, kultura, sormena, jarduera berritzaileak, aukerako sektoreak, ...) bizi eta lan egiteko bere **erakargarritasuna berritu eta eguneratzen duena** (eta gainera, bisitatu eta pertsona gisa “hazteko”: demografia, ekintzailletza, partaidetza, kultura, aisia, natura, ...), modu jasangarrian.

- Beraz, hirietako (pertsonak, enpresak, erakundeak, unibertsitateak, kultur eta ezagutza guneak, gertakariak, ...) **sareetan** (gertukoak, nahiz urrunekoak) **txertatuta** (konexionatuta) eta barnetik eta nazioarteko mailan **konektatuta**.

4.1.1. Hiriaren eremua: Pertsonak


DEMOGRAFIA

Donostiak hazkuntza demografiko iraunkorra izan du XX. mendean zehar, handiagoa 50. eta 60. hamarkadatan, boom demografikoarekin eta garapen ekonomiko garrantzitsuarekin bat eginik (Gipuzkoa eta EAE, bere osotasunean, industriaren gara penaren gune nagusienetakoak eta penintsulako migrazio jarioen norakoa izateagatik sendotu ziren garaian). 70. hamarkadak inflexio puntua dakar prozesu honetan, populazio galera nabarmenarekin; 80. hamarkadako errekupeazio demografikoari populazioaren gutxitzeak jarraitu zion (1991ko erroldan islatzen dena) eta 90. hamarkadako hazkunde demografiko berri baten ondoren (urtero %0,3 inguruko hazkunde metatuarekin). Donostiako populazioa 185.357 biztanlera heldu da 2009ko abenduan¹.

Mendebaldeko gizarte ereduan gauzatu den amatasunera gero eta adinez zaharrago izanda heldu eta ondorengo kopuru eskasagoa izateko joera eta bateratzeko arazoak dira garapen begetatibo negatiboa ekarri dutenak.

¹ Dokumentuaren osotasunari erreferentzia egiten dioten iturri estatistiko nagusiak: Donostiako Udala (hainbat departamendu eta bere baitan dauden erakunde, modu berezian Donostiako Sustapena eta Donostiako Estrategia Bulegoa), EUSTAT, INE, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Innobasque Sareko agenteak besteak beste.


Donostiako biztalneria (1975-2009)



Donostiako populazioa, bestalde, etengabeko zahartzea² jasaten ari da, bost pertsonatik batek 65 urte edo gehiago ditu eta hamaseitik batek 80 baino gehiago, gehienak emakumeak; hala ere, piramide demografikoak haurren populazioaren gorakada izan du. Adin talde handien egiturak, 65 urtetik gorako populazioa (zahartze indizea) 1981an %12 izatetik, 2009an populazioaren %20 izatera pasa dela adierazten digu, 20 urtetik beherako biztanleria (gaztetasun indizea), garai berean behera egin duen arren (Eustat, 2010).

² Populazio donostiarraren jaiotza kopuruaren beherakada progresiboa eta bizi-itxaropenaren gorakadaren ondorioz.

Donostiako populazioaren piramide egitura, 2009




Ezaugarri demografiko esanguratsuenen artean aipatu daiteke Donostia eta EAEaren jaiotza-tasek (% 9,9 2008an) beherakada nabarmena jasan dutela (EAEan %19,1ekoa zen 1975an, % 7,9koa 1997an eta % 8,3koa 2007an), EBaren batezbestekoaren azpitik kokatuz (% 10,9 2008an).

Bizitza-itxaropena, bestalde, hazten joan da etengabe; 2008an 77,2 urtean gizonezkoen kasuan eta 84,3 emakumezkoen kasuan, EAE osoari begiratzen badiogu, estatu mailako zifren parean kokatzen dira eta nazioarteko mailan altuenen artean (Espainian 77,8 eta 82,2 urte inguruan kokatzen da urrenez urren). EBan Frantziako emakumezkoek bakarrik hobetzen dute batezbesteko bizi-itxaropena (84,8). Guzti honek %49,2ko mendekotasun tasara ³ garatmatza 2009an, Autonomia Erkidegoa baino zenbait puntu altuagoa.

³ Mendekotasun tasa
(<15 popu+ >65popu/ (15-64 popu)*100)

Zahartze demografikoak ondorio garrantzitsuak ekarriko ditu sozioekonomia arloan, ongizate sisteman eta pentsio sisteman, gizarte zerbitzu eta sorospenetan eskakizun handiagoekin eta osasun arloan beste horrenbeste; lan merkatuan ere eragina izango du, familian eta aisialdian, etxebizitza eskakizunetan, ikerketan, etab.

Donostian erroldatuta dagoen atzerriko biztanleria



Donostiako populazioaren ezaugarri nabarmenen artean ere, hazten doan atzerriarren presentzia dugu, bost urteren buruan %1,4 izatetik %6,5era pasa da (erroldatutako 12.018 atzerriar 2009ko urtarrilean; INE, Populazio Erroldak), migrazio prozesu baten ondorioz eta gehienbat Europar Batasunetik kanpokoak diren pertsonen osatua (Donostian erroldatutako etorkinen %72, EB-27tik kanpokoak dira). Ondorengo koadroak, hiriak jasandako garapen demografikoa adierazten digu sintesi moduan.

Garapen demografikoa

Biztanle kopurua	181.064	185.357
Zahartze indizea	%19,48 (2003)	% 20,38 (2009)
Gehiegizko zahartze indizea	% 9,22 (2003)	% 10,89 (2009)
Gaztetetasun indizea	% 12,09 (2003)	% 12,59 (2009)
Populazio etorkina	% 1,7	% 5,8 (2009)

HEZKUNTZA, GIZARTEA ETA PARTEKATUTAKO BALOREAK

Hitz gutxitan esan daiteke gizarte donostiarra orokorrean, plurala, partaidetza eragiten duena, solidarioa, trebatua eta bere alor guztietan ingurumenaz eta kulturaz interesatzen den horietakoa dela. Kultura eta kirolen inguruan interesa duena, bere hiriarengatik arro eta bere bizi-kalitatearekin ase.

Trebakuntza maila handia dauka, 10 urtetik gorako pertsonen %30ak baino gehiagok unibertsitate ikasketak ditu (1996an, aldiz, portzentaje hori %23 ingurukoa zen). Era berean, 14 eta 20 urte bitartekoen bost donostiarretik lauk bigarren hezkuntza gainditu du, Espainiakoarekin alderatuta (%60), askoz ere tasa handiagoekin (%78 EAE osoari begiratuta).

Bestalde, euskarak aurrera egiten du biztanleriaren artean, Euskara mailaren arabera banaketak (Eustat, 2006), %35 *euskalduna*, %28 *ia euskalduna* eta %37 *erdalduna* da euskarak gizarte donostiarrean duen etengabeko murgilketa konfirmatuz.

Aipatzekoa da gainera, populazio gaztearen (5 eta 19 urte bitartekoak) %75ak Euskara “ongi ulertu eta hitz egiten duela”. 2 eta 19 urte arteko populazioan, euskaldun eta ia euskaldunen portzentajea osotasunaren %93ra heltzen da, hala ere, euskarak etxean duen presentzia (etxean hitz egiten den hizkuntza) askoz txikiagoa da, gaztelera hizkuntza nagusia izanik.

Hiritarren jarrera solidarioekin duen konpromisoa, kolaboratzen duten gobernuz kanpoko erakundeen bidez adierazten da nagusiki, neurri jakin batean ala bestean, populazioaren hamarrena. Elkarkidetzeko beste hainbat modu aukeratzen dituzte hiritarrek, hauen artean, gastronomi eta kultur elkarteak, kirol arlokoak, edota profesionalak. Donostiako erregistroan inskribaturiko elkarte kopuruan hazkuntza handia eman da azken hamarkadan (39,6 Δ % 2001-2010) eta % 4,6 biztanleko ratoria heltzen da horrela.

Orokorrean adierazita, hiritarren ardura nagusiak ondorengo elementuetara zuzentzen dira: etxebizitza (eskuragarria), enplegua (duina) pertsona ororentzat, egoera ekonomikoa (garestitasuna, zailtasunak,...), baita indarkeria eta terrorismoa ere, edota egoera politikoa eta euskal gatazka (Gipuzkoa, 2008, *Euskal Soziometroa* 36). Bestalde eta hiriari dagokionez, hiritarren gehiengoak gustura dagoela adierazten du: honek duen erakargarritasuna, garraio publikoa, kultur eskaintza eta segurtasuna dira gehien baloratzen diren aspektuak (Donostiako Estrategia Bulegoa. *Hiritarren Pertzepzio Inketak*, 2008) eta orokorrean, hiritarrek gizartearekin konpromisoa sumatzen dute, atzerrikoekin jarrera anibalentearekin, baina inguruko beste hiriekin alderatuta pertzepzio hobearrekin eta banaketa espazial eskasarekin. Hala ere, nabarmena da norberaren edota familiaren segurtasunaren galeraren eta “Ongizate Estatuaren” kinka larriaren aurrean, nolabaiteko errezeloa.

Donostiako hiritarrek uste dutenaren arabera, hiriak izpiritu ekintzailea dauka: hauen artean bi herenak horixe dio. Izan ere, sei biztanletik lauk (16 eta 60 urte bitartean) bere negozio propioa izan du, edo irekitzeko asmoa dauka, azken edo hurrengo bost urteotan, ekimen hauetako gehienak zerbitzuetoak, merkataritza eta ostalaritzan nagusiki (Donostiako Sustapena. *Gizarte innoBarometroa*). Hala ere, administrazio publikoan enplegua lehentasuna duen aukera da donostiarrentzat, negozio propio bat bideratu eta sektore pribatuan soldatapeko lan jardueraren aurretik.

GIZARTEA: KOHESIOA-GIZARTEAREN ESKAKIZUNAK

Gizartezerbitzuetan eskakizunaren etengabekoigoerak talde ahulenen beharrak islatzen ditu: orokorrean aztertuta Donostiako familien errentak (ongizate egoeran dauden familiak) gora egin du nabarmen (urtean %9) krisiaren ondorioak jasan aurreko bost urteetan (2.760 milioi euro, zerga oinarri osoa PFGZ 2006), bere pertzepzioaren arabera, hilabete amaierara heltzeko zailtasunek familien herenean dute eragina (2008 Plan Estrategikoa. Hiritarren Pertzepzio Inkesta), izan ere, populazioaren gero eta portzentaje handiagoak jasotzen ditu oinarritzko laguntza ekonomikoak (4.645 familia eta 7.799 pertsonak jasotzen dituzte oinarritzko errenta laguntzak, kontribuzio gabeko pentsioak eta gizarte larrialdiko laguntzak), onuradunen %63 kide bakarreko familiak dira eta onuradunen %60 emakumeak.

⁴
2008 hasieran eginiko inkesta, finantza krisiaren hasiera baino lehenagokoa berez.

Pobrezia tasak, EUSTATen *Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen 2008*ko Inkestak jasotzen duenez, gora egin du Donostialdeko eskualdean, %2,2tik (2004) 2008ko %3,5ra pasa da (Donostialdeko datuak), Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren azpitik mantentzen da hala ere (%4,1). Zehaztu beharko litzateke Bazterketa⁵ arriskuan dauden kolektibo eta pertsona kopurua hazten doala, hauen artean nabarmentzen baita krisi ekonomikoaren eragin handiagoa (langabezia, gastuak asetzeko garaian zailtasunak...), enplegua kohesiorako euskarri nagusia izanik.

⁵
Batez ere honako kolektibo hauetan: kide bakarreko familiak (emakumea), gaitasunik gabeko batasunetik kanpoko inmigrazioa, gutxieneko diru-sarrerak dituzten pertsona adinduak (eta minusbalotasun handia) eta minusbalotasuna duten pertsonak (buruko gaixotasuna azaleratzen da).

Oinarritzko prestazio ekonomikoen hartzaileak

Hiritar guztien %	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Oinarritzko errenta jasotzen dutenak	7,75	7,87	8,22	8,45	9,06	18,58
GLL jasotzen dutenak	11,51	11,31	13,54	14,53	13,9	15,47

Ondorengo koadroak gizarte donostiarrak izan duen garapena azaltzen du, Donostiako 2010 Plan Estrategikoaren gogoeta eta ezarpena prozesuaz geroztik:

Plan Estrategikoaren ezarpenaren bilakaera

Elkarteak	654 (2001)	913 (2009)
Udal hauteskundeetan partaidetza	66,46% (2003)	54,86 (2007)
PFGZ- Oinarri ezargarria per capita	10.740 (2001)	15.202 (2006)
Oinarritzko Errenta jasotzen dutenak	7,75% (2003)	18,59 (2008)
GLL jasotzen dutenak	11,51% (2003)	15,47 (2008)
Pobrezia tasa-Donostia	2,20% (2004)	3,5% (2008)
Etorkinen balorazioa, onarpena (0-10)	4,7 (2005)	5 (2008)
Zerbitzu, ongizate eta gizarte laguntzako zerbitzuekin satisfazioa (0-10)	5,5 (2005)	6,24 (2008)

4.1. Diagnostiko Estrategikoa


LAN MERKATUA

Modu orokorrean, Donostiak 85.187 pertsoneri eskaini die lana 2009an (azken hamar urteotan 24.500 enplegu garbi sortu dira), azken urtean krisiaren eragina dela eta (horrela, 2010eko urtarila eta azaroa artean 2009ko epe berean baino 113 kontratu gutxiago gauzatu dira Donostian) kontratazioaren jaitiera nabarmenduz eta neurri handiagoan, kontratu mugagabeetan, behin-behinekotasun handiagoarekin, eta hala ere, zerbitzu profesional eta enpresen dinamismoa azpimarratuz, finantza eta higiezin, informatika, ingeniari eta I+Garekin batera. Adierazi behar dugu baita ere, azken urte honetan industria sektoreak eboluzio positiboa izan duela, kontratuak burutzerako gaian.

Okupazio tasa %70,5ean kokatzen da (%64,8 2001ean izanik), langabeziak behera egiteko zuen joera krisiarekin zeharo aldatu da, 2010eko apirilean %10,4ko tasarekin (hilabete honetatik aurrera, langabezia egoeran dauden pertsonen zifren beherakada eman da) 2010eko azaroan %10eko langabezia tasarekin (laugarren hilabetez jarraian urte batetik besterako gorakadaren gutxitzea erregistratuz).

Gipuzkoa eta EAEaren batez bestekoaren azpitik; bestalde azpimarratu behar da Donostian sexuen arabeko langabezia tasaren parekatzea eman dela (emakumezkoen arteko langabezia %9,7an kokatzen da 2009a eta gizonezkoena %9,1era hel-tzen da), populazio aktibo eta okupatuaren genero desberdintasuna ia 20 puntukoa den artean (adinez zaharragoak diren adin taldeetan batez ere). Sektoreka, langabeziak zerbitzuen sektorean du eragina gehien-bat (%73,5, 2010eko maiatzean).

Langabezia tasaren bilakaera, Donostian



Ondorengo koadroak Donostiako lan merkatuak izan duen garapena laburbiltzen du.

Donostiako lan-merkatuaren bilakaera

Kontratu kopurua	83.597 (2001)	85.187 (2009)
Okupazio Tasa	64,8 (2001)	70,5 (2008)
Langabezia Tasa	7,3 (2001)	10 (nov. 2010)
Enplegurik gabeko pertsonak	5.788 (2001)	9.523 (nov. 2010)
Enplegurik gabeko emakumeak	3.413 (2001)	5.013 (nov. 2010)

4.1.2. Jarduera ekonomikoa, garapen jasagarria, Errenta eta aberastasunerako baldintza


Jarduera ekonomikoari dagokionez, hiriak 6.325 milioi euroko aberastasuna sortzen du urtean gutxi gora behera; azken hamarkadako hazkuntza nabarmena krisi ekonomikoak gelditu du bat-batean. 34.123 €-ko *BPG per capita* 2009an, 2007koaren antzekoa da, baina 2008koa baino baxuagoa, krisiak honengan izan duen eragina dela eta. Donostiaren errenta *per capita* Estatuko altuenen artean kokatzen da.

BPG eta BEGaren bilakaera

	PIB (milaka €)	PIB per capita (€)	VAB (milaka €)
2004	5.038.369	27.586	4.523.388
2005	5.394.987	29.492	4.826.739
2006	5.851.995	31.924	5.223.739
2007	6.310.761	34.468	5.629.872
2008	6.547.099	35.534	5.947.336
2009	6.324.868	34.123	5.800.028

BPGaren sektoreko banaketari dagokionez, jarduera ekonomikoa, enplegua bezala, zerbitzuen sektorean oinarritzen da (%85) eta honek dibertsifikazio maila esanguratsua irudikatzen du gainera, higiezin eta enpresaritz zerbitzuen azpisektorearen salbuespenarekin (ia BPGaren %29), merkataritza eta konponketa dago ondoren (%12 inguruan); finantza bitartekaritza (%9tik gertu); jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuak (ia %8arekin kasu bakoitzean) eta garraio eta komunikazioen alorrean eta administrazio publikoan (%5 baino pixka bat gehiago) daudenek ixten dute zerrenda.

BPG eta BEGaren bilakaera (2005)



Industria jarduerak BPGaren %8 inguruko ekarpena egiten du, sektoreka dibertsifikazio handiarekin. Eraikuntza sektorearen ekarpena antzekoa da, azken urteotan igo den arren, lehen sektorea testigantzazkoa da soilik.

Ondorengo koadroak ekoizpen egitura eta errenta adierazleak aurkezten ditu sintesi moduan:

Ekoizpen egitura eta errenta adierazleak

PIB (milaka €)	5.038.369 (2004)	6.324.868 (2009)
PIB per capita	27.586 (2004)	34.123 (2009)
VAB (milaka €)	4.523.388 (2001)	5.800.028 (2009)
Enpresa kopurua	18.546 (2001)	22.328 (2009)

EKOIZPEN EGITURA, ENPRESARITZA EGITURA

Enpresaritza jarduerari dagokionez, establezimendu kopurua 22.322koa da 2009an, %2,4ko beherakadarekin aurreko urtearekin alderatuta, krisiaren ondorioz, hala ere, hau ez da oztopo azken hamarkadan hiriak izan duen dinamismo ekonomikoa nabarmentzeko garaian (2001etik establezimendu kopuruaren hazkundera %20,4koa da).

Donostiako ekonomiak hirugarren sektorerantz izan duen ibilbidea establezimenduen sektoreko espezializazioan azaltzen da, %83,2 zerbitzu sektorekoa izanik, %13,5 eraikuntza arlokoa eta %3,3 industria arlokoa.

Sektore ekonomikoen artean, aldi berean, merkataritzaren hazkundera azpimarratu behar da (2007az geroztik establezimendu kopuruak eta enpleguak behera egin duen arren), kanpoaldeari begiratuta trakzio handia eragin duena (Donostialdeko beste herriak, Gipuzkoa, Frantzia hegoaldea); 5.212 establezimenduen artean, merkataritza txikiaren nagusitasuna dugu.


Bestalde, ostalaritza sektoreak bere okupazioa handitu du, %19,3 2001 eta 2008 artean (6.108 enplegatura arte), ia establezimendu kopurua mantentzen duen arren (1.372 2009an).

Era berean, jarduera turistikoaren garapen faboragarriko testuinguruan, hotelen eskaintza 69 establezimendura heldu da 2009an (57, 2001ean) 18 hiru edo izar gehiagokoak eta 1.582.350 plaza urtero (%16ko hazkunderarekin 2001az geroztik), turista kopuruaren hazkuntza nabarmenaz lagundurik (820.950 2009an, %29ko igoera 2001etik).

Azpimarragarria baita ere, atzeritik datorren turista kopuruaren hazkuntza nabarmena (gaua igarotzen duten atzerriko bisitari kopurua %66 igo da azken hamar urteotan), hoteletan ematen diren gauen herena suposatzen baitu jada. Hotelen okupazioa 5,2 puntutan hazi da 2001 eta 2009 artean, urteko batezbestekoaren %59,1era helduz. Eta bilera turismoari dagokionez, batzarren jarduera etengabe sendotu dela azpimarratu behar da, ekitaldi kopuruari, iraupenari eta delegatuei begiratuta, krisi ekonomikoaren eragina kontuan hartu behar den arren.

Honen harira komentatu behar da, era berean, kultur sektorearen dinamismoa, azpiegitura nagusien eta kultur ekitaldien erakarpen gaitasun handiarekin batera (milioi erdi pertsona inguruk bisitatzen dituzte museo nagusienak eta antzeko zifrak ematen ditu ekitaldi garrantzitsuenetara doan jende kopuruak). Jazzaldia eta Musika Hamabostaldia bezalako ekitaldiek urtero beren prestigioa sendotzen dute, 2001az geroztik hauetara gerturatu den jende kopurua bikoiztuz. Zine jaialdietako ikusleak (Nazioarteko Zinemaldia, Beldurrezko Zine Jaialdia,...) etengabe hazten ari dira kopuruari begiratuta.

Bidaiarien sarrera



Aipatutakoaren harira, kultur sektorearen garapena, bere osotasunean, indar handikoa izan da azken hamarkadan eta enpresa kopurua, 450 ingurukoa, nabarmen hazi da (%60 2001az geroztik), antzeko hazkundea izan dute edizio sektoreak (67 enpresa 2007an) eta industria sortzaileak deitzen direnek (2.106 enpresa 2008an), hazkunde nabarmenagoak oraindik ikus-entzunezko sektorean, 120 enpresatik gora dagoeneko, hamarkadan zehar %67ko hazkunde tasarekin.

Ikus-entzunezko Sektoreko Berrikuntza Poloa-IBPk, sektorea garatzera bideratutako ekintzekin batera, honen bultzadan lagunduko du dudarik gabe. Ekonomia sortzaileari dagokionez, joerak eta aurrerapen teknologikoak, jada existitzen den jarduerarekin batera (publizitatea, edo arkitektura bezalako eremuekin, artisautza, diseinua, artea eta antzinatekoak, bideoa, filmak eta argazkigintza, ikus-entzunezkoa, edizioa, softwarea, ordenagailuko jokoak, edota irratia eta TB, besteak beste), Donostian beren ahalera areagotzen laguntzen duten faktoreak dira.


Orokorki esanda, enpresaritza zerbitzuetaiko sektore dinamiko honek (ingeniaritzek, aholkularitzek, enpresa kudeaketek...) hirian 4.300 enplegu gehiagotzea eskura jartzen du (%71ko hazkundea zortzi urtean). I+G eta Informazio eta Komunikazioen Teknologia arloko zerbitzuetaiko jardueren ezarpenak ere gora egin du modu esanguratsuan azken urteotan. Epe laburrean joera areagotzea espero dute.

Komunikazio teknologiei dagokienez, Azpiegitura, teknologia berri eta wi-fira sarbidearen garapena azpimarratu behar dira, hiritarrek interneten egiten duten askotariko erabilerekin batera, batez ere gazteen artean (Donostiako etxebizitzaren %73k ordenagailu pertsonala dauka eta %67,7k internetera konexioa, 2008an). Era berean, enpresen %85k internetera sarbidea daukate (merkataritzak eta ostalaritzak maila baxuagoak dituzte) eta hauen erdiak web orrialdea.

Aparteko aipamena merezi dute I+G arloko jarduerak, azken urteotan Gipuzkoan eta EAEan bere osotasunean hazkuntza nabarmena jasan ondoren; jarduera honen zati handi bat Donostian kontzentratzen da (enpresaritza terminotan datu xumeagoak dituen arren, 2008an I+G arloan lan egiten duten 153 enpresa zenbatu dira eta).

Biozientzian I+G Sarearen sendotzetik abiatuta, alor hau hazkunde esperantagarria bizitzen ari da Donostian eta Euskal Autonomia Erkidego osoan, bere ikuspegi zientifiko-teknologikotik eta enpresaritza garapenetik begiratuta. Hau ikertzaile komunitatearen eta enpresen sorreran hazkunde etengabea gauzatu da (Donostialdean 6tik 11ra eta ESEan 36tik 70era pasaz lau urte eskasen buruan). Hiriak sektore honetan duen indarra biozientzia eta bioteknologiaren lan egiten duten parekorik gabeko kontzentrazioan islatzen da, baita EAEko ospitale guzietan ere (Miramon inguruan), hainbat ezagutza eremurekin eta aukera handiko bioteknologia eta ikerketa jarduerarekin bat egiten duten diziplinetan gaitasun handiarekin (diagnosia, medikuntza birsortzailea, ...); hala ere, lurraldeko Zientzia eta Teknologia arloko agenteek biozientzian duten dimentsio txikiaz jabetu behar gara, besteak beste, oraindik enpresa traktoreen partaidetza eskasa, edota ekoizpen zientifikoa areagotzeko beharra.

Biozientziak EAEn Enpresa kopurua, 1997-2008



4.1. Diagnostiko Estrategikoa

Bestalde, jada existitzen diren eta aurreikusita dauden jarduera ekonomikoen artean, enpresaritza hazitegiak nabarmendu daitezke, CEMEI-Enpresa Berritzaileen Udal Zentroaren kasua, egun 58 enpresa barneratzen dituena (9 lokal ia industrial enpresa garbientzat, 180 eta 500 m² artekoak eta 49, 55 eta 200 m² arteko bulegoentzat); ZENTEK, KITBetako enpresentzat, (20 eta 50 m² arteko 22 lokal); Democenter, Energia Berriztagarri eta Eraginkortasun Energetikoko enpresentzat (30 eta 50 m² arteko 12 lokal); Belartza, Gizarteratzeko Enpresen Udal Gunea (Belartza 2 bigarren fasearekin, 200.000 m² ingururekin); Bidebieta Zerbitzu Enpresa (20 eta 40 m² arteko 15 lokal) eta guneak eraikuntza maila orotan; bi eraikinetan banatuta, 20.000 m² dituen IBP-lkus-entzunezko Berrikuntza Poloa (50 eta 300 m² arteko 67 bulego) eta ENERTIC, Energia Berriztagarriak eta Hiriarentzat Eraginkortasun Energetikoa bultzatzeko ardura duena (13.000 m²tik gora), bi gune hauek eraginkortasun energetiko handiko diseinu bioklimatikoarekin eraiki dira, Miramon Teknologia Parkeko Arbide Dorreen ondoan kokatutako BIC Berrilan (bost solairutan banatutako 7.000 m²), Gipuzkoako Berrikuntza Enpresen Europako Gunearen egoitza berria, non enpresa berrien “bio-inkubagailua” nabarmentzen den.



Ondorengo koadroan hiriak ekonomia eta enpresaritza alorrean, 2010eko Plan Estrategikoaren ezarpenetik bultzatutako gogoeta prozesutik abiatuta hiriak izan duen garapena azaltzen du.

Ekonomia eta enpresa jardueren bilakaera

Kultur sektorearen garapena	276 (2001)	442 (2007)
Aisialdi eta kultur eskaintzaren balorazioa (0-10)	5,36 (2005)	6,36 (2008)
Hilabeteen kultura/aisialdi/etxebizitza gastua (etxebizitzaren gastuaren %)	87,5 (2004) 5%	100,1 (2009) 5,4%
Bazkide kop. Liburutegi sistema	64.693 (2003)	89.445 (2008)
Udal kultur etxeetako erabiltzaileak	213.716 (2004)	195.081 (2008)
Musika ekitaldien erabiltzaileak (Jazzaldia, Musika Hamabostaldia,...)	94.800 (2001)	190.000 (2007)
Zinemaldietan ikusleak (Nazioarteko Zinemaldia, Beldurrezko Jaialdia, ..)	220.056 (2001)	227.666 (2007)
Euskararen garapena (euskaldunak eta ia euskaldunak direnen populazioaren %)	63 (2001)	67 (2006)
Merkataritza establezimendu kop.	4.910 (2001)	5.212 (2009)
Merkataritza gastuaren bideraketa %	8 (2004)	9,3 (2007)
Ostalaritza. Establezimendu kop.	1.364 (2001)	1.372 (2009)
Ostalaritza eskaintza. Establezimenduak	43 (1y2*)+14 (≥3*) (2001)	51+18 (2009)
Ostalaritza eskaintza. Plazak	464.075 (1y2*) (2001)	1.582.350 (2009)
Hotelen batezbesteko okupazioa	46,7 (2001)	51,9 (2009)
Batezbesteko egonaldia (egunak)	1,91 (2001)	1,96 (2009)



4.1.3. Hezkuntza Sistema eta Ezagutza Aurreratua

Donostiako hiritarrek trebakuntza maila altua dute, unibertsitate ikasketak dituen jende kopuruak gorantz jarraitzen du (32.000 2001ean, hamabost urte lehenagokoaren bikoitza eta 2008an, 34.000tik gora). 100 donostiarretik unibertsitateko 8 ikasle daude, 18.000 pertsona inguruk osatzen duten ikasle kopuruak (2008/09) behera egin duen arren (%26 2000 eta 2009 artean, baina faktore demografikoa ere kontuan hartu behar da), ia %50 irakaskuntza teknikoetakoak. Hala ere, EAEan Zientzia eta Teknologian Goi-graduatu tasa % 27,2an kokatzen da (20 eta 29 urte bitarteko populazioa), EB-27ko (% 13,4) eta estatuko (% 11,2) batez bestekoa aisa bikoiztuz (Eurostat, Eustat, 2007).

Hiriak unibertsitate ikasketa eskaintza zabala dauka, hogeita hamar titulazio inguru hiru unibertsitate guneetan (duela gutxi Euskampus proiektuarekin Nazioarteko Bikaintasun Campus izendatu duten Euskal Herriko Unibertsitatea- EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitatea). Unibertsitate hauek, hezkuntza eta ikerketa erakundeekin batera, tokiko garapenaren berebiziko aktoreak dira, gizartearen dinamizazioan, lehiakortasunaren hobekuntzan eta enpresaritzea berrikuntzan.

Enplegu eskaintzak eta hirian burututako jarduerak hiritarren trebakuntzarekin bat egin behar dute, aipatu behar da era berean ezagutzak berez hirian jarduera aurreratuen garapenerako aukera paregabea dakarrela.

Gauzak horrela, Euskal Administrazioak Ezagutza, Teknologia eta Berrikuntzaren alde egiten duen apustuak hamarkada askoko ibilbidea darama, inbertsio publiko handiekin eta Zientzia eta Teknologia Sistemaren bultzadarekin (parke, gune eta agente teknologikoen laguntzarekin, I+G alorrean inbertsioekin...). Honen emaitzaren ondorioz EAEak Zientzia eta Teknologia sare zabala dauka -SARE-TEK (Berrikuntzaren Euskal Agentzia).

Sare honen barruan, Gipuzkoa azpiegitura eta agente teknologiko gehien dituen lurraldea da (hauen %45a); aldi berean, Donostian gune (%27,7) eta agenteen presentzia garrantzi handikoa da (hogeita hamar inguru), azken urteotan hazkuntza nabarmenarekin, neurri handi batean berrikuntza eta garapenaren arloan egin den ahalegin handiak, ikerketa azpiegiturretan inbertsioek eta I+Gan gastuaren hazkuntza azpimarragarriak eraginda: Gipuzkoan, BPGaren portzentajearen arabera I+G batezbesteko inbertsioa 2001eko BPGaren %1,44tik, 2008ko %2,23ra pasa da, 90. hamarkada erdiaz geroztik indartzen hasi zen ahaleginari esker. Donostiaren kasuan, maneiatzen diren zifrak 2008ko % 2,45 eta 3,1 artean mugitzen dira, kontsultatutako iturrien arabera aldatuz.

Gipuzkoan dedikazio osoa eskaintzen duen ikerlari kopurua (6.236,6 2008an) %40,5 igo da azken bost urteotan, era berean, I+Gean darabilen langile eta ikertzaile donostiarren portzentajea, erkidegoko beste hiriburuena baino handiagoa da. Langile hauek Ingeniaritzatan kontzentratzen dira argi eta garbi; esanguratsua da EAEko 5 ikertzaitetik bat Donostian egotea (1.835,7 ikertzaile-EDP, Eustat, 2009).

Zientzia, teknologia eta ikerketako euskal sarea

- Ikerketa Zentroak
- Berrikuntzako Bitarteko Erakundeak
- OPlak
- Oinarritzko ikerketa eta Bikaintasun Zentroak
- Teknologia parkeak
- Entitate Egiatzatzaileak eta Saiakuntza Laborategiak

- Enpresetako I+G Unitatea
- Ikerketarako Zentro Sektorialak
- Unibertsitateak



Berrikuntza eta Garapenean ahalegina

	EAE			Gipuzkoa			Donostia			Bilbo	Gasteiz
	2004	2007	2008	2004	2007	2008	2007	2008	%Gipuzkoa %EAE	%EAE	%EAE
I+G Gastuak BPGren gainean (%)	1,44	1,65	1,85	1,64	2,05	2,23	2,12	2,45 (*)	38,7	19,5	
Langileak (DOB)	11925,1	14434,9	15373,2	4697,70	5.878,70	6.236,60	2.290,70	2.410,90	47,3	15,7	12,3
Langile ikertzaileak - DOB		9.220,40	9.640,10		3.673,90	3.884,60	1.733,60	1.835,70	19	10,4	10,9

(*) Donostialdeari buruzko datuak

Bestalde, I+Gean egiten den gastuaren irakurketa zehatzagoa eginez, enpresaritzan I+Gean gastu handiagoa adierazten du eta ikerketa aplikatua eta garapen esperimentalaren garapenean pisu handiagoa, oinarritzko ikerketaren kalterako; aldi berean azpimarratu behar da, unibertsitateko ikerketaren eta enpresaritzaren ehunaren behar zuzenen arteko harreman estuagoa.



Miramón Teknologia Parkea eta bere ingurua gune eta agente hauen gehiengoak kontzentratzen den barrutietako bat da. 238.671 m²ko azalera eraikigarria dauka, parkean 70 enpresa daude eta 3.000 langiletik gora, Material berri, IKT, Telekomunikazio, Multimedia, Ikus-entzunezko, Medikuntza, Biologia Molekular, Elektrokimika, Mikro eta Nanoteknologia edo Enpresaritzaren Zerbitzuetan. Parkean zehar eraikitako espazioaren %93ko okupazio maila dauka eta zabalkuntza fasean dago.

Zuatzu Enpresaritzaren Parkeak 117 enpresa ditu eta 2.200 enplegutik gora, Ingeniaritzan, informatika eta komunikazioetan, aholkularitzan, ikus-entzunezkoan eta abar espezializatuta dauden langileekin.

Ondorengo koadroak ezagutza aurreratuaren sisteman hiriak izan duen garapena azaltzen duten adierazleak aurkezten ditu sintesi gisa.

Ezagutza aurreratuaren sistemen bilakaera		
Unibertsitate ikasketak dituen biztanleria	32.000 (2001)	34.000 (2009)
I+Gean Gipuzkoan egiten duen gastua, BPGaren %	1,44 (2001)	2,23 (2008)
I+D langileak Gipuzkoan (EDP)	4.697,7 (2004)	6.236,6 (2008)
Langile ikertzaileak Donostian (EDP)	1.733,6 (2007)	1.835,7 (2008)
Zientzia, Teknologia Ikerketa Agentek	22 (2001)	34 (2009)
Teknologia P-an langile kopurua	1.730 (2003)	2.840 (2009)
Zuatzu EPan langile kopurua	1.800 (2003)	2.000 (2008)
Enpresa kopurua Teknologia P-an	39 (2003)	66 (2009)
Enpresa kopurua Zuatzuko EPan	86 (2003)	109 (2008)
Ezagutza maila handiko zerbitzu Enpresa kopurua	4.949 (2001)	7.114 (2007)

4.1.4. Hiriko bizi-kalitatea


Donostia hirigintzari dagokionez dimentsio gizatiarrarekin bat egiten duen hiria izanik, bere paisaien edertasuna eta hirigintza-ingurumena eta hornikuntza arloetako aspektuen kalitatea dela eta nabarmentzen da aldi berean; hirigintza morfologia orekatua dauka, hiriaren lurren %37,3 parke, lorategi eta hiriko zonalde berdez beterik dago, pertsona bakoitzeko ia 22 m² (2005ean 13,4 m²) eta etxebizitza/etxebizitzetarako lurren dentsitate globala bizt/bak 65,04koa dela kalkulatzen da.

Bertako ingurune zeharo ezberdinetan bere hirigintza garapenaren garaiak nabarmentzen dira, bereziki erdigunetik gertuen dauden zonaldeetan, ingurumenaren, arkitekturaren eta hirigintzaren kalitateari dagokionez, aldi berean finantza eta merkataritza gune enblematiko eta adierazgarrienetakoak izanik.

Hiriak komunitate, hezkuntza, sorospen, osasun, aisialdi, kultura eta kirol hornikuntza zabalak ditu, garrantzi berezia dauka, arlo pribatuko eta bereziki publikoko kultur ekipamenduen eskaintzak (122±), liburutegiak, museoak, auditorioak, antzokiak eta kultur etxe sarea (9 kultur etxe Donostiako auzoetan zehar sakabana-tuta), udal eskusartze soziokultural publikoaren parte handi bat kontzentratzen du (azken bost urteotan bazkide kopurua %34 igo duen hiritarren oniritzia duen liburutegi sarea aipatu behar da talde honen barruan). Aipatzekoa da Donostiako Udalak kultur agente gisa izan duen presentzia nabarmena.

Kulturgune eta azpiegituren banaketa

Kultura	Udal kulturguneak
1. Aquariuma	1. Altza KE
2. San Telmo Museoa	2. Casares-Tomasene KE
3. Tabakalera KGNK	3. Egia KE
4. Chillida Leku	4. Ernest Lluch KE
5. Miramon Kutxagunea	5. Larrotxene KE
6. Untzi Museoa	6. Intxaurren Berri KE
7. Elizbarrutiaren Museoa	7. Loiola KE
8. Rezola Zementu Museoa	8. Lugaritz KE
9. Kursala	9. Okendo KE
10. Victoria Eugenia Antzokia	10. Aiete KE



4.1. Diagnostiko Estrategikoa

Hiria “pertsonentzat” izanik, irisgarritasuna lau ekipamendu eta udal eraikinetik hirutan dago (2005ean). Hiriaren zati handi bat, dituen ezaugarri topografikoengatik, guztiz egokia da oinez eta bizikletaz ibiltzeko eta klima bikaina dauka horrelako jarduerak sustatzeko. Kirol instalakuntzek (udal kiroldegia) ia 1,5 milioi erabiltzaile izan dituzte 2008an (40.000 pertsonatik gora kirol txartelaren erabiltzaile); 16 urtetik gorako hiritarren erdiak partaidetzako kirol jardueraren bat burutzen du.

Etxebizitzaren alorrari dagokionez, sendotutako etxebizitza kopurua 80.000tik gorakoa da, hala ere, Hiri-Antolamendurako Plan Nagusiak proiektatutako etxebizitzaren kopurua nabarmen igotzea aurreikusten da, 16.000 inguru. Bestalde, etxebizitzara sarbidea, neurri handi batean duen prezio altuak baldintzatuta, hiritarren etengabeko ardura eta eskakizunen artean dago (etxebizitzaren %12an etxebizitza beharrak dituzten pertsonak daude, etxebizitzaren behararen inguruko inkestaren arabera. Egungo finantzek eta ekonomia egoera larriagoa bilakatu dute). Etxebiden

dauden etxebizitza eskakizunak % biztanleekiko 60 eta 66 artean mantentzen dira azken bost urteotan. Horrela, hirigintza garapenaren baitan proiektatutako etxebizitzaren parkeak, %17,2ko hazkuntza ahalbidetuko du; horren barnean, %43 babes ofizialekoak izango dira, %16 tasatuak eta gelditzen den beste %41 merkatu librekoak.

Hiria “segurua” da gainera, Bilbok edo Gasteizek, edota erreferentziatzat hartzen diren hiriena baino delitu tasa askoz baxuagoa, nahiz eta azken urteotan mundu zabalean ematen ari den joerari jarraituz, gora egin duen (34 delitu/1.000 biztanleko 2008an, 2003an % 25,64an zegoenean. Hiritarrak seguru daude hirian (hiritarren %73 “beti seguru” sentitzen da), balorazio honek azken urteotan behera egin duen arren (Hiritarren Pertzepzio Inkesta, 2008).

Ondorengo koadroak hiriko bizi-kalitatearekin Donostiak izan duen garapena azaltzen duten adierazleak aurkezten ditu sintesi gisa.

Hiriko bizi-kalitatearen garapena		
Etxebizitza kopurua (familiakoak)	77.748 (2001)	84.729 (2006)
Etxebizitza nagusia (%)	85,1 (2001)	82,9 (2006)
Etxebizitzaren erosotasun indizea	74,1 (2001)	75,1 (2006)
Eraikitako lurzorua (%)	23,59 (2005)	32,98 (2009)
Babestutako lurzorua (%)	34,48 (2005)	24,97 (2009)
Artifizial bihurtutako lurzorua (%)	36,46 (2005)	39,19 (2009)
Parke eta lorategien azalera (hiriaren lurzoruaren %)	23,24 (2005)	37,29 (2008)
Parke eta lorategien azalera. m²/personako	13,37 (2005)	21,67 (2008)
Donostiaren bizi-kalitatearen inguruan hiritarren asetzera (0-10)	8,85 (2005)	8,96 (2008)
Segurtasun sentimendua (10etik)	8,8 (2005)	7,7 (2008)
Delitu tasa (‰)	25,6 (2003)	34 (2008)
Trafiko istripuak hirigunean (‰)	17,61 (2001)	9,33 (2008)
Ongizate zerbitzuekin eta gizarte sorospenez asetzera (0-10)	5,5 (2005)	6,24 (2008)

4.1.5. Ingurumena eta jasangarritasuna

Garapen jasangarriaren alorrean, Donostiak ibilbide luzea darama ingurumenaren jasangarritasuna kudeatu eta espazio naturalen kontserbazioaren aldeko apustua egiteko tresnak garatzen (hirian babesturiko azalera –babes berezia duen eta eraikitzerik ez dagoen zorua-udal lurraldearen %35 da) eta artifizial bihurtutako lurra %39.

Ingurumenarekin duen sentsibilitate eta arduraren maila handiaren adierazle, 2008an hiriak Aldaketa Klimatikokoaren Aurkako Plana onartu zuela dugu (AKAP 2008-2013). Bertan hiriaren sortzen diren negutegi efektuko isurketen gutxitzea lortzeko neurri zehatz sorta bat jasotzen da, batez ere garraio eta bizitegi-eremutan eraginez. Hiriak Tokiko Agenda 21aren Ingurumen Eskusartze Plana dauka gainera eta hiri eredu eta etorkizun jasangarria ziurtatzeko erronkari buruzko gogoeta estrategikoa burutu du.

Udal Plan Energetikoa dauka hiriak gainera (Tokiko Eskusartze Plana eta AKAParen baitan), aurrezkia, eraginkortasun energetikoa eta energia berritzaileen erabilera barneratzen dituen estrategia integratua izango den eredu energetiko berriari ekiteko helburuarekin. Azpimarratzeko modukoak dira baita ere baliabideen ganorazko erabilera, energiaren aurrezki eta energia berritzaileen sustapen ekintzak, hauekin batera hondakinen gutxitzea, birziklatzea eta kudeaketa hobea, hezkuntza, sentsibilizazio eta suspertze kanpaineekin eta halabeharrez bete behar diren Ordenantzen ezarpenaren bidez.

“Ekonomia berdearen” sustapenean, hiriaren energia berriztagarrien aldeko apustua egiten ari da, jarduera sektore gainerakor gisa. Honen barnean, Energia Berritzaileko eta Eraginkortasun Energetikoko Enpresak azpimarratu daitezke. Donostialdean 60 enpresa inguru ditu eta erakunde publiko, nahiz pribatuak 20 agentetiki gora. Enertic Gunearen proiektua, Energia Berriztagarrien eta Eraginkortasun Energetikokoaren Enpresa eta Berrikuntza Gunea estrategia honen baitan kokatzen da.

Donostia beraz, bere eraldaketa “berderantz” aurrera egiten ari da:

- Baliabideen kudeaketa (energia kontsumoa gora egiten ari den arren), bere hondakinen tratamenduan eta hiritarren kontzientziazioan hobetuz. Hala ere, hondakinen kudeaketa hobekuntza nabarmentzen den arren (gaikako bilketan 2008an sortutako hondakinen %33 jaso da, 2003an %28 eta gaur egun zabortegira doan hondakin portzentajea gutxitu egin da), HHS kopuruak gora egin duela ikusten da (2003an 1,29 Kg/bizt/eguneko eta 1,40 2008an).
- Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien aldeko apustua eginez (etorkizuneko sektore gisa). Honek energia jasangarri, fotovoltaiko, eoliko, hidraulikoa eta abarren ezarpen etengabea adierazten digu, oraindik oso hastapeneko den arren. Honen adierazgarri, CADEM ziurtagiri energetikoa duten etxebizitza kopurua areagotu izana (% 6,9 2008an).
- Eta mugikortasun jasangarria sustatuz, oinezkoak, garraio publikoa eta autobus ekologikoen eta bizikletaren erabilera sustatzea bere adierazle dira eta. Honek garraio publikoaren eta motorrik gabeko desplazamenduen erabilera gorakorrean du bere isla.

Bestalde, Agenda 21ak ontzat ematen ditu airearen kalitatea (egunen %99,7an) eta ur kontsumoa (%21 gutxitu da 2001 eta 2008 artean) eta era benetan positiboan ikusten du hiritarren sentiberatasun handiagoa eta etengabe hazten ari den ingurumen kudeaketa sistema duten erakunde publikoen kopurua. Ondorengo koadroak ingurumenarekin hiriak 2010 Plan Estrategikokoaren gogoeta eta ezarpen prozesua abian jarri denetik, izan duen garapena azaltzen duten adierazleak aurkezten ditu sintesi gisa.


Donostiako ingurumenaren garapena		
HHSen sorrera/Kg./bizt./eguneko	1,29 (2003)	1,34 (2009)
HHSen bilketa selektiboa %	28 (2001)	33 (2009)
Ur kontsumoa (l/bizt./eguneko)	339 (2001)	246 (2009)
Airearen kalitatea (% egun kalitate ona)	96,16 (2005)	98,63 (2008)
Ingurumen Ziurtagiria duen enpresa kopurua	20 (2001)	97 (2009)
Eraginkortasun energetikokoaren ziurtagiria duten etxebizitzak (CADEM) %	1,23 (2004)	6,9 (2008)
Eguzki P. termikoa instalatuta (m2/10.000 bizt.)	14,82 (2004)	38,55 (2008)

4.1.6. Erlazionatutako gizartea: Mugikortasuna eta irisgarritasuna


Madril-Paris-Atlantikoa konexiorako nukleo logistiko gisa, Donostiak paper garrantzitsua jokatzen du Europako garraio sarean, errepidez, nahiz trenez (hemen abiadura handiko euskal “Y” delakoa aipatu behar da).

Garraio azpiegitura handietan, trafikoak behera egin du: Pasaiaiko Portuan garraiatutako merkantzien bolumenak beheranzko joera azaltzen du 2003az geroztik (3,5 milioi tona 2009an) eta bestalde, Hondarribiko Aireportuan (314.262 pasaiairi garraiatu zituen 2009an), aireportuko garraioan aurrerapen handia eman da, baina 2007tik aurrera joera aldatu egin da.

Bidaiarien aireko garraioa



Pasaiaiko portuko salgaien zirkulazioa




Eskala metropolitarran, trafikoaren dentsitate handiko korridorea lotuko duen Topo-metroa azpimarratu behar da, Gipuzkoan pertsonen garraioaren %60 (aurreikuspenen arabera, urtean 25 milioi erabiltzaile potentzial izango dira) suposatzen du.

Barne mugikortasunean erreparatuta, populazio aktiboaren %73 baino gehiagok udalean bertan egiten du lan, honek, hiriaren eskala eta etxebizitzaren eta hiritarren erabiltzen dituzten zerbitzu eta ekipamenduen “gertutasunarekin” batera, hiriaren funtzionamendua ahalbidetzen du, desplazamendu handirik behar izan gabe.

Hiria mugikortasun jasangarriantza aurrera doa, garraio kolektiboa indartu eta garraiatzeko modu jasangarriak sustatuz, hauen artean oinezkoen ibilbideak edota bidegorriak. Bere estrategien artean lehenik eta behin Mugikortasun Jasangarri eta Seguruaren Plana nabarmendu behar da, udal garraio sistemaren hobekuntza eta eraginkortasunean inbertsio handiekin (garraio ibilgailu “garbien” aldaketa/berrikuntza, linea berriak eta zerbitzuaren hobekuntza, etab.), bizikletaren erabileraren sustapena, “30 zonaldeen” sorrera, etab. Azpimarratu behar dira baita ere mugikortasun bertikalarekin erlazionatutako ekintzak (igogailuak,...) edota ibilgailu hibrido eta elektrikoentzat abantaila fiskalak, ordenantza fiskalen bidez.

Era berean, hiritarren sentsibilizazio handiagoa garraio publikoaren erabileraren eta motorrik gabeko desplazamenduen gorakadan islatzen da (kanpotik gehienbat autoz sartzeko ohitura nagusitzen den arren). Hiriaren barneko desplazamendu gehienak oinez egiten dira (%43), baita bizikletan ere (gehienez, etxebizitza-lana-ikasketen arteko distantzia 2 km baino gutxiagokoa bada).


Bizikletan joan-etorriak Egun/bizikletarien kopurua (ekaina-iraila)



Bizikletaren erabileraren hazkuntza (2001az geroztik desplazamenduen portzentajea %150 igo da) neurri handi batean, bidegorri sarearen aurrerapenak eragin du, 2005ean 10.000 biztanleko/1,43km izatetik, 2008ko 1,65 izatera pasaz. (34 bidegorri km guztira).



Donostiabus garraio publikoa erabiltzen duten bidaiariak



Ibilgailu motorizatuak dagokionez: donostiarren %24k autoa erabiltzen du eta %21ak garraio publikoa. Autobusaren erabilera 28 milioi bidaiarira arte igo da (%6ko hazkuntza 2001etik), hiritarren aldetik zerbitzuaren balarazio positiboarekin. Aparteko aipamena merezi du ibilgailu motorizatu kopuruaren igoerak (%36Δ azken hamar urteotan, motoen hazkuntza nabarmenduz); hirian 107.890 ibilgailu daude, hauetatik 76.000 auto eta ia 25.000 moto. Bestalde, kanpotik Donostiara datorren jendearen bi heren autoz etortzen da.

Hirigunean istripu kopurua beheruntz doa urtero-urtero etengabe gainera, 2009an 1.725 trafiko istripu izan ziren, harrapatutako oinezkoen kopurua ere txikiagoa da (79 2009an).

Ondorengo koadroak mugikortasunarekin erlazionatutako adierazleak aurkezten ditu sintesi gisa.

Mugikortasunarekin erlazionatutako adierazleak

Motorizazio indizea (ibilg/1.000 bizt.)	520 (2003)	589 (2008)
Garraio publikoa erabiltzen duten bidaiariak. Donostiabus	26.482.936 (2002)	28.460.380 (2008)
Bidegorri sarea (Km)	14 Km (2000)	33,9 Km (2008)
Bizikletaz desplazamendu kopurua egunean	4.012 (1999)	12.527 (2008)
Bizikletaren erabilera % (desplazamenduak hirian)	% 1-2 (2000)	% 3,5 (2009)
Motorizazio indizea (ibilg/1.000 bizt.)	531 (2004)	589 (2008)
Hegazkina (bidaiariak/urtean)	281.000 (2001)	403.221 (2008)
Portuko Merkantzien Trafikoa (Tn)	4.718.000 (2001)	4.778.012 (2008)



4.2. Hiriaren posizionamendua - AMIA analisia: Ahuleziak, mehatxuak, indarrak, aukerak

AMIA analisisan jasotako informazioan, egungo egoeraren azterketaren ondorio, hiria diagnostikoaren dokumentuetan islatzen den moduan bezala agertzen da, PEaren lanketan inplikaturako agente eta aditu multzoarekin kontrastatu eta gero.

Hemen laburtutako eskeman agertzen da jasotako guztiaren bilduma, ideia nagusiak nabarmenduta.

AHULEZIAK	MEHATXUAK
· Akordiorako kultura falta. · Autokonplazentzia. · Indarkeria / gatazka politikoa. · Irisgarritasunean eta udalen arteko mugikortasunean gabeziak. · Ekintzailetasun ekimen urria. · Gazteentzat erakargarritasun mugatua. · Konparatutako Bizitzaren kostua.	· Hirien arteko lehia areagotzea. · Krisi ekonomikoa eta bereziki ziurgabetasun egoera. · Talentua eta populazio gaztea erakartzeko hiri eta eskualde ekonomikoen arteko lehia. · Populazioaren talde eta sektore guztiak integratzeko gaitasunik ez izateko arriskua. · Ardatz geostrategiko eta ekonomiko handietan urruntzea edo konektibotasun falta. · Aldaketa klimatikoa eta bere ondorioak.
INDARRAK	AUKERAK
· Bizi-kalitate ona. · Prestakuntza perfil egokia, ezagutza eta teknologia egitura bikaina. · Kokapen geografikoa. · Gizarte kohesioa. · Gastronomia. · Populazio aktiboa, kapital sozial eta kulturala. · Paisaia eta ingurumena.	· Tren eta itsasoko azpiegitura berrien garapena. · Muga gaineko hiriaren hirigintzaren garapena. · Gizartea, unibertsitatea, enpresa eta erakundeen artean sinergien sarea indartuko duen kolaborazioa.. · 2016 Europako Kultur hiriburuaren hautagaitza eta balizko izendapena. · Internet bidezko sareen garapena.

4.2.1. Ahuleziak

AKORDIORAKO KULTURA FALTA

Azken urteotan Jaizkibia edota Ortzibia bezalako elkarteek sorrera eta Tabakalera edota 2016an Europako Kultur Hiriburu izateko kandidatura bideratu duten erakundeek arteko harremanetan hobekuntzak sumatzen diren arren, proiektu handien sorrera eta bultzada nabarmen hobetuko luketen gabezia larriak ikusten dira arlo honetan.

KONTSERBADORISMOA ETA NORBERAREKIKO ATSEGINA

Hiritarren %93 pozik edo oso pozik dago Donostian bizitzeagatik, Urban Audit-en baitan (Hiritarren Pertzepzio Inkesta), Europaren batezbestekoa baino askoz gorago kokatzen da, gauza bera gertatzen da AEBkoarekin alderatuta, %64an kokatzen baita (*Kokapen eta Zoriontasunaren Inguruko Azterketa. Richard Florida*). Izan ere, positibotzat hartu beharko genukeen datu honek aspektu negatibo bat ezkutatu dezake: norberarekin atsegina. Hiriek aurrera egin behar dute beren estatusa mantentzeko. Arriskua zera da, bizitzeko merezi duen hiri batekoak izaten jarraitzeko, etengabe berritzen jarraitu behar dugula.

INDARKERIA / GATAZKA POLITIKOA

Terrorismoa eta indarkeriaren erabilerak eragin handia dute hiritarren baloreetan berebizikoak diren zenbait aspektutan eta hiriaren irudian, hala ere, efekturik larriena pertsona askoren bizitzarentzat eta batez ere donostiarren ordezkarien gehiengoarentzat suposatzen duen mehatxuan ematen da.

IRISGARRITASUNEAN ETA UDALEN ARTEKO MUGIKORTASUNEAN GABEZIAK

Bost aireportu gertu izanik ere (ordubete inguruko distantziak), Donostia-Hondarribiako aireportua gertukoena da eta hiriarekin identifikatzen dena. Ia operadore bakar batek burutzen dituen bi norakoe-kin, lehiakortasunik gabeko aireportu bilakatzen du, bereziki turismoa jasotzeko garaian. Tren azpiegitu-
rei dagokienez, ekipamenduetan hobekuntza nabarmena izan den arren, urrun dago oraindik lehiakor izatetik.

HIRITARREN ZAHARTZEA

Belaunaldi ordezkarien falta, jaiotza-tasa baxua, adinduen kolektiboari hazten doazen arreta behar-
rarak. Zahartze indizea hazten joan da azken urteotan, 2008ko %20,1ean kokatuz, gaztetasun indizeak duen %16,6aren aurrean (azken urteotan egonkor mantentzen da). Famili unitatea txikitu izanak (bakarrik dauden pertsona adinduak) eta bizitzaluzeraren areagotzeak (65 urtetik gorako %14,4k 85 urte baino gehiago ditu) eta honekin minusbaliotasunak/mendekotasunak dituen pertsona kopurua-
ren hazkuntzak ahulezia hau Donostiak etorkizunari begira dituen artean eraginkorrena bilakatzen du.

EKINTZAILETASUN EKIMEN URRIA

Gazteen artean batez ere. Datuen artean nolabaiteko desberdintasunak dauden arren, EAEaren Gazteria Inkestak 2000. urtean euskal gazteen %60k auto-enpleguaren aurrean jarrera negatiboa zuela adierazten zuen. Portzentaje hau %70era igo zen lau urte beranduago.

GAZTEENTZAT ERAKARGARRITASUN MUGATUA

Aisialdi falta, bizitza garatzeko arazoak eta gazteak bertan mantentzeko gaitasun eskasa. 2008ko Hiritarren Pertzepzio Inkestaren arabera gazteak dira (18-29 urte) hiriko aisialdi eta kultur eskaintza okerre-
n baloratzen dutenak (10etik 4,76, donostiarren batezbestekoa 5,51koa izanik). Aldi berean, hiriko kultur ekitaldiak okerre-
n baloratzen dituztenak dira (5,90, hiritarren batezbestekoa 6,45ean kokatzen denean) eta zailtasunak jartzen dituzte hirian eta inguruan garraio publikoak baloratzerako garaian (10etik 5,67, batezbestekoa 6,22 denean), etxebizitzara sarbidea izateko zailtasunak ere azpimarratzen dituzte.

KONPARATUTAKO BIZITZAREN KOSTUA

Bizitzeko hiri “garestia” da, antzeko ezaugarriak dituzten besteekin alderatuta. “Bizitzaren kostuaren” faktore bakarra etxebizitzaren garestitzea bakarrik ez den arren, benetan esanguratsua dela esan daiteke. Donostian etxebizitza berriaren prezioa 3.918 €/m² da; Bartzelonaren atzetik (4.243€/m²) hiri garestiena, estatuko batezbestekoa 2.712 €/m² izanik (Iturria: Tasazio Elkarteak, 2008ko abendua).

4.2.2. Mehatxuak

HIRIEN ARTEKO LEHIA AREAGOTZEA

Azken urteotan, hirien paperak protagonismo garrantzitsua hartu du eta hauen arteko konpetentzia gero eta nabarmenagoa da. Hiriak jarduera ekonomikoak, bisitariak eta abar erakartzeko lehiatzen dira eta horretarako beren ekintza eremutik kanpo dauden alorrak jorratzen dituzte (batez ere Donostiaren izaera tradizionalan eragin zuzena duten horiek, hau da, turismoa, gastronomia, edota kultura).

KRISI EKONOMIKOA ETA BEREZIKI ZIURGABETASUN EGOERA

Hain dimentsio handia duen krisiarekin eta etorkizunari begira aurreikusi ez daitezkeen eszenatokiekin, hiriaren ekonomia eta zerbitzuen mailan hondatze arrisku handia kokatzen dira horien artean, Donostiak epe laburrera dituen erronkak eraldatzen ditu, nahiz eta seguruenik, ez duen epe luzerako apustu estrategikoetan horrenbesteko eraginik izango. Edozein kasutan, krisi honen ezaugarriek, horrenbesteko dimentsioa ematen diote, mehatxatzeko duten gaitasunetik ihes egitea zaila egiten dutela. Bestalde, munduaren estatus sozioekonomikoa mantentzea krisi honen kausei aurre egiteko neurririk hartu gabe, etorkizunari begira ziurgabetasunerako elementu berri bat izan daiteke.

TALENTUA ETA POPULAZIO GAZTEA ERAKARTZEKO HIRI ETA ESKUALDE EKONOMIKOEN ARTEKO LEHIA ETENGABEA

Hiri eta eskualde aurreratuenak talentua erakarri eta bertan mantentzeko prozesuan murgilduta daude. Lehia honek populazioaren galera prozesua, lan merkatuan errelebo falta eta talentuen ihesa areagotu ditzake.

POPULAZIOAREN TALDE ETA SEKTORE GUZTIAK INTEGRATZEKO GAITASUNIK EZ IZATEKO ARRISKUA

Populazio handiagoa, baliabide gutxiagorekin, gaitasunik gabeko inmigrazioa..., honek gizarte kohesio faltara, edota pobrezia modu berrien agerpena eraman gaitzake.

ARDATZ (EDO SARE) GEOESTRATEGIKO ETA EKONOMIKO HANDIETATIK URRUNTZEA EDO KONEKTIBOTASUN FALTA

Europar garapen handiko egungo nodoak sendotzeak (Londres-Paris-Milan ardatza) edota jarduera gainerakorreko alorren garapen etengabeak (Txina, India, etab.) munduan, arku Atlantikoa eta Europaren ahulezia sakontzen dute.

ALDAKETA KLIMATIKOA ETA BERE ONDORIOAK

Salbuespen bat edo beste kenduta, garai hauetan dagoeneko ez du inork duda izpirik datozen urteotan aspektu honek gizateriarentzat izango duen garrantziaz. Prozesua eraldatu edo gelditzeko ahaleginak, izango dituen ondorioei aurre egitearekin batera, kostako zonaldeetan batez ere, datozen urteotara begira helburu garrantzitsuenetakoa da. Energiak, aurreikusten den erregai fosilen eskaeraren gorakadan berebiziko eragina izango duen aspektuetako beste bat izango da baita ere.



4.2.3. Indarrak

BIZI-KALITATEA

“Ongi bizi gara” hiri honetan, hirigintzaren kalitatea, ingurumenaren kalitatea, zerbitzu eta hornikuntza onekin eta sorospen sare egokiarekin. Bere tamainak, hiri ertain baten aurrean gaude, txikia iruditu dezake, hala ere, bere garapenerako nahikoa masa kritikoa dauka eta eskala hori aukera bilakatzen da.

HIRIAREN PROFIL EGOKIA HEZKUNTZAN ETA AZPIEGITURA TEKNOLOGIKOETAN ETA EZAGUTZA ARLOKOAN

Modu orokorrean adierazita unibertsitate ehun ederra duen hiri baten aurrean gaude, baita enpresaritzat eta teknologia arloei begiraturat ere. Trebatutako eta gaitasun handiko populazioa da gainera bere ezaugarrietako bat (20-24 urte arteko populazioaren %79,7k gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak burutu ditu; potentzialki aktiboa izan daitekeen populazioaren %28k – 18 eta 64 urte bitartean – unibertsitate ikasketak ditu). Honi gero eta gehiago diren teknologia, zientzia eta ikerketa guneak gehitu behar zaizkio.

Beste sektore batzuetan ere posizionamendu bikaina dauka Donostiak, adibidez Kulturaren, zahartzearekin erlazionatutako zerbitzuetan, sektore turistikoaren eta aisialdikoaren eraldaketan, ingurumenaren eta energia berriztagarrietan.

KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Eskualde eta estatu mailako testuinguruan kokapenak (Iparralde-Hegoalde ardatza, Europa eta Penintsula lotzen dituen eta neurri txikiagoan Ekialde-Mendebalde) eta mugaz gaindiko izaerak (hizkuntzak, gertutasuna, aberastasun kulturala) kokapen geografiko bikaina ematen dio, penintsula osoarekin batera, Europaren periferian baztertuta egon arren.

GIZARTE KOHESIOA

Sozialki konprometitutako hiria, tolerantzia eta etorkinekin abegitsua. Gehiegitan errekonozitzen ez den balorea da hau, baina Donostiak gizarte oreka esanguratsua mantentzen jakin du, gizartean desberdintasun nabarmenik gabe. Asmoa bide horretatik bertatik jarraitzea da, datozen urteotan ditugun erronkei begira.

GASTRONOMIA

Gastronomia, dudarik gabe, hiriak nazioartean errekonozitzen diren irudia eta prestigioa izateko laguntzen duen elementu nagusietakoa da. Hala ere, etengabeko berrikuntza eskatzen duen aktiboa da eta posizionamendua mantentzeko ahalegin berezia eskatzen du.

POPULAZIO AKTIBOA, KAPITAL SOZIAL ETA KULTURAL MAILA GARRANTZITSUAREKIN

Donostia hiri “partzipatiboa” da, sare sozial sendoekin. Hamar donostiarretik bat GKEekin elkarlanean dabil; erroldatutako 856 elkarte (kulturalak, aisialdikoak, kirol arlokoak, gastronomikoak...) 5 elkarte 1.000 biztanleko... Kultur hornikuntza egokia du gainera, batez ere gertuko guneak, sorospenekoak, kirolekoak...

PAISAIA ETA INGURUMENA

Hiriak, bere aktibo nagusienetakoa den paisaia zoragarria dauka. Funtsezko erakarpen elementua da, errekonozimendu gehien duen nortasun ikurra da dudarik gabe. Gizakiaren eskusartzeak ingurune natural bikaina “urbanizatuz” mantentzen jakin du, bien arteko oreka delikatua gauzatuz.



4.2.4. Aukerak

TREN ETA ITSASOKO AZPIEGITURA BERRIEN GARAPENA

Tren eta itsasoko azpiegitura berrien eraikuntzak eragin handia izango du urruneko komunikazioetan eta aukerarako espazioen eraketan (Pasaia).

MUGAZ GAINDIKO HIRIA ERE JORRATZEN DUEN KONURBAZIO URBANOAREN GARAPENA

Baiona-Donostia Eurohiriak eta eratzen duen konurbazio urbanoak, eskalan aldaketa egiteko aukera bikaina ematen dute, aldi berean, Frantzia eta Espainiaren arteko elkargune bilakatzeko duen gaitasunarekin. Zentzu honetan, Abiadura handiko Trenak eta metro bilakatutako "topoak" ikuspegi berria irekitzen dute.

GIZARTEA, UNIBERTSITATEA, ENPRESA ETA ERAKUNDEEN ARTEAN SINERGIEN SORRERA INDARTUKO DUEN KOLABORAZIOA

Kolaborazio Publiko/Publikoak eta Publiko/pribatuak lurralde osoarentzat proiektu handien garapenerako aukera suposatzen du. Gobernantza sustatzek proiektuen bultzadarentzat balore esanguratsua duten sinergien sorrera ahalbidetuko du, beste lurraldetan gertatu den bezala.

2016KO EUROPAKO KULTUR HIRIBURUAREN HAUTAGAITZA ETA BALIZKO IZENDAPENA

2016an Europako Kultur Hiriburu izateko aukeraketa Hiriarentzat sekulako erronka da. Kandidatura prestatze hutsa Donostiak duen kultur eskaintzaren inguruan debate garrantzitsua eragiten ari da. Hala ere, aukeraketak Hiriaren nazioartekotze prozesuan berebiziko saltoa ekarriko luke. Hastapeneko aukeraketa pasa izanak kandidaturari babes handia ematen dio eta azkeneko emaitza bat ala bestea izanik ere, kultur berrasmakuntza eta honen nazioartekotze prozesua indartzen ditu.

Gogoeta prozesuaren estadio honetan, gakoek hona garamatzate

- Singularitasuna, bikaintasun elementuak. Irudiaren berrindartzea, nortasun propioa.
 - Errespetua, solidaritatea, inplikazio pertsonal eta kolektiboa, ahalegina, kapital soziala... indartzen dituzten aspektuak.
 - Bizi-kalitatea: bizitzeko hiria, jasangarria, hiritar guztiekin lagunkorra den hiria, gaztetuta eta kohesionatua.
 - Hezkuntza-ikerketa, sormena ekintzailatza/enpresaritza gaitasuna.
 - Talentuaren erakarpena, sormena, berrikuntza.
 - Enpresa eta proiektu traktoreak.
 - Sektore gainerakorrei eta balio erantsi handikoei (azpiegiturak, erakundeen arteko kolaborazioa, "erraztasunak ematea", ...) laguntza estrategiak: Ezagutzaren ekonomia, teknologia, bio, kultur, komunikazioa,...
 - Posizionamendua (Eskala: metropolitara, Euskalhiria, Eurohiria, Nazioartekoa).
 - Komunikazio, garraio azpiegiturak eta sareak (sareetan partaidetza): mugikortasuna eta irisgarritasuna.
 - Zerbitzuen kalitatea, hiriaren jardura tradizionalen berrikuntza (merkataritza, turismoa...).
-



4.3. Joeren azterketa

Donostiak bizi duen errealitatearen azterketaren ondoren, bere diagnosi eta karakterizazio funtzionala Joeren Azterketa dokumentuan modu laburtuan aurkeztuko da, bertan, Donostian eragina izan lezaketen ingurune globalaren aldaketarako joerak aztertzen dira.



Globalizazioak eta ekonomian, nahiz hirien sisteman izan ditzakeen **efektuek** hiriei gero eta paper esanguratsua goa ematen die, ekonomiaren eta ekoizpen eta kontsumo gune gisako garapena, balio erantsi handia duten jarduerak, kultur, aisialdi eta harreman jardueren berebiziko motor gisa (UN Human Settlements Programme UN-HABITAT, 2004: *The state of the world's cities: globalization and urban culture*, London, Earthscan).

Testuinguru honetan, hiri eta lurraldeak pertsonak, inbertsioa, enpresak, ezagutza... erakarri eta bertan mantentzeko ahaleginean lehian jarraitzen du. Horretarako, oinarriko hasierako elementuez gain, estrategiak singularitasuna eta erakurpena polo gisa bere eraldaketa eta sendotzera lagundu edo hau zehaztu dezaketen bikaintasun elementu edo faktoreen singularitasuna bilatzera bideratzen dira. Zerk darama enpresa bat kokapen zehatz batean ezartzera?, Zerk eragiten du enpresari, ikertzaile, sortzaile, gazte, familia batek hiri bat edo bestea aukeratzea?

Horrela, globalizazio testuinguru honetan, hiriaren garapena baldintzatuko duten **lehiakortasun faktore propioak** bilatu behar dira, aldi berean, desberdintzeko modua, **faktore diferentziala**, singularitasuna, lehiakortasuna ere bai. Zeintzuk dira gure bikaintasun elementuak? Nola bereizi nahi dugu eta nola bereizi gaitezke? (Parekorik ez duen ingurua, bizi-kalitatea, harreman eremua, pertsonak...).

Hiriek beren singularitasun propioak aztertu behar dituzte eta beren estrategiak dituzten erakargarritasun puntuetan oinarritu, beren **nortasuna** indartuz eta egoera globale-tara egokituz, bere garapena bultzatzeko (Landry, 2006: *The Art of City Making*, Earthscan. London). Faktore diferentzialarekin batera, berrikuntzaren promozioa, sormenaren aldeko apustua eta talentuaren kontzentrazioa aldea markatu dezaketen puntuak izan daitezke.

Lehiakortasun ekonomikoari buruzko teorien alorrean, lurralde batek berritzeko duen gaitasunaren garapenean berebiziko faktoreak berrikuntzarako azpiegitura komune-tan oinarritzen dira, baita inguruaren egoera eta erakunde, agente eta abarren arteko loturen kalitatean ere (PORTER, 1990: *The Competitive Advantage of Nations*. New York, Free Press).

Bestalde, “lurralde inteligente” bezala deiturikoak, honela definitzen dira: “lehiakortasun ekonomikoa, gizartearen kohesioa eta garapena eta ingurumena eta kultur jasangarritasunaren arteko oreka aurkitzeko gai diren hiri berritzaile” gisa (Vegara & de las Rivas, 2004: *Territorios Inteligentes*. Fundación Metrópoli. Madrid; p.281) eta garapen ardatz berri, ezagutza eta berrikuntza gune gisa agertzen dira.

Baina hiriak ez dira isolatuta lehiatzen, lurraldeko estrategia eremu batean baizik, gero eta konplexuagoa den **hirien sisteman**, aliantzak eta kolaborazioak sortzen dira, garapen **sareak**, ardatzak ezartzen dira, **nodoak ezagutza eta berrikuntza hub-ak**. Aliantza hauek lurraldearen logikaren eskutik doaz, gertutasun fisikotik harago, aurrerapen teknologikoei eta komunikaziozkoek lagunduta eta gero eta eskala handiago eta globalagoan ematen dira.

Hiriak informazio, ondasun, inbertsio eta pertsonak trukatzeko sare handiz egindako nodo bilakatu dira. Bestalde, berrikuntza eta ezagutzaren kudeaketa poloak ere badira. **Komunikazio azpiegiturak** berebizikoak dira sare hauek eratzeke garaian eta ezinbestekoak ekonomiaren eta lurraldearen garapenerako; mugi-kortasun urbanoa, intermodalitatearen eta garraio publikoaren hobekuntza, bizi-kalitate altu aduen hiri jasangarriaren zerbitzura dauden elementu gisa. Komunikazio eta informazio teknologia berriak, IKTak, aspektu garrantzitsuenetakoa, zeinen garapen eta aplikazioak bizitzaren aspektu guztietan, bereziki hiri inguruetan, hiri lehiakor, sortzaile, berritzaileen eta hiritarrentzat zerbitzu hobeak eta bizi-kalitate handiagoa dutenen artean aldea markatzen duen.

Hiriaren lehiakortasun ekonomikoa tradizionalki hiriaren eta inguruaren motor ekonomikoen (merkataritza, turismoa, gastronomia, zerbitzuak eta enpresei zerbitzuak) eta jarduerak eremu gainerakorren arteko orekan oinarritu behar da, hauen artean industria sortzaileak (ikus-entzunezko sektorea, publizitatea, arkitektura, diseinua, softwarea, musika,...), bio eta nanozientziekin erlaziozkoak, zahartzearekin lotutako jarduerak edota energia berriztagarriak eta ingurumena. Jada existitzen den enpresaritza ehuna, gizarte baliabideak, hiritarren informazio maila altua eta ikerketa eta teknologiatan azpiegitura aurreratuak (teknologia guneak, unibertsitateak, ...) abiapuntu hartuta. Berrikuntzaren aldeko apustuak berebiziko papera jokatuko du ezagutzaren ekonomian.

EBak 2000. urtean onartu zuen Lisboako agenda, honen helburu nagusia “EBa ezagutzan oinarritutako gizarteetan

munduko lider bilakatzea” du eta orduz geroztik, Ezagutzaren Ekonomia bere estrategia eta ekintzatan presente dago. Ezagutzaren Gizarte eta Ekonomia berri honetan, Berrikuntza, Garapen Teknologikoa, Sormena eta Kulturaren aldeko apustuak eta Talentuaren kontzentrazioaren sustapena izan daitezke aldea markatu dezaketen puntuak.

Aldi berean, **berrikuntza, jasangarritasuna eta ezagutza** dira 2020ra begira Europar batasunaren estrategia berriaren paradigma globala eta helburu nagusien nortasun ikurrak, Europar batzordearen Lan Dokumentuak azaltzen duenaren arabera: “2020ra begira, EBaren Etorkizuneko Estrategiari buruzko Kontsulta http://ec.europa.eu/eu2020/pdf/eu2020_es.pdf“(…) *merkatu jasangarriko gizarte ekonomia berria, inteligenteagoa eta ingurumena gehiago errespetatzen duena, gure oparotasuna berrikuntza eta baliabideen erabilera egokiagoan oinarrituko duena eta bere motor nagusia ezagutza izango duena*”. Helburuak: ezagutza haztean oinarritutako baloreak eratzea, hiritarren papera gizarte inklusiboetan indartzea, ekonomia lehiakorra sortzea, konektatua eta ingurumena gehiago errespetatzen duena.

“**Ekonomia sortzailea**” kontzeptua garapenean dagoen terminoa da eta egungo garapen ekonomikoaren inguruko pentsamenduan espazioa irabazten ari da; ekonomia, kultura eta teknologiaren arteko interfazea barneratzen du eta zerbitzuen eta eduki sortzaileen nagusitasunean oinarritzen da (UN-UNCTAD, 2008: *Creative Economy. The Challenge of Assessing the Creative Economy: Towards Informed Policy Making*). Ildo horretan, Europa Batzordeak 2009 izendatu zuen Sormen eta Berrikuntzaren urte, Lisboako Estrategiaren fase berriaren eremuan, Europaren potentzial sortzaile eta berritzailea sustatzeko helburuarekin, garapen urbanoa eta eskualdekoaren motor izanik eta garapen pertsonala, soziala eta ekonomikoarentzat ere motor gisa.

“Kultura europarrean eta zientzian bikaintasunean oinarritutako hiritarren berrikuntza eta sormen ahalmenaren garapena etorkizunean hazteko berebiziko faktorea da” (*Presidency Conclusions*, Brussels European Council, 2008ko martxoak 13-14). Hezkuntza sormena sustatzea; kultur sektoreak antolatzeak dituen gaitasunak indartzea, enpresaritzaren izpirituan eta kudeaketan trebakuntza indar berezia eginez; kultur sektorea eta beste sektoreen arteko elkarkidetzaren eraginkorrak bultzatu (IKTak, ikerketa, turismoa, gizarte solaskideak, etab.) (Kulturaren Agenda Europarra COM (2007)242. *Globalizazioa bidean doan Mundu batean*,

Kulturaren Agenda Europarrari buruzko komunikazioa eta bestalde Europar Batzordea COM (2010)183 amaiera Liburu Berdea. Kultura eta sormen industriaren potentziala askatu).

Bestalde, sormena, kapital intelektualari eta produktu eta zerbitzuetan aplikazioari lotuta, lokalizazioa, baliabide naturalak, edota merkatura sarbidea bezalako egungo hiriko dinamismoan berebiziko kontuak diren faktoreak ordezkatzeko ari da pixkanaka.

Ezagutza, sormena eta berrikuntza oinarritutako garapen urbanoa bikaintasun nukleoen sorrerarekin lotzen da, non egun garapen ekonomiko eta sozial handiena ematen den (Landry, 2000: *The Creative City*. Earthscan. London).

Mundu eta ekonomia globalizatuen presioek, kolektibo jakin batzuk erakarri eta bertan mantentzeko lehiaketa areagotzen dute, ondare intelektual, ezagutza eta sormen nahasketa egokia. Aipatu behar da hemen zientziaren ezagutzarekin erlazionatutako talentuak duen garrantzia, baita lurraldera, hirietara talentua erakartzeko bilaketak ere, bizitza estiloa, tolerantzia, bizitza kulturala eta beste hiri sortzaileen baloreen bidez (Florida, 2009: *Las Ciudades Creativas*. Paidós. Bartzelona).

Gizarte kohesioa erronka eta helburu nagusien artean kokatzen da, gure kasuan indar gisa kontatzen dugu, baina kontuan hartu behar da gorantz doan konplexutasuna, aniztasun sozial eta etnikoa, joera demografikoak doazen erronkak (etengabeko zahartze demografikoa eta gizartearen ukitu kultur anitzaren areagotzea) eta egoera ekonomikoa.

Pertsonak, kapital soziala bere zentzu zabalenean, baina bereziki harreman kapitalaren definizioan, gero eta sarriago hiriaren estrategien elementu bereizgarrietan eraldatzen diren baloreak dira. Kooperazio Ekonomikoa eta Garapenerako Erakundeak (Organization for Economic Cooperation and Development, OECD) kapital soziala honela definitzen du: “*taldeen artean eta hauen barnean kooperazioa ahalbidetzen duten sare eta arau, balore eta partekatutako ezagutzak*”. Kapital soziala gizabanako askoren artean zabaltzeak inplikazio sozial garrantzitsuak dauzka. Konfiantza dagoen gizarte batean, negoziaketa eta akordioen eraketarekin zerikusia duten kostu guztiak gutxitzen dira. Era berean, sare pertsonalen bidez, gizabanakoen konektibotasunak informazio jariora eta behar indibidual, nahiz kolektiboak asetzeko gaitasuna errazten ditu.

Hiria **gobernantza eredu** gisa, hiritarren partaidetzaren eskakizunean eta gardentasunean, erakundeen berrikuntzan interes handiagoa. Bestalde, harreman espazio eta sareek partaidetza aktiboaren bidean zabalkundean lagundu behar dute, baita solidaritate printzipioetatik alor eta kolektibo ahulenei bideratutako ekin-tzek ere. Honen inguruan, eta Putmanen arabera, kapital soziala landu eta eraikitzeko, ezinbestekoa da hiritarrak erabakiak hartzeko prozesuan eta konpromisoan inplikatzeari; honek, aldi berean, gizarte zerbitzuekin eta ingurumenarekin ardura handiagoa eskatzen du; partaidetza handiagoak, sarritan ekintza kolektibo eta gizarte kohesio mailak areagotzen ditu (Putnam, 2005: *The Evolution of Social Capital in Contemporary Society*, Oxford, University Press).

Hiriek, pertsona, ondare eta zerbitzuen harreman gune gisa ezagutza guneetan eraldaketa ahalmena dute jada, kultura, sormena eta berrikuntza sustatzen diren eszenatokiak, hirian bertan ezagutza espazioen sorreratik abiatuta, ezagutza sareen establezimendutik, gizarte trukaketaren abiapuntu gisa.

Hirian lurraldearekin zerikusia duten aspektuei dagokienez eta lurralde eta hirigintza joerak kontutan hartuta, egungo egoeran, HAPN berriaren hastapeneko onarpenarekin, hiri ereduak jada existitzen diren elementuetan oinarritutako **hiriaren eta bizitza urbanoaren proiektu integral eta jasangarria** izan behar du, “hiri-

tarrentzat egindako hiriaren” planteamendutik abiatuta, hiritar guztientzat – beren oinarritzko beharrak asetzen dituen eta hauetatik arago doana – orekatua eta jasangarria, hirian bizi-kalitate maila handiarekin (zerbitzu, hornikuntza, hezkuntza, kultura, aisialdi, berdegune eta jarduera ekonomikoaren orekarekin). Hiri egitura trinkotik abiatuta, orekatua (auzoak), atsegina/lagunkorra, irisgarria (barruko mugikortasuna); jarduera ekonomikoaren garapena eta gizartearen interakzioa errazten dituzten erabileren “aniztasuna”, “konplexutasun urbanoa”, ingurumena eta kulturaren arloko gaiak ahaztu gabe (ondare natural eta kulturala, ...). Espazio nagusien edota aukera alor berrien identifikazioak hiriaren garapena erraztuko du.

Hiriaren eskalaren aipamena ere egitea komeni da. Ekonomia eta garapenaren globalizazioak masa kritiko jakin bat eskatzen dute, neurri batean, testuinguru geoestrategikoan hiri baten posizionamendua baldintzatzen dutenak; hala ere, sareen ezarpena eta hirien sisteman kooperazioa/kolaborazio eraginkorrak bere aurreikuspenak nabarmen hobetu ditzake. Bestalde, tamaina ertaineko hiri eskala honek berak abantaila gehigarri bat eranstean du gizartearen eta hiriaren bizikaltatea bezalako baloreak indarrean jartzen direnean, baita zerbitzuen gertutasuna, gizarte sareak, baloreen mantentzea eta abar aipatzen direnean ere.

Garapen jasangarriaren kontzeptua, garapen ekonomikorako eredu gisa, ingurumenarekin bateragarria, hirien, bertako hiritarren eta jarduera ekonomikoaren beharrak eta aurreikuspenak asez, garapen egokia bermatuz, baliabide natural eta energetikoen ganorazko erabilpena eta ahal den galera ekologiko eskasarekin batera. Horrela jasotzen da 2001ean indarrean sartu den EB-aren garapen jasangarriko lehen estrategian *Sustainable Development Strategy* (Gottenburgoko Batzordea) eta urteetan zehar berean mantendu da (*Council of the EU, Review of the EU Sustainable Development Strategy-Renewed Strategy*, 10117/06).

Azkenik, erakundeen eta publiko-pribatuaren eta gizarte zibilaren arteko koordinazioa eta elkarlana sustatzea komenigarria/ezinbestekoa dela azpimarratu behar da, estrategia eta proiektuen definizioan, eraginkortasun eta sinergien bilaketan...

5. E2020DSS

Estrategiaren diseinua

5.1. 2020ra begira nahi dugun hiria

Zuzendaritza estrategikoa bideratu duen Ikuspegia ezartzerako garaian, estrategia edo ekintza ildoen printzipioak bultzatu dituzten elementuen definizioa egiterako garaian lagungarri gerta litekeen aspektu multzoaren inguruko gogoeta egin da. Gogoeta honetan, zein hiri izan dezakegu? (Diagnosia), zein hiri nahi dugu? (ikuspegia) bezalako galderez gain, arrakastako faktore kritikoak ere kontuan hartu dira, baita beste hirien erronkak eta joeren azterketarekin konbinatu diren inguruko “makro” faktoreen inguruan ere.

2010eko Plan Estrategikoak, lau ardatzetan oinarritutako estrategia planteatzen zuen: Kalitatea, Sormena eta Berrikuntza, Pertsonen Hiri Kohesionatua eta Erlazionatutako Hiria. Estrategia honek hiriaren norabidean erabateko aldaketa zekarren.

Alde batetik, hiriko sektore “tradizionalean” berrikuntza eta kalitatea sustatzen zituen (Turismoa, Merkataritza, etab), hiri “paisaia” garaikide egitea eta zerbitzu publikoen modernizazioa. Bestetik, kultur industrien aldeko apustuan sakontzen zuen, batez ere ikus-entzunezko sektorean, Zientzia eta orduan gainerakorrak ziren sektore batzuetan I+G+b lanari zegokionean (Biozientziak, Nanozientziak, IKTak, etab.). Gainera, Bakea edota etxebizitza bezalako arazo larrietan indar berezia egiten zuen, baita beste alor batzuetan gizarte kohesioarekin zerikusia zutenetan ere, hauetako batzuk hasiberriak (batez ere inmigrazioa eta belaunaldien arteko harremanak, genero arazoak, adinduak edota normalizazio linguistikoa bezalako beste batzuk). Azkenik, eskala metropolitarrak lantzearen beharra azpimarratzen zen, batez ere Pasaia zonaldearen biziberritzea, mugikortasun metropolitarrak eta ibilbide luzekoak (AHT, aireportua) zituzten gabezia larriak, biztanleria telekomunikazio azpiegitura berrietarako prestatzekoa eta nazioartekotze prozesu bat jorratzearena.

Apustu hauetako asko garatzen joan dira eta gaur egun errealitate bilakatu ere bai, edo exekutatuak edo proiektatuak daude behintzat. Hala ere, beste batzuk ez dira nahi haina garatu. Aurreko plana 2003an onartu zela kontuan hartuta eta sakontasuna duten apustuek 2010 baino gauzatze eszenatoki luzeagoa dutela, komeni da 2020 Estrategiak aspektu batzuetan (Jarduera ekonomikoak, adibidez) norabide aldaketa nabarmena dakarren ekimen estrategiko baten errealitatea aztertzea.

Datozen hamar urteotara begira, hiriaren estrategiaren inguruko gogoeta egiterakoan, bi aldaketa nabarmen gauzatu direla ikus daiteke: alde batetik, lurraldeko planifikazio estrategikoaren eraldaketa, epe luzerako planifikazio prozesu itxi batean baino (egungo krisi ekonomikoarekin ikusten ari gara), estrategia dinamikan indar handiagoa egitea. Hau da, epe luzeko umotze edota exekuzio maila behar duten proiektuak (AHT, Pasaia birsorkuntza, etab), estrategia hauen aplikazioaren ondorioz sortzen diren dinamiketarik eratorritako proiektuen sorkuntza bateratzeko gauza izatea. Azken finean, gure hiriaren ekimen estrategikoari buruzko ikuspegi dinamikoagoa. Bestetik, strategiaren birbideratzean indarra egiteko beharra, birbideratzea eskatzen duten gai horiek kontuan hartuta (ez dutelako funtzionatu, edota ez direlako behar bezala garatu), aurreko plan estrategikoa egin zenean baino modu xumeagoan agertu diren beste batzuk (jasangarritasunaren aldeko apustua, edota aldaketa klimatikoa) eta berrasmatzea eskatzen duten beste hainbat.

Gogoetan zeuden aspektu hauekin bat egiten du, azken laurogei urteotan jasan dugun krisi ekonomiko larriena. Egunotan ikusten ari garen bezala, hain sakona da, bereziki Europa eta Espainian ekonomiak aurrera egitea galarazten duen krisia dela. Gainera, badirudi, aurreikusten zen bezala, ondorio garrantzitsuak izan ditzakeen eredu ekonomiko baten aldaketaren aurrean gaudela (Txina, India,

5.1. 2020ra begira nahi dugun hiria

edota Brasil bezalako herrialde gainerakorren paper berria) eta honek Euskadin eta batez ere Gipuzkoan eta Donostian I+G+b alorrari bideratutako politika ekonomikoaren aldeko apustua egitea ekarri zuen. Arazoa zera da, krisiak aldaketan modu azkarragoan sakontzeko beharra nabarmen ekarri duela, sakonera handiko baliabideen gutxitzearekin batera. Horrek, krisiaren ikusmuga argitzen doan heinean, berrazterketa Estrategiko batera behartuko gaitu. Hala ere, krisiaren ondorioek arrazoia eman diote azken urteotan suertatutako estrategia aldaketari: gure enpresak, guk ezagutza sortzeko ditugun gaitasunak aprobetxatuz, gehiago eta azkarrago berritzeko gai badira bakarrik izango dira lehiatzeko gai. Ez da batere erraza eta merkatuetan egunero lekua irekitzen saiatzen direnek ongi asko dakite.

Abangoardian egoteak, gainera, zailago egiten du aurrera azkarrago egiteko baliagarri zaizkigun ereduak identifikatzea. Eredua eraiki behar dugu. Indarrean dagoen plan estrategikoaren baitan bultzatu diren proiektuetako batzuekin gertatu den bezala, han egon eta gure bizitza estatusa mantentzeko, proiektu berriak sortu behar ditugu ezezaguna zaigun egoera batean, esploratuz, arriskuak hartuz, porrotak gutxiagotuz, gu guztion artean kolaborazio iraunkorrak sendotuz.

Krisi honek nabarmen azaldu digu, baita ere, baloreen eta hiri prestatuaren aldeko apustua egiteko beharra, erronkei proiektuetan lider izanda erantzuteko gai den hiri komunitate indartsu batekin (gizarte kapital deitzen duguna).

Estrategiaren lanketa prozesuan aztertutako faktore hauek eta beste batzuk eraman gaituzte, aurretik diseinatutakoa bideratzen duen eskema bat prestatzera, ingurumen estrategia, baloreak, edota ekonomia sortzailea indartuz.

Horrela, aurreko kapitulu eta ataletan zehaztu den partaidetza gogoetaren ibilbideak hemen aurkezten dugun Donostia 2020ren Ikuspegiaren ondorioa eman du eta inplikaturako agenteen onarpena jaso ondoren, E2020DSS Estrategiaren diseinuaren oinarri gisa balio digu.



Bere **baloreak** direla eta, hiritarrak arro sentitzeko arrazoiak dituen hiria, baita bakearen kulturaren alde egiten duen lanarengatik ere.

Hiri **kohesionatua**, solidarioa, adinarekin lagunkorra, ongi konektatua, Gipuzkoako lurraldearen gaitasun industrialaren buru bezala, I+G+b alorrari lotuta, jarduerak ekonomiko oso bat eragiten jakin duena, Zientzia eta Teknologian eta ekonomia sortzailearekin zerikusia duten jardueretan nazioarteko erreferentzia bilakatuz.

Hiri irekia, dinamikoa, abegikorra, aniztasunean zabaldua, bizi eta gozatzea merezi duen lekua, ingurumen, gizarte eta ekonomiaren ikuspuntutik jasangarritasun eredu dena.

Etorkizuna duen hiria, **gazteak liluratu eta erakartzeko gai** delako. Horretarako, **kultura** sustatzen du sormena eta gizarte kohesioa bultzatzeko tresna gisa. Azken finean, pertsona bakoitzak bere bizitza proiektua egoerarik onenean garatu dezakeen hiria.




5.2. Definizio estrategikoa

Hiri eredu hau lortzeko, sakontzea komeni zen lau Ardatz Estrategikoen gainean ekitea planteatu genuen. Gauza ez da dena jorratzea, azpimarragarriena baizik, hiri hori lortzeko eragin handien duena.

Atal honek hedaketa erronka eta eremuak aurkezten ditu, aurreikusitako estrategia oinarritzen den lau ardatzak jasoz, hauekin lotutako helburu eta jarduera ildoekin batera.

Ardatz estrategiko bakoitza E2020DSS Estrategia lantzeko oinarri gisa balio izan duten helburuen hastapeneko zabalkuntzarekin jarraitzen duen sarrerako azterketatik abiatuta egituratzen da.



5.2.1. A ardatz estrategikoa: DSSn diseinatua: Etorkizuna duten jarduerak

2010 Plan Estrategikoak sormena aipatzen zuen zientzia eta ikerketa eta berrikuntzan diharduten hainbat aspektutan, kultur industriez gain (begirada ikus-entzunezko arteetan bereziki jarritz). Apustu hauen emaitzak zeharo ezberdinak izan dira.

Alde batetik, zientzia, ikerketa eta berrikuntzarekin erlazionatutako jardueren bultzada bat izan da. Hala ere, garapen indartsu hau ez da ikusgarritasuna eta kultura eta ikus-entzunezkoen kulturaren gehiagotze batean islatu. Tabakalera abian jartzeko unean atzerapen handia, proiektu batzuk beste lurralde batzuetara bideratu izana, ikus-entzunezko sektorearen Klusterra, edota EITBren egoitza nagusia Bilbora eramateko erabakia, sektore honen ahultzean bi puntu garrantzitsu izan dira neurri handi batean, bestalde, Ikus-entzunezkoen Berrikuntza Polo berriarekin indartu den arren, edota Udalak Donostiako Sustapena SA tartean, CEMEI gunean enpresa berrien ezarpena sustatu izana ere aldeko faktore bilakatu dira, honen eragina datozen urteotan ikusi ahal izango dugularik.

Guzti hau kontuan izanik ere, kultur sektoreko enpresa gisa definitzen direnen kopurua %60,14 igo da 2001tik 2007ra (EUSTAT), ikus-entzunezkoen sektorean %52,1eko igoera izan da eta %60,5ekoa edizio sektorearena, epe berdinean. Film Commission delakoa abian jarri izanak, hirian egindako errodajeei esker diru-sarrerak areagotzea ahalbidetu du.

Ekonomia sortzailea deitzen den horretan, nazioarte mailan jasandako garapenak, kontuan hartuta ekonomia sortzaileak Industria Kulturalaz gain beste batzuk barneratzen dituela (IKTen edukien garapena, diseinua, arkitektura, goi-gastronomia eta abar bezalako eremuak barneratuz), alor hauetan jada hiriak hasitako apustua indartzen du, kontuan hartuta sormena, beraien artean erlazionatutako esparru zeharo ezberdinak *jasotzen dituen estrategia baten muineko ideia dela*. Denborak 2010 Plan Estrategikoan alor honen alde hasitako apustuaren egokitasuna indartu du, beste sektore batzuetara ireki behar da orain, hiri Sormena eta Berrikuntzarekin identifikatzea ahalbidetzen du, sekula baino indar handiagoarekin.

2016ko Europako Kultur Hiriburutzarako hautagai izateko apustua aprobetxatuz, datozen urteotara begira, hiriaren papera indartzeko estrategia bat diseinatzeak Donostia 2020 Estrategiaren parte izan behar du halaberrez. Kandidaturari begira landu behar den proiektuaren prozesuak dakarren bultzada aprobetxatuz, salto bat ematea da helburua, kultur politikak berriz pentsatu, gaztetu eta eguneratzeko, hiritarrak Europaren abangoardian kokatuz. Bultzada honek ekonomia sortzailearen indartze estrategia bat abian jartzea ahalbidetu beharko luke, lehen aipatzen genuen bezala, tradizionalki kultur industriak bezala ezagutzen ditugun alorren gainera kokatzen dena, publizitatea, arkitektura, diseinua, ikus-entzunezko sektorea, softwarea eta kultur esparruan tradizionalak diren musika, artea eta abar.

Prozesu honetan, Tabakalera berebiziko tresnetako bat bilakatzen da, krisi ekonomikoa tartean bada ere eta hau martxan jartzea asko atzeratzen ari den arren.

Hiriak, abangoardia eta sormenarekin harreman zuzena duten pertsonekin bateratzen diren erreferenteak ditu sektore hauetan. Ekonomia sortzaileari bultzada bat emateak hirian berrikuntzaren aldeko “etengabeko tentsio” bat mantentzea ekarriko luke. Beste jarduerak batzuk “kutsatzen” dituzten pertsonekin, hala nola, merkataria, jatetxeak, hiri diseinua, eta abar, talentu sortzaileari begira, beti ere.

Baina ezagutzari aplikatutako sormenak beste alor batzuk ere barneratzen ditu, eremu teknologiko edota zientzia sozialeko jardueretan ikerketa eta berrikuntzarekin erlazionatutako ekimenak, edota gune horiek beraiek eraginda, munduko beste leku batzuetatik jendea erakartzea, honek hiriaren kultura eta berrikuntzari sekulako bultzada emango liokete eta.

Donostiak eta bere hiritarrek duten kultur mailako hiri batek (helduen ia %30ak unibertsitate ikasketak ditu), zerbitzuetako hiri bezala identifikatzen dena, merkataritza eremu zabal batekin eta jarduerak turistiko garrantzitsuarekin, gero eta zerbitzu aurreratu gehiagorekin, IKTak, baina baita bio eta nanozientziak ere, kultura eta sormenaren

aldeko apustua aprobe txatu behar du, jardueraren osotasunak aurrerapauso handiagoa emateko eta neurri handi batean merkataritzak eta turismoak, horrela beraien irudi eta proiektzioa biziberrituz, era berean, hiriaren kulturaren zabalkuntzari ekarpen handi bat eginez eta bere nortasuna indartuz.

Gérard Collomb, Lyongo alkateak adierazten duen bezala, “Erakartzeko gaitasuna, sareetako kide izatean oinarritzen bada eta lider bat behar badu; osagarri “aldaezinak” dituzten nazioarteko estandarrak lortzea inplikatzeko badu, hala nola, proiektzio ekonomikoa, ekipo metropolitarren presentzia, funtzio estrategiko garrantzitsuagoak, edota berrikuntzarako gaitasuna; orduan, “erakargarritasunaren” bideek, etorkizunean, elementu subjektiboagoak barneratu beharko dituzte, singularragoak eta gizakiengan gertuagokoak direnak, hala nola, kultura, irudia, historia, gertakari handiak, arteak, proiektuak...

Argi dago, bai, metropolien arteko lehia, hiriaren irudi eta nortasunean islatuko dela hemendik aurrera. Gaur egun erabakigarria dena hiriaren berezko kalitatea da, identifikatzen den jatorrizko unibertsoa, berak duen irudia, mantentzen duten baloreak, nahiz biztanleentzat, nahiz kanpokoentzat. Are gehiago espazio metropolitarra difusoa denean, biztanleriak heterogeneoak direnean eta tartean eskaintzen estandarizazio bat dugunean. Erronka, bereizteko, kohesioa, atxikimendua, iraganez, nahiz irudikatu dezakegun etorkizunarekin eraikitzen den irudi koherente baten aldeko ikuspegia, metropoliaren eszenaratze sinboliko baten bitartez”

Bestalde, 2010 Plan Estrategikoak jada hiriaren eredu ekonomikoaren aldaketaren aldeko apustua egiten zuen, sektore gainerakor jakin batzuk bultzatuz eta kulturaz gain, sormena eta berrikuntzarekin lotuz. Soilik alor turistikoari eta zerbitzu sektore tradizionalari lotutako irudi eta espezializazioa zituen hiri baten aurrean, jarduera ekonomiko ezberdineko tipologietan eredu anitzak sortzen joan dira eta I+G+b sektorearekin zuzenean bat egiten duten asko.

2001 eta 2008 artean, Euskadiko ikertzaile kopurua %60 igo da eta halako aldaketa, edo handiagoa eman da Donostian, edo Donostialdean, kontuan hartuta Gipuzkoak Euskadi erreferentzia hartuta,

ikertzaileen %41,3 duela, enpresen I+D gastuaren %44,1 eta Administrazio Publikoaren gastuaren %10,9 soilik, Euskal Autonomia Erkidegoak 2007an emandako datuen arabera, gipuzkoarren ahaleginaz eta beste lurraldeekin alderatuta, bertako inbertsio publikoaren alde nabarmena argi azaltzen dituen. Datu honek Donostiak eta lurraldearen osotasunak egiten duten esfortzua azpimarratzen du: 2001ean Gipuzkoak BPGaren %1,44 inbertitzen zuen I+G+b alorrean (Bizkaiak %1,42), 2008an %2,23koa zen Gipuzkoan (Bizkaian %1,73) eta Donostian %2,45.

Igoera argitzaile eta nabarmen honek ez du ezkutatu behar, hala ere, bere osotasunean trebakuntza gaitasunak areagotu behar direla eta bereziki azken urteotan indarra hartu duten sektoreei begira. Nanozientziak, Biozientziak, Informazio eta Komunikazioaren Teknologia, edota Neurozientziak baliabideetan inbertsio garrantzitsuak eskatzen dituzten sektoreak dira (finantzak, azpiegiturak, pertsonak, etab), baita lurraldearekin konexio egoki bat ahalbidetzen duen trebakuntza sare bat ere. Ezagutza erakarri daiteke eta erakarri egin behar da, baina tokiko gaitasunekin lotuta izan behar du eta era berean, tokiko talentu hori bertan mantendu behar da. “Ezagutzaren azpiegiturak”, talentua, erakar daitezke, baina erraztasun berarekin doaz. Horregatik, are garrantzitsuagoa da, modu lokalean ezagutza hori txertatzeko gaitasuna, ezagutzaren sormena eta fluxua ere sustatzeko. Horretarako, unibertsitate eta hezkuntza sistema osoaren papera berebizikoa da.

Bestalde, ezinbestekoa da hezkuntza guneak ehun sozioekonomikoarekin konektatzea, bien artean ildo estrategiko bera osatzeko. Gipuzkoan adibide argiak daude eta Donostian egoitza duten unibertsitateak berebizikoak dira krisia dela medio. Honek oraindik eta argiago utzi du berrikuntza eta aipatutako ezagutzaren azpiegituren aldeko apustuaren beharra, gure lehiatzeko gaitasuna mantendu edota areagotzeko funtsezko faktore gisa, ezagutzaren garapena, igorpena eta aplikazioa enpresaritzak jardueran errealitate bilakatzea errazteko.

5.2. Definizio estrategikoa

Erronka, beraz, ezagutzarekin lotutako alorrak sustatzea da (modu berezian unibertsitateko hezkuntza), mundu globalizatu baten aurrean, lehen mailako behar gisa, baina baita hirian “tradizionaltzat” hartzen diren beste batzuk txertatuz ere (merkataritza, ostalaritza, turismoa), kalitatea eta berrikuntza areagotzeko bide horretan.

Bestalde, turismoarekin erlazionatutako sektore tradizionalen modernizazioan sakontzen jarraitu behar dugu. Donostia Turismoa eta SShops abian jartzea berri garrantzitsuak izan dira pasa den hamarkadan zehar, baina besteak beste, berrikuntza, diseinua, singularitasuna edota gertuko merkataritza indartzeko estrategia eta ekimenak jorratzea eskatzen dute.

Jasangarritasunaren aldeko apustua, garapen ereduari dagokionean, nahiz hiria ingurumen erronka berrietara egokitzeko beharrari begiratuta eta garapen ekonomikoko alor bezala ikusita (bereziki energia berriztagarrietan) badirudi sakon sustraitu den ideia dela, diskurtso mailan behintzat. CO₂ igorpenak gutxitzeko beharrarekin eta gainera energia berriztagarrien (eolikoa, eguzki energia, geotermikoa, undimotrizia etab) ikerketa eta garapen gaitasunekin bat egiten duen eredu energetikoko estrategian jasangarritasuna, edota mugikortasun modu berriak, hondakinen kudeaketa eta birziklatzea... sekula baino zentzu gehiago duten edukiak dira.

DSSN DISEINATUA:

ETORKIZUNA DUTEN JARDUERAK.

HELBURUAK

1. Ekonomia sortzailearekin erlazionatutako jardueretan Europa mailan erreferente bilakatu.

Kultura eta sormenaren aldeko apustuak trebakuntza maila indartuko duten proiektuak eskatzen ditu – maila guztietan –, gune sendotuak dituzten garatu beharreko alorretan (Arkitektura Goi-Eskola Teknikoa eta EHUren Informatika Fakultatea, IKTak, Diseinu Industrialeko Ingeniaritza eta Tecnumen Produktuen garapena, Ikus-entzunezko Komunikazioa Deustun, etab.), gabezia larriak izan ditzaketenetan, hezkuntza eskaintzan eskusartzeak (diseinua, moda, arte eszenikoak, etab.).

Bigarrenik, alor honekin erlazionatutako enpresen sorrera indartuko duten proiektuak behar dira. Bide honetan, badira Tabakalera bezalako proiektuak eta Ikus-entzunezko Poloa, BIC Gipuzkoa Berrilan edota CEMEI eta Bidebieta, Belartza eta Zentek, Udalak kudeatutako haztegiak (Donostiako Sustapena SA-ren bidez) bezalako errealitate nabarmenak. Hala ere, proiektu berrien bidez indartu behar diren segmentuak ere badaude (adibidez, diseinu industrialaren alorrean, modan, etab.).

Hiriaren espezializazio musikala, programa egonkorra duten jarduera musikar ugarietan islatzen da (Musika Hamabostaldia, Jazzaldia, etab.), baina aldikakoetan ere bai, leku ezberdinetan egiten diren programazioak, adibidez (Victoria Eugenia Antzokia, Kursaal, Kultur Etxeak, eta abar) eremu publikoarekin lotura handiagokoak eta izaera pribatukoak, batez ere kontzertu handiak. Nabarmenezkoak dira, baita ere, musika arloko azpiegiturak eta hezkuntza eskaintza (Musika Eskola, Gradu Ertaineko Kontserbatorioa, Musikene, Akademiak, etab.). Azkenik, hiriak lehen mailako interprete, konpositore eta artistak ditu (Alberto Iglesias, La Oreja de Van Gogh, Mikel Erentxun, Alex Ubago, etab.) honekin lotura handia dutenak, Donostiako Orfeoia, ehun urtetik gorako ibilbidea-ekin eta nazioarteko errekonozimendurekin, Donostiako abesbatza tradizio mamitsuaren adierazgarri, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kokapena ahaztu gabe.

Baina posizionamendu hori izan arren eta hezkuntza guneetara joaten den ikasle kopurua handia dela kontutan hartuta ere, ez da espezializazio horren aprobetxamendu jatorrik egiten. Helburua zera da, sisteman eragitea, artistak, taldeak eta bere aspektu ezberdinetan, musikarekin erlazionatutako enpresak sortu ahal izateko gaitasun handiagoa izan dadin eta hiria, bertako hiritarren kultura eta musika maila areagotzeko prestatzea. Hiriaren musika eskaintza handiagotzen lagundu dezaketen artista eta talde amateurren sorrera sustatzea, dudarik gabe, bide egokienetakoa da, hala ere, sistema osoa aztertu beharko da, helburu horietara bideratzeko. Apustu honek, IBP eta Tabakaleraren bidez, ikus-entzunezko sektorean planteatutako estrategiarekin bat egiten du.

2016an Europako Kultur Hiriburu izateko kandidatura aprobetxatuz, kulturaren ikuspuntutik hiria berrasmatzeko burutzen ari den lan garrantzitsuak berebizikoak diren azpiegiturak amaitzea eskatzen du, hala nola, Tabakalera, Musikene edota San Telmo Museoa, hauek, gertuko kultur azpiegitura (kultur etxeak etab.) eta kultur industriarekin batera, etengabe berrasmatzen den abangoardiako kultur eskaintzaren sormena ekoizpena eta erakusketaren lidergoa eraman ahal dezaten. Eredua eraldatu behar da, antolatuta edo gabe dauden hiritarrak kultur ekitaldien sormen eta antolaketaren protagonista bilakatzea ahalbidetzeko.

Prozesu honetan, berebizikoa da etengabeko polinizazioa, berrikuntzaren atea ireki dezaketen beste tokitako sortzaileen ekarpenen bidez. Euskal Sukaldaritza Berria deituriko mugimenduan oso garrantzitsuak izan diren prozesuen garrantziaren adibide ugari ditugu (hauek sukaldaritza frantsesaren iturrietatik edan zuten, gurea “berrasmatzeko” eta gaur egun nazioarteko erreferente dugu, etengabeko “jakin-mina” intelektualeko prozesu batean), baita Chillida edota Oteizaren kasuan ere, azken honen Quosque Tandem liburuan, “Ikerketa Estetikoaren Nazioarteko Gune” baten sorreraren eskaera egiten zuen” “(...) Baina ez dugu halako lekurik, behar den bezalako dokumentazioarekin, gure artean eta benetako egoera artistiko eta izpiritualarekin harremanetan jartzeko – eta konparagarria – munduak egun bizi duen bizitzan. Pasatzen dena kontatzeko gunea, gure artean modu sortzailean

hitz egiteko tokia, duela horrenbeste urte sortzeko borrokan gabiltzan Ikerketa Estetikoaren Laborategia, edo Estetika Konparatutako Laborategia da hain zuzen ere...”

“Giro sortzailea” indartzeko aspektu garrantzitsuenetakoa hirian nolabaiteko “tentsio sortzailea” mantentzea da. “Sumatu” egin behar da, Donostiak diseinua, sormena, abangoardia “igorri” behar du. Badira “odolean daramaten” hiriak, denbora batez besterik ez bada ere. Helburua modu iraunkorrean egitea da. Horregatik da hain garrantzitsua hiriko paisaia, merkataritza, ostalaritza eguneratzea, Donostiak dituen nortasun ikurrak galdu gabe, baina aurrera eginez.

Horretarako, aldaketara, berrikuntzara irekitako hiritarrak behar dira, arrisku bat dakarrela eta bultzadan lagundu behar dela barneratuz. Berria azkar barneratzeak hiria hurrengo estadioan azkar asko kokatzea dakar eta horrela, guk baino azkarrago eboluzionatzea.

Era berean, hiriko eskusartzeak aprobetxatu egin behar dira, gure teknologia eta ikerketa gune eta sortzaile eta abarrek berrikuntzaren alde egiten duten ahaleginak babestuz eta hauen babesa bilatuz, ondoren merkatuan txertatu daitezkeen apustu berritzaileen esperimenezkoaren alor bilakatuz. Inguru berritzaile bat sortzen joateko modu bat da eta gainera, sormena eta berrikuntzaren zailtasun eta aukeren aurrean gertukoak diren eta gainera hauen onurak aprobetxatzen dakiten hiritarrak osatzen dituen.

Hiriaren biziberritzean sormena eta berrikuntzaren indarra aplikatu, espazioak eta hiriko higigarriak eraldatu, ekarpen eta berrikuntza ekimenen bidez (diseinua/artea/teknologia), guztiak hiritarren bizitzakalitatea hobetzera zuzenduak, era berean, denda, taberna, jatetxe eta aisialdi guneen eraldaketa/sorrera erraztuz, etengabeko berrasmatze prozesuan dagoen hiri bizi, bizkor, baten sentsazioa igortzen duten eskema berriekin.

5.2. Definizio estrategikoa

Berrikuntzari, beste pertsona, ideiei eta abarri Irekitako Hiri baten errealitatea igortzeko beharra daukagu eta azpiegitura, ukigarriak ala ez, egokiak dituenarena. Beraz, 2016an Europako Kultur Hiriburu izateko erronkak hiri eredu hau igortzeko erreferente izan behar du, berritzaile eta “kosmopolita” izateaz gain, bere nortasunaren sustraiak eta singularitasuna mantentzen dituena.

Ikus-entzunezko sektorea indartzeko, 2010 Plan Estrategikoan aurreikusitako ekimenak fruituak ematen hasi dira, oraindik orain, ibilbide luzea gelditzen den arren. Ikus-entzunezko Berrikuntza Poloa eta Zuatzu parkean sektorearekin erlazionatutako jardueren ezarpena, Tabakalerari behin betiko bultzada eta ikus-entzunezko alorrean EITBren inplikazioa Interneten zabalkunde handiaren eremuan, eta hainbat formatutan, irudiaren munduan aurrerabide handiak egitera deituriko sektorearen garapena markatuko duten mugarrietako batzuk besterik ez dira.

2. Energiaren alorrean eta sektorearekin erlazionatutako enpresa berrien sorreran ikerketa, garapena eta berrikuntza ahalbidetzen duten azpiegituren sorrera eragin.

Aurretik adierazi bezala, jasangarritasunaren aldeko apustua, nahiz garapen ereduari dagokionez, nahiz hiria ingurumen erronka berrietara egokitzeko beharra eta garapen ekonomikorako eremu gisa (bereziki energia berritzaileei dagokienez), hiritarren helburuen artean kokatzen dela dirudi, diskurtso mailari dagokionez behintzat. Energiarekin lotuta, Martuteneko 27 Poligonoaren biziberritzeak ekar dezakeen aukera (ikerketaren eta enpresen sorreraren alorrean) eta Urumea ibaiak, Tabakalera, Deustuko unibertsitatearen egoitza, Mundaiz Institutua, Kristina Enea Parkea eta AHTaren geltokia lotzen dituen ibilbidea baloreen jartzearekin batera, Urumea ibaian, berrikuntzarentzat espazio gisa pentsatzea ahalbidetzen du.

3. Kirolaren alorrean, enpresa eta azpiegitura berrien garapena eta ezarpena sustatu..

2010 Plan Estrategikoan kirol arloaren posizionamendua aprobetxatzeko beharra azpimarratzen zen arren, egia esan, ez da ildo honetan proiektuen aparteko garapenik egon. Hala ere, sektorearen aprobetxamendu hobea ahalbidetuko lukeen kirolarekin lotutako ehun sozioekonomikoa duen errealitate donostiar eta gipuzkoar baten errealitatea antzeman daiteke.

Donostia 2007-2013 Donostiako Kirolaren Plan Estrategikoan, kirolak egungo gizartean eta gure hirian duen garrantzia baieztatzen duten datu estatistiko ugari aurki daitezke: Europako biztanleen %38k, astean behin gutxienez, kirol jardueraren bat burutzen duela kalkulatu da eta Ikerketa Soziologikoen Guneak (CIS delakoak) emandako datuen arabera, 2000. urtean, Espainiako biztanleek %36,8k kirola praktikatu zuten. Donostian, lehen hezkuntzan matrikulatutako ikasleen %96ra heltzen diren eskolako kirolaren kudeaketa egiturak daude eta gure hirian matrikulatutako eskolako umeen %67k lehiaketako kirol jarduerak praktikatu dituzte. 16 urtetik gorako biztanleen %50,4k kirol jardueraren bat burutzen du. Donostiako hiritarren %4,5ak federatutako kirol praktika burutzen du. Kirol praktika honen %51, estalitako instalakuntzatan burutzen da. 10.000 pertsona dira udal instalakuntzatan kirol jarduerak egiten dituztenak, aisialdiko kirol jardueratan partaidetza 21.000 erabiltzailetik gora dago eta udal kirol instalakuntzen erabilera 2.000.000ko zifra gainditzen du. 2005ean, udal instalakuntzen batean abonatutako pertsonak 46.200 ziren. 159 kirol klub daude. Hamar kirol klubek kirol instalakuntzak kudeatzen dituzte. Hirian, praktika federatutako 48 kirol modalitate existitzen dira. Federatutako kirol kolektibo praktikatuak Futbola (1.134 lizentzia) eta saskibaloia dira (746 lizentzia).

Gipuzkoa estatu mailako bederatzigarren postuan kokatzen da, errendimenduko kirol talde kopuruari dagokionez eta hirugarrena ordezkaturako kirol modalitateei dagokienez. Donostiakoak diren taldeak, Gipuzkoa osoan dauden %60 dira.

Kirol ekitaldi batzuen gaitasun traktorea bistakoa da: Behobia-Donostia herri lasterketa, Biarritz Olimpique taldearen errugbi partidak, Kontxako estropadak, Errealaren partidak, eta San Sebastian Gipuzkoa Basketenak.

Hirian dagoen instalakuntza kopurua oso garrantzitsua da: 478 kirol espazio hirian (248 titulartasun publikokoak dira eta hauetako 169 udalarenak). 56 kirol anitzeko pista estali daude, 88 frontoi, 39 tenis pista, 22 padel pista, 31 futbol zelai, 23 kirol pabilioi eta 19 igerileku.

Donostia bezalako hiri batek, partaidetza sustatzen duten kirol ekimenak erakartzeko gaitasun handia duela uste dugu – aisialdi, kirol, osasun eta errendimendua- abantaila handi batekin eta zera da, kirol instalakuntzen sarea jada eraikita dagoela. Partaideez gain, batez ere lagunak eta jarraitzaileak erakartzen dituzten ekitaldiak. Horrek, hirira bisitariak etengabe heltzea ekar dezake, bertan lo egitea ere bai, askotan ekitaldi hauek zenbait eguneko iraupena izaten dutelako.

Hiriko Marketin Estrategiaren barruan, interes mediatiko handia duten kirol ekitaldiak antolatzeak aukera azter daiteke.

Gainera, kirolarekin erlazionatutako teknologia, zerbitzu, edota ezagutzen garapenarekin erlazionatutako proiektuak existitu daitezke, alor hauetako beharren aurrean, soluzioak ekar ditzaketen produktuak garatzeko aukera izan dezaketen gure inguru enpresari/industrialekin erlazionatutako aukerak aurreikustea ahalbidetzen dute. Zentzu honetan, Surfa gaztetasun eta modernitatearen erakarle esanguratsu gisa azaltzen da eta hiriak posizionamendu bikaina dauka arlo honetan.

4. Zientzia eta Ezagutzarekin erlazionatutako hiri honen barruan, kolaborazio eta koordinazio handiagoa lortzera bideratutako ezagutza sortzen duten erakundeen arteko ekimenak bultzatu, ezagutzaren sormena eta garapena eta enpresaritzea merkatura bere igorpena erraztuko duten sinergiak sustatzeko.

Donostiaren tamaina duen hiri batean, lau unibertsitatekin (bat proiektuan) eta alor zeharo ezberdinetan teknologia edota ikerketako 20 gune ingururekin eta Gipuzkoan nabarmentzeko moduko industria sektorearekin, indar nagusia lurraldeko guneen artean eta hauen eta enpresen arteko kolaborazioa eta ezagutza igortzeko gaitasunean datza. Egia da lan zaila eta konplexua dela, baina egin daiteke eta egin behar da.

Unibertsitate eta enpresaritzea munduen arteko ezagutza eta teknologia igorpena, oinarritzko ikerketatik, aplikatura, bere garapena eta merkaturatzea errazteko mekanismoak... Alor hauetan lan egiten duten pertsonen arteko sinergien aprobeitxamenduak, gainera, diziplinen arteko “bidegurutzea” ahalbidetu dezake, berrikuntza gaitasuna areagotzeko berebiziko elementuetako bat. Ezagutza sortzean datza, igortzean, hortik aurrera garapen ekonomiko handiagoa izatean, nazioartean kokatu eta erreferente izatean... eta guztia eremuko erakunde ezberdinen arteko sinergiak sustatuz, ezagutza sortu eta sektore enpresarialenari igorritik, produktu eta merkaturaino, bi zentzuko bidearekin eta puntako helburu gizartearen garapena eta ongizatea izanik.

5. Gastronomiaren alorrean, enpresa berri eta ezagutzaren azpiegituren garapena eta ezarpena sustatu.

Basque Culinary Center delakoaren sorrerak, tamaina, eskala garrantzitsua dela adierazten duen adibide argia da, baina Donostia bezalako hiriek eta Gipuzkoa bezalako lurraldeek, nazioartean lider izatea lor dezakete, gauzak ongi eginez gero. Gure chefei eta "berrikuntzaren" (hitz honek egun duen esanahirik ez zuen une batean) alde egin duten apustuari esker, badago euskal sukaldaritzaren nazioarteko lidergo bat. Baina lider egoera hau laburra izan daiteke. Lider postu hori mantentzea ahalbidetzen duen unibertsitate hezkuntza gune bat lortu, sortu eta sendotzea eta gastronomiaren munduan, Ikerketa eta Berrikuntza Gune bat gehitu eta posizionamendu hori, teknologiak, edukiak garatzen ari diren enpresekin estuki lotutako etorkizuneko eremu bat bultzatzeko aprobetxatzea, sekulako aukera da.

Gastronomia chefetatik harago doa, etorkizunari begira, alor askotan maila handiko aukera garrantzitsuak dituen sektore bat da: hezkuntza, elikagaigintza eta hauen kontserbazioa, osasuna, elikaduran ardura, argitaletxeen sektorea, etab.

6. Zahartzearen eremuan ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatu (osasuna, minusbalotasunak, teknologiak, kultur zerbitzuak, kirol zerbitzuak, etab.) eta eremu honekin erlazionatutako enpresaritza sektorearen sustapena.

Aurretik adierazi bezala, zahartze prozesuak, sorospen mailari dagokionez, datozen urteotako erronka nagusienetako bat dakar, baina baita erabilera kulturala, aisialdia, kirola eta beste hainbatetan ere. Adinduentzako soluzio eta zerbitzuekin lotutako ezagutza eta teknologien garapenerako aukera nabarmena da, bestalde. Horregatik, azpimarragarria da Donostiak eta Lurraldearen osotasunak eremu honetan ikerketa garapena eta berrikuntza garatzeko duten posizionamendua.

Beharra aukera bilakatzen da. Ingema-Matia lider duen Zahartzeroaren Ikerketa Poloa bezala, edota Egokitutako Kirol Gunea, edo Fatronik Tecnaliak bultzatutako FIK delakoa dira, beste askoren artean,

osasunetik hasita, antzaz urrunago dauden beste eremu batzuetaraino, turismoa, espezializatutako kultur kontsumoa eta abar, zahartzeak dakarren aukeraren adierazle garbiak dira.

7. Kultura ekintzailea, trebakuntza eta eremu guztietan enpresaritza ekimenerako egoera egokiak sustatu, sektore berritzaileenetan indar berezia jarritz (Nanozientziak, Biozientziak, Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak, Neurozientziak, ...), hiriaren eta lurraldearen ahalmena kontuan hartuz.

2010 Plan Estrategikoan, Nanozientzia, Biozientzia eta Informazioaren Teknologiekin harremana zuten eremu gainerakorren aldeko apustua egiteko beharra aipatzen zen. Egia esan, hainbat agente eta zenbait erakunderen ahaleginari esker, ikertzaile kopurua bikoiztera heldu gara eta gaur egun hainbat gune ditugu, Nanogune ZIGa, Biomagune ZIGa, Biobide, Inbiomed Fundazioa, Cidetec, Inasmet-Tecnalia, Fatronik-Tecnalia, Biodonostia Institutua, Kutxa-Onkologikoa, Carlos Elosegui Fundazioa, Tecnum, CMIC, etab. Noski, ordurako IKTen eremuan erreferentzia ziren Ibermatika, Sektoreko Gaia Klusterra, eta abar ere gehitu behar zaizkie.

Jarduera gainerakor horiekin lotutako ehun bat eratu da eta hauekin bat egin du duela gutxi BCBL guneak, neurozientzien eremuan.


Talentua erakartzea errazten duten ekimenak bultzatu eta garatzean datza, hiri erakargarri bat eginez, alor jakin batzuetako ikerketan erreferente den ikuspuntutik, nahiz bizitzeko hiri bat den aldetik, ekimen pribatua erakarri eta, aipatutako eremuetan ikerketa eta berrikuntza guneen kontzentrazioak dakarren aukera aprobetxatzea ahalbidetuko duten enpresaritza proiektu berriak sustatzeko.

Udalak, Donostiako Sustapena SArean bidez abian jarritako Talentuaren Etxea (Rozanes) bezalako ekimenak eta horrelako beste hainbat, berebizikoak izango dira hiria eremu hauetan ikertzaileen eta sustatzaile direnen harrerarako prestatzeko.

Indar berezia egin behar da tradizionalki Gipuzkoako (eta Euskal Herriko) gizartearen ikur izan den ekintzailetzaren kultura sustatzeko beharrean,

eskualdean enpresaritzatza eta ekonomiaren garapen maila altuak eskaini ditu eta. Datuek, ekiteko gaitasuna Europako batez bestekoaren gaintetik mantentzen den mailan dagoela adierazten duten arren (GEM delakoaren TEAk 2008an %7,1ean jartzen zuen Gipuzkoaren jardura ekintzailea), azken urteotan behera egin du; populazioak eta batez ere gazteek gaur egun beraien negozioaren sorrerari aurre egiteko unean duten borondateak behera egin duela dirudi. Datu kontrajarriak dauden arren, EAEko Gazte Inkestak, 2000. urtean, Euskal Herriko gazteen %60k auto-enpleguaren aurrean jarrera negatiboa zuela adierazten zuen eta datu hori %70ean kokatzen zen 2004an.

Kultura ekintzailearen sustapena, baloreen eta ekintzaileari laguntza programak, kapital-arriskuko elkarteak, unibertsitatean eta unibertsitateko jardura ekintzailearen sustapena eta abar, koordinatutako ekimen publikoen bidez. Guzti hau bereziki adierazgarria da sektore gainerakorrenen promozio eta garapenerako.



5.2.2. B Ardatz Estrategikoa: Pertsonak eta Baloreak

Kontrasteko lanak gizartean baloreek eta gizarte kapitalak duten garrantzia azpimarratzea ahalbidetu du, egun bizi dugun krisi testuinguruan. Hiritar arduratsua, aktiboa eta garapen global aldagarriaren aurrean prestatua eratu behar dugu, eta hori baloreetan eta gizarte kapitalean indartsua den hiri baten sorrerarekin bakarrik lor daiteke.

“Ukiezin” deitzen ditugun horiek dira, baina Donostiaren garapen positiboari begira, berebizikoak direnak. Gure hirian, hiritar aktiboen garrantziaren adibide argiak ditugu (jaialdien sorrera, beren garaian proiektu berritzaileei bultzada, etab).

Egungo egoera indarkeriaren kontrako borroka, etika, jatorrasuna, ahalegina, kultura, solidaritatea, konfiantza eta beste hainbat baloreen inguruan aipatzen den garrantzia kontrastatzea ahalbidetzen ari da. Aurrean ditugun erronkek gizarte indartsu eta kohesionatua eskatzen dute eta sarean funtzionatzearen bidez, berrikuntza gizarteratu, lagundu eta gure burua ere lagundu, adinduenak bezala, (gero eta gehiago eta adin gehiagokoak, bakarrik, mendekotasunekin, zaharrak...) ekarpen handiak egin ditzaketen segmentuen inplikazioa mantenduz, proiektu handiak erakartzeko gaitasuna duten liderrak izatea ahalbidetzen duen ikuspegi kolaboratzaile eta proaktiboago batekin. Donostiaren historia lider emozional horiez josita dago. Gertu gertuko adibideak ditugu.

Krisia, 2020 Estrategia honen lanketa prozesuan barneratu eta gero, baloreak berebiziko behar bilakatu dira dudarik gabe. Baloreak dituen gizarte batek etorkizuna denboran garapen jasangarriko egoeran jorratzea ahalbidetzen du. Garapen ikusgarriak baina beherakada izugarriak ere errazten dituen espekulazioaren frustrazioan amaitzen ez den etorkizuneko hazkuntza. Kapital soziala neurtzeko helburuarekin, BBVA fundazioak munduko 13 herrialdetan egindako inkesta baten arabera, harrigarria suertatzen da konfiantza maila ezberdinak aurkitzea: herritarren konfiantza mailarik handiena, adibidez, baieztatzen hau egiterakoan: “pertsonen gehiengoak besteez aprobatzen saiatzen da”. Txiletar, mexikar edota turkiarren ehuneko berrogeita hamarrak baino gehiagok baieztatu erantzuna ematen zuen, britainiar eta japoniarren artean %20k bakarrik eta daniarren %8,4 eskas batek egiten zuenean.

Azterketa berak adierazten duenez, “Literatura bat dator kapital soziala, konfiantza, elkarrekikotasun, konektibotasun eta gizarte elkartegintza (sare sozialak eta elkartegintza) arauaren ondorioz, gizabanako edo komunitate baten baliabideak barneratzen dituen dimentsio anitzeko kontzeptua dela. Kooperazio Ekonomiko eta Garapenerako Erakundeak (Organization for Economic Cooperation and Development, OECD) kapital soziala “taldeen barruko eta hauen arteko kooperazioa errazten duten sareak, arauak, baloreak eta partekatutako ezagutzeekin batera.”

Horrela, Kapital Sozialak eta Baloreek, hirien barruan gizateriaren garapena markatu duten berebiziko tresna osatzen dute (duela bost mila urte inguru Mesopotamian, egunera arte hiritzat hartzen ziren lehen kokalekueetatik).

Baina kapital soziala tresna eta helburu bat da berez, gizarte kohesioa areagotzea ahalbidetzen baitu, komunitate sentimendu bat sortuz, dibertsitatea onartu eta Donostiako hiritarren osotasunaren hazkuntzan lagunduz. Zentzu honetan, hiria, baloreetan hezteko eremu gisa, lehen mailako elementu bilakatzen da. Bere kabuz antolatu, elkarbizitza eta proiektuen protagonismoa eramateko gai diren hiritarrekin bakarrik lor daiteke garapen etengabe eta jasangarria.

Aipagarriak dira baita ere, hiritarren partaidetza bultzatzearen alde eta hirian gobernantza maila areagotzeko eginiko aurrerapenak, 2010 Estrategiaren barruan eta gaur egun indarrean lehen bezain sendo azaltzen dira.

Hiritar gizalegezko eta solidarioak, azken urteotan eraldaketa sakonak jasaten ari direnak, adibidez, gero eta etorkin gehiagoren presentzia (Donostiako hiritarren ia %6), erronka bat suposatzen dutenak, desberdinari eta kultur anitzari errespetuan oinarritutako aukerak izateaz gain.

Baina aldi berean, bere iraganaz eta tradizioez harro dauden hiritarrak, bere euskal nortasunaz, baloreen jarritakoa, garai berrietara egokitu eta bere kultur nortasuna modernitatea, globalizazioa eta aldaketa prozesu sakon eta azkarrarekin bateratu behar duena, bere nortasuna eta izaerari uko egin gabe.

Azkenik, Bakea errefusatzerik ez dagoen helburua da, terrorismoa eta honekin erlazionatutako indarkeria elkarbizitzarako arazo larria den gizarte honetan. Indarrean jarraitzen du, beraz, elkarbizitza baketsu, integratzaile eta plurala artikulatzeko beharrak, giza eskubideen benetako errespetuan, batez ere bizitzari errespetuan oinarrituta, ezberdintasunari errespetua, adierazpen askatasuna eta Bakearen kultura eta gizarte kohesioa bermatuz.

PERTSONAK ETA BALOREAK HELBURUAK:

1. Bakearen kultura eta Donostiako hiritar guztien aldetik, salbuespenik gabe, giza-eskubide guztiei errespetuaren garrantzia indartzen duten hezkuntza eta hiritar politikak sustatu.

Bakea helburu bat da, behar bat, baina baloreen errespetuan eraiki behar da, biktimen sufrimendutik abiatuta, errespetuaren garrantzirik. Indarkeriak zigortutako Donostiako hiritarrek aukera bat daukate, betebehar bat, baloreetan hezteko garaian erreferente bilakatzeko. Gizarte solidario bat eraiki, pertsona guztien giza-eskubideei errespetua diena eta balore unibertsal gisa ekartzen duena, dudarik gabe, Donostiako hiriaren eraldaketa kultural handiena da.

Eremu honetan nazioarteko erreferente bilakatzea ez da horrenbeste hiriarentzat aukera bat, inongo komunitatek indarkeriaren eta intolerantziaren atzaparkada jasan beharrik ez izateko betebeharra baizik.

Baloreetan indartsua den hiri bat, garapen orekatu, jasangarriari eta halabeharrez eremu ezberdinetan suertatuko diren aldaketei aurre egiteko, aktiborik garrantzitsuena da.

2. Belaunaldien arteko integrazioa erraztu, gazteei aukerak eskaintzen dizkieten politika eta ekintzekin eta adinduekin solidarioa dena, gizartearen bizitza aktibora eramanez. Adinarekin lagunkorra den hiria.

Hiritarren zahartzea gero eta gehiago nabarmentzen ari den prozesua da eta dudarik gabe, datozen urteotan beharren koadroa gehien eraldatuko duten faktoreen artean kokatzen da. Ehun urte baino gehiagoko epean lehen aldiz, pentsio sistema mantentzeko jubilatzeke adinaren atzerapenez hitz egiten da. Bizitza-itxaropenaren eta hirurogeita bost urtetik gorako populazioaren igoera ikusgarriak gure gizartearen etorkizuna baldintzatuko dute.

Badira fenomeno honen hainbat ondorio, hauen artean mendekotasuna areagotzen duen bizitza-luzera dago eta horri familien tamainaren gutxitze etengabe eta progresiboa gehitu behar zaio, familia sakabanatuak sarri eta ezaugarri eta ohitura zeharo ezberdinekin, gizarteari eta lanari dagokienean, askotan gainera bakarrik bizi diren hainbat adinduri laguntza emateko beharra planteatzen dute. Erronka handia, gaur egun elkarrekin bizi garen bezala, babes publikoko sistema nahikoa izango ote den planteatu behar duen gizarte batentzat. Gizarte solidarioak, adinduekin, ahulenekin gertukoa denak bakarrik mantendu ahal izango du, bizilaguna babeserako oinarri gisa behar duen sistema bat.

Bestalde, zaharragoa dagoen gizarte honek, gazteenen gizartearekin konektatu dezakeen boluntario sistema baten ezagutzaren ekarpena egin dezake. Belaunaldien arteko harreman faltak balore eta ezagutzaren igorpenaren galera ekartzeaz gain, hiritar solidarioentzat atzerapauso garrantzitsu bat dakar. Errespetua eta elkarrekiko balorazioan oinarritutako gizarte “aberatsago” batean, ezagutza eta esperientzia sendotutako belaunaldien arteko harreman horretatik bakarrik lor daiteke askotan hain urrun dauden sektoreen arteko ulermena.

5.2. Definizio estrategikoa

3. Minusbaliotasunak dituzten pertsonen, beraien inguru naturalean, integrazioa eta gizarte partaidetza aktiboa erraztera bideratutako ekimen sozialak lagundu eta garatu.

Donostia eta Gipuzkoa bere osotasunean, Estatu mailan behintzat eta zenbait aspektutan nazioarteko mailan, erreferente bat da minusbaliotasunak dituzten pertsonen harretan, Plan Estrategikoaren alorrean, ekimen berriak bultzatzeko aprobetxa genezakeen egoera, hain zuzen ere.

Eskola eremuan, hauek sakonak izan arren, hezkuntza behar bereziak dituzten ikasle guztien hezkuntza prozesu osoa, ohizko eskoletan burutzen diren neurrian.

Lan eremuan, Gureak Taldeak lortu duen garapen itzela dela eta, Gipuzkoan beste baten karguz lan egiten dutenen %1etik gorako zifrara heltzen da, bere lan taldearen %80tik gora, minusbaliotasunen bat duen jendeak osatzen duen berezitasun nabarmenarekin.

Etxebizitzaren eremuan, honetan, “erakundeetatik begiratuta” dagoen ikusmoldea baztertuz, minusbaliotasunak dituzten pertsonen laguntza beharrak etxebizitza “normaletan” instalatutako elkarbizitza unitatetan garatzen dira, hauetako asko babes ofizialeko sareetan.

Elkarretaratze ehunean, jada aipatutako erantzun sozialak sustatu eta babesten ditu eta interes orokorreko proiektuen inguruan, gizartearen babes zabala lortzen bada, interes orokorra bilatuz, elkarrekin lan eginez lor daitezkeen asmo handiko helburuen adierazle garrantzitsua azaltzen du

Era berean, balio handikoa da Donostia eta Gipuzkoan oso laguntza sakon eta orokorrak behar dituzten pertsonen arreta jorratzen den modua.

Bestalde, familia faltagatik, edota hauek hil direlako, babesgabetasunean aurkitzen diren eta beren kabuz konpontzeko modurik ez duten pertsonen tutoretza arloko beharren estaldura bitxia da oso.

4. Gizarte kapitalaren sorrera bultzatu, baloreen indartzearen bidez, publikoan hiritarren partaidetza sustatuz, “demokrazia parte hartzailea”.

Gizarte bat ez da denboran modu jasangarrian garatzen, inplikatzeko den eta proiektuak sustatzen dituen populaziorik gabe. Ez da kasualitatea gizarte kapitalean eta baloreen aberatsenak diren gizarteak, inguru ezezagun eta krisi sozial edota ekonomikoko garaietan hoberen erantzuten dutenak izatea. Baloreetan indartsua den gizarte batek (konfiantza, elkarrekikotasuna, leialtasuna, zintzotasuna, konpromisoa,...) trukaketa eta konpromisorako gaitasun handiagoa eratzen duela.

Gizarte donostiarra eta orokorrean gizarte gipuzkoar guztia, ekintzailertzan eta gizartearen partaidetzan hain aberatsa den ehun sozioekonomiko baten eraikuntza ahalbidetu duten baloreetan erreferente izan dira. Donostiako gizartea aztertzen denean, badira gizarte zibilaren protagonismoaren hainbat adibide, gertuko eskalako bizilagunen solidaritateak hasita, 1813ko sutearen ondoren hiriaren eraikuntzara, edota hainbat une kritikotan jaialdien sorreren arriskuan, proiektuak bultzatzerakoan...

Azken finean, honako elementu hauek sustatzen dituzten politika aktiboen garapenarekin bat egin: publikoa eta pribatua, eta erakundeen arteko elkarlana, gobernantza hiritarren eta gizartearen kudeaketa eta partaidetza kontzeptu gisa, ekintzailetasunarekin erlazionatutako baloreak, etab.

5. Hiri irekia. Pertsona etorkinen eta beraien dinamismo sozialaren harrera eta integrazioa errazten duten hainbat eremuetan politikak eta programak bideratu.

2010 Plan Estrategikoak jada aurreratzen zuen etorkinen alorrean eskusartzeko beharra, kontuan hartuta zentzu honetan dauden joera globalak, baita gaitasuna eskatzen duen, nahiz ez duen enpleguaren beharretik ondorioztatutako premisak ere. 2010ean, aurreikuspen hau errealitate bilakatu da dagoeneko eta kanpokoa den gizarte donostiarraren aldetik (%5,8), nabarmen agertzen da, nahiz eta etorkinen portzentajea, Gipuzkoako ingurunean askoz ere handiagoa den arren.

Populazio etorkinak bi patroiri erantzuten dio. Gaitasun eskasa eskatzen duten enpleguak erakarri dituztenak, nahiz eta askotan maila handiagoko trebakuntza duen eta gero eta ugariagoak diren teknologia edota ikerketa guneek erakarritakoa.

Berebizikoa da inmigrazioaren eraginaren inguruko gogoeta, bere bi ikuspuntuak kontuan hartuta, pasa diren urteak aztertuta, baina badirudi berebiziko elementua dela, hiriaren dinamizazio prozesuaren indartzean.

6. Eleanitza den gizartearen benetako garapena erraztu, ahalegin instituzional eta sozialak bateratuz, euskararen normalizazio osoaren aldeko apustua eginez eta ingelesa eta frantsesa bezalako beste hizkuntzen alde jokatzuz.

Euskararen normalizazio prozesua berebiziko elementua da Donostiakoa bezalako gizarte batentzat, eleanitza, normaltasun eta elkarbizitza terminoetan. Helburu hau lortzeko bidean, erakunde ezberdinen ahaleginek bat egin behar dute halaberrez. Bestalde, ingelesa edota frantsesa bezalako beste hizkuntzatan aurrera egitea ezinbestekoa da bere nazioarteko posizionamendua bilatzen duen gizarte batean, irekia izan nahi duen hiri batean eta ondorioz, eremu honetan bere gaitasunak areagotzeko sekulako ahalegina egin behar duen hiri honetan.

Hizkuntza frantsesaren sustapenaren egokitasunaren kasu zehatzean, gertutasun geografikoko faktoreak eta Frantziarekin dugun harreman tradizionalak, Eurohiriaren proiektuaren oinarria mantendu duten merkataritza, turismoa, kultura, garraioa eta abarrek, gertutasun horren aukera nabarmenak azpimarratzen dute.

Bestalde, alor guztietan ingelesa ikasi eta erabiltzeko estrategia bat diseinatzea ezinbestekoa gertatzen da. Are gehiago, hiriaren irekieraren estrategian berebizikoa dela eta noski, turistez gain, zientzialari/ ikerlari eta artisten erakarpen eta sozializazio prozesuak errazteko balio duela kontuan hartuta.

7. Etxebizitzara sarbidea: hiritar guztiei errazten dien etxebizitza politikekin jarraitu, batez ere gazteei eta kolektibo gutxietsienei begira.

Ezinbestekoa da Hirigintzaren Ordenamendurako Plan Orokorraren jarraibideei jaramon egitea (16.400 etxebizitza aurreikusita datozen urteotarako), baina, aldi berean, soluzio sortzaile eta eraginkorretan, alternatiboetan lan egitea (alokairu erregimeneko babes ofizialeko etxebizitzak, tutoretzako apartamenduak, etab. bezala), kolektibo guztien beharrei erantzuteko, tartean gero eta eskakizun gehiago dituzten pertsona adinduak.

Ilido berdinean, etxebizitzara sarbidea berebiziko aspektua da Donostiako gazteentzat; eta hau horrela izanik, etxebizitza funtsezko aspektu bilakatzen da hirian gazteak gelditzeko garaian, baina beste batzuk ahaztu gabe, besteak beste, beraien trebakuntzara egokitutako enplegua, aisialdi aukerak, kultur jarduerak, eta abar.



5.2.3. C Ardatz estrategikoa: Hiri Lotua

“Globalki pentsatu eta modu lokalean ekin”... eta alderantziz... Donostiak ireki egin behar du, konektatu eta nazioarte mailan errekonozimendua lortu. Turismo jardueratik, nahiz I+G+b alorrekin lotutako ekimenetik ikusita, nazioartekotze prozesua berebizikoa da. Horretarako, hainbat helburu planteatu behar dira, besteak beste, Donostialdeko Hiri Komunitatearen garapena lurraldearen osotasunaren ekimenetik, bere eskalaren indartzearekin lotutakoak (lurraldeko gertueneko eskala gisa), mugikortasunaren gainean eskusartzea, batez ere ibilbide luzekoa, edota Turismoa, Zientzia eta Sormenarekin erlazionatutako marka irudi bat identifikatzea ahalbidetuko duen hiriko marketin estrategia garatzea.

Eskala metropolitarrak lan erronka garrantzitsuak ditu aurretik komunean, hauetan, lurraldeko hiriburuak lider papera dauka eta hori indarrean jarri behar du, Donostialdeko Hiri Komunitatea osatzen duten udalen arteko gobernantzaren jardueraren bidez. Pasaiaiko Badiaren berriraketa, mugikortasuna, lurraldeko planifikazioaren koordinazioa, garapen ekonomikoa, hiriko hondakinen kudeaketa, ura, edota gizartearen ongizatea eta kultur politikarekin lotutako gaiak, autonomia lokalaren errespetutik abiatuta jorratu behar diren eremu zehatzak dira, Donostialdeko zonaldea osatzen duten udaletako bakoitzaren nortasuna alde batera utzi gabe.

Baiona-Donostia eurohiria, bere gaitasun guztiak behar bezala garatu gabe dituen kolaborazio espazioa da baita ere. Kultura edota turismoa bezalako helburu komunekin, bi estatu ezberdinetan lan egiteko aukera aprobetxatzea ahalbidetuko duten proposamen zehatzekin, ekintzetara pasatzeko garaia heldu da.

Konektibotasuna – dudarik ez dago- lurraldearen ongizate ekonomiko eta sozialaren berebiziko elementua da eta lehiakortasuna eta garapena eta nazioarteko posizionamendua ziurtatu eta hobetzeko ezinbesteko faktore bilakatzen da, duda izpirik gabe; era berean, garraio sistema ezinbestekoa da tokiko ikuspuntutik eta ikuspuntu metropolitarretik, hiria eta bere jarduera eta garapena artikulatzeko, baita donostiarren bizitza-kalitatea ere eta noski, Donostialdeko Hiri Komunitatea eta Gipuzkoako

lurralde osoa artikulatzeko ere bai.

Emandako pausoak eta abian dauden ekimenak, trenbide sarearen berregituraketa, adibidez, (RENFE, Euskotren-“Topo”-metroa eta Y delakoa), edota mugikortasun eta irisgarritasunaren alorretan “tokiko” ekimenak, aire eta itsasoko garraio ekimen garrantzitsuekin osatu behar dira, Donostiak gizarte, ingurumen eta ekonomia esparruetan garapen jasangarria izateko behar dituen garraio azpiegiturak eskainiz, garraio publikoa, intermodalitatea, irisgarritasuna eta ingurumenari errespetua eta aurrezpen energetikoari begiratuta, aukera egokienak eskaintzen dituzten planteamenduen lehentasunetik abiatuta.

Bide honetan, “Y” abian jartzeak eta gertu dauden bost aireportuen arteko loturen kudeaketak, lehen mailako izaera estrategikoa daukate. Ibilbide luzeko azpiegiturarik gabe, nekez erakarriko ditugu enpresa, zientzialari eta turistak.

HIRI LOTUA HELBURUAK:

1. Hiriaren konektibotasun gehiena lortzea, nahiz eskala metropolitarran/Gipuzkoa/Euskadi, nahiz beste maila geografikotan (Eurohiria, Euskal Hiria, Ipar/Hego eta Ekialde/Mendebalde ardatzak, Europa, etab.)

Aurretik aipatzen zen bezala, datozen urteotan salto bat emango dugu mugikortasun metropolitarran. Salto hau eskuduntzak dituzten erakundeek erabakiek ahalbidetu dute, Donostialdeko Metroa abian jartzeak eta Gipuzkoako Garraio Aginpidearen sorrerak.

AHT martxan jartzeak, baita topo/metroa eta abar ere, hiriaren konektibotasuna modu erabakigarrian eraldatuko dute eta ibilbide luzean salto bat ekarriko dute mugikortasunari dagokionean. Zentzu honetan, berebizikoak izango dira datozen urteotan eta erabakiak, nahiz garapenari bultzada eskatuko dituzte.

Azpiegitura hauen aldeko apustuaren ondorioz suertatzen diren hamaika aukeren harira, ezinbestekoa izango da hirien arteko harreman eredu berriz pentsatzea, hauen ezarpenetik abiatuta, erreferentzia eredu berri bat sortzeko.

Lana, aisialdia, kultura eta abarrekin erlazionatutako elkartrukeetarako arrazoizko distantzia/denborara kokatutako tamaina ertaineko hirien arteko sareko kolaborazioaren erronka oso nabaria da oreka eta baliabide eta aukeren aprobeitxamendurako, baita ekonomia global honetan, hirien sisteman posizionamendua ere eta hor da hain zuzen ere, AHTaren sarrerak berebiziko garrantzia hartzen duen puntua. Ezinbestekoa da hiri hauekin kolaborazio estrategiak bilatzea, hiriaren aukerak areagotzea lortzeko (barnealdeko hirien konexioa itsasoarekin, arrazoizko distantzia batera kokatutako hirientzat kultur eskaintza, etab.).

Hiri hauekin kolaborazio prozesu bat hasi eta ahal den punturaino elkarlanean, uko egiterik ez dagoen helburua da.

2. Donostialdeko Hiri Komunitatean eskala metropolitarraren egituraketa / antolaketa, konpartitutako proiektuak oinarri izanda.

2010 Plan Estrategikoaren baitan planteatu arren, ez du, hala ere, aparteko garapenik izan. Berebizikoa den kolaborazio metropolitarraren prozesua gelditu beharko ez luketen hainbat arazok distorsionatu dute. Eskala honetan, kolaborazioaren aukera ukazina da eta bultzatzea premiazkoa suertatzen da. Egia da hainbat kolaborazio erakunde eratu direla (Ortizibia, Jaizkibia, Donostia Turismoa, etab.) eta komunean kudeatutako zerbitzuak existitzen zirela (Añarbe eta San Marko Mankomunitateak, etab.), baina datozen urteotan kolaborazio horrek beste erritmo bat hartu behar du, desadostasun logikoak tartean izan arren. Horretarako, garrantzitsua da Hiri Komunitateko alkate eta tokiko aginpideen topaketa eta gogoetarako tresnak eskuratzea. Zentzu honetan, Gipuzkoa Aurrera ekimenari ere balioa eman behar zaio, lurraldeko sektore eta erakunde garrantzitsuenen topagune gisa eta Gipuzkoako proiektu estrategikoetan benetan paper garrantzitsua duena eta ondorioz, Donostialdeko Hiri Komunitatean ere bai.

Une hauetan biziberritze aukera erreala aurreikusten da, alde batetik nazioarteko dimentsioa duen proiektu baten aukera eta badiak dituen beharrei erantzuna ematea uztartuz, batez ere Pasaiarentzat eta inguruan duen eta Donostiako udalaren lurretan dagoen Herrerarentzat. Badiako lurrek inguruko biztanleei zerbitzua eman eta

aldi berean eta Donostialdeko lurraldearen osotasuna beste eskala batean jarriko duten nazioarteko markako proiektu handiak identifikatzea ahalbidetuko duten mota berriko jardura eta zerbitzuen ezazpenerako dituen aukerek ezin dute berriz ere ihes egin. Horrela, kanpoko portuaren ekimena jorratu behar da, datozen urteotara begira garrantzi handiko erabakiak hartuz, krisi ekonomikoa tartean badago ere. Pasaiaren unea da.

3. Hiriaren Marketin Estrategia bat garatzea, kalitatea, sormena eta berrikuntzarekin lotuta, estatu mailan, nahiz nazioarteko mailan erreferentziatzeko lurralde gisa duen izena handitzeko, bere elementu singularrenak erabiliz eta erakartzeko gaitasunarekin (paisaia, gastronomia, zientzia/teknologia, kultur eskaintza, etab.).

Duela urte batzuk, Hiriaren marketin estrategia bat bultzatzeko bidean lana egiten ari dira, zientzia eta berrikuntza, merkataritza eta turismo zerbitzuekin lotutako irudi tradizionalera gehitzen zaizkion hiri eredu ikustea ahalbidetzeko.

Behar hau larriagoa egiten da, kontuan hartuta, hiriak 2016an Europako Kultur Hiriburu izateko hautagai bilakatzea erabaki duela, azken finean, kultura bere ADNaren parte bat bezala duen hiri eredu bat definitzeko primerako tresna berri bilakatzen dena.

Beharrezkoa da, agente guztiak eredu baten atzean kokatzea ahalbidetzen duen hiriko marketin estrategia bat artikulatu/koordinatzeko ahalegina egitea. Horretarako, publizitatearekin lotutako komunikazio ekimenak beharrezkoak, komenigarriak litzateke hiriak hainbat alorretan dituen "preskribatzaileak" eremu ezberdinetan mobilizatzea eta strategiaren kudeaketa eta lider papera egituratzea.



5.2.4. D Ardatz Estrategikoa: Bizi, Gozatu

Gero eta gehiago, etorkizuna eta hirien estrategiei buruzko gogoetek bizitza-kalitatearekin erlazionatutako faktoreak barneratzen dituzte, hiritarren “zoriontasuna” errazteko berebiziko elementuak identifikatu eta hauen inguruan ekinez.

Donostiarentzat, 2010 Estrategia, existitzen ziren elementuetan oinarritutako eredu baterantz bideratzen zen jada, “hiritarrentzako hiri” planteamendutik abiatuta, hiritar guztiei zuzendua, irisgarria, orekatua eta jasangarria, hirian bizi-kalitate maila altuarekin. Hala ere, erdiguneko bizi-kalitatea hiri osora bideratzeko lanean jarraitu behar da, auzoen arteko orekaren bila, dauden ezberdintasunak gaindituz, auzo batean edo bestean bizitzearen arteko aldea ahalik eta txikiena izan dadin lanean eta hiriaren garapen prozesuetan eta diseinuan hiritarren partaidetza prozesuak hobetzen.

Donostiak gertuko zerbitzu sare egokia dauka gaur egun (kulturalak, kirol arlokoak, hezkuntzakoak, osasun zerbitzuak etab), zentzu honetan burutu den estrategia ireki bati esker eta hiritarren balorazio positiboa du gainera, baina mugikortasunari dagokionean, gabezia larriak dituela onartu behar da, ahalegin garrantzitsuak egin diren arren (oinezkoentzat guneak, bidegorriak, autobusean garraiatzeari bultzada, etab), epe ertain eta erdira erronka garrantzitsuak gelditzen dira bidean. Hiriko Mugikortasun Plan Jasangarria 2024 ekimenarekin, datozen urteotan jarraitu beharreko estrategia markatzen da, garraio publikoa, intermodaltasuna, hirien arteko konexioen hobekuntza sustatzetik... eta aurrerapen teknologikoek mugikortasun ekologikoagoa, lagunkorragoa eta irisgarriagoa egingo dute hiritarrentzat.

Etxebizitzara sarbidea izatearekin lotutako problematika etengabe gisa agertzen da, baita hesi garrantzitsu gisa ere, bereziki, baina ez beraientzat bakarrik, gazteen kasuan. Izan ere, bakarrik dauden pertsona adinduena bezalako kolektibo bat (gero eta prozesu azkarragoan eta laguntza eskain dezakeen famili inguru eskasarekin) kaltetuenetakoa da. Eragin handia izango duten egoerak proiektatzen dira; jarraitutako bidea, bere behin betiko onarpenaren zain dagoen Hirigintza Ordenatzeko Plan Orokorrean (Auditz Akular...) aurreikusitako zabalkunde sorta batean islatzen da.

“Oreka edo berdintasun soziala” bilatzearen gaiari berriz helduta, sozialki konprometitua dagoen gizarte batean, mendekotasun egoerak prebenitu, kooperazioa, integrazioa, gizabanakoaren balorazioa eta abar sustatuz... Pertsona adinduen eta talde ahulenen kasuan irisgarritasunarekin, integrazioa errazten duen sorospen sistema batekin, belaunaldien arteko harremanarekin, jada existitzen diren zerbitzu eta ekipamenduak biztanle segmentu guzti-guztien beharrei egokitzearekin zerikusia dauka, baina merkatuari dagokionez, pertsonen zerbitzua ematen dien sektore zabalarari erantzuna ematearekin ere bai.

Azpiegitura euskarriek (saneamendua, ura, energia, etab) datozen urteotara begira, beraien inbertsioak bideratuta dituzte eta jasangarritasun bokazioak markatuta, kontsumo arduratsura zuzendutako neurrietatik, eraginkortasun energetikoak edota energia berriztagarriak ahaztu gabe. Erronka nagusia Hiriko Hondakin Solidoen arazoari erantzuna ematean kokatzen da.

Hezkuntza sisteman behar esanguratsuak antzematen dira, hizkuntzen ezagutza, edota etorkizunari begira erronka garrantzitsuak, hala nola, ikasketen berregituraketa berria, hezkuntza metodologia berriak, Goi Mailako Hezkuntzako Espazio Europarrera egokitzapena (Bologna Plana).

Osasun sisteman, ereduaren desgaste sintomak antzematen hasi dira, harretarako langile falta, profesional falta...honek, datozen urteotara begira aurreikusten diren aldaketen aurrean, azterketa sakon bat eskatuko du (teknologiatik, bereziki biziraupenaren eta mendekotasunaren areagotzetik eratorritako konexio sozio-sanitarioa, etab).

Hirigintza Ordenatzeko Plan Orokorrean ere aurreikusten den parke sareak hiriko berdegune hornidura indartuko du, hauek “Kultur Parke” gisa, baloreen jartzearekin batera, kultur azpiegitura berriek bezala (San Telmo Museo berritua, Tabakalera, etab), hiriko kultur eskaintza eta bere erakargarritasuna hobetuko dute. Osotasunean, hornidura hauek hiri izaera berdineko beste hiriekin alderatuta, gurea oso posizio onean kokatzen dute.

Hiri diseinua, bere ezaugarri geografikoak eta bertako berdeguneak, gertuko azpiegitura zerbitzu sarea, eskalarekin batuta bere hiritarrentzat neurri batean hiri lagunkorra egiten duten faktoreak dira, baita erakargarritasun turistiko garrantzitsua duena ere, baina formatu ezberdineko aisialdi eskaintza behar duena, aisialdi alternatiboak eta hiritarren segmentu bakoitzari zuzendutako jarduerak lekua izango duten proposamena, gazteriari, sektore sortzaileei arreta bereziarekin... hiri biziago bat egiteko.

Azkenik, konektibotasun egokia ahalbidetuko duen telekomunikazio sarea hobetzeko ahalegin handi bat egin den arren, behar bezala konpondu gabe dauden eskuragarritasunarekin (prezioak, etab.) erlazionatutako arazo larriak existitzen dira.

BIZI, GOZATU HELBURUAK:

1. Hiriaren garapen orekatu eta jasangarria ahalbidetzen duen Ingurune Estrategia bat bultzatu.

Donostiak goitik behera barneratu du ingurumenaren erronka, bere ekimenetan jasangarritasunaren kontzeptua modu progresiboan txertatuz; horretan sakontzen du azken urteotan Kristina Enea Fundazioaren sorrerarekin, Aldaketa Klimatikoaren Kontrako Planarekin, eraikin publikoetan energia jasotzeko sistema alternatiboaren ezarpena bezalako ekimenekin, mugikortasun jasangarria bideratutako eskusartzeekin, uraren kudeaketa edota saneamenduekin, etab. Hau guztiarekin, aurrerapauso nabarmena dakarten arren, ildo horretan etengabeko ahalegin bat eskatzen du, jasangarritasuna, bilketa selektiboa, behar energetikoen kudeaketa eta abar bezalako eremuetan hiritarren kontzientziazioan.

Ezinbestekoa da Donostia bere burua aski duen eszenatoki energetikoa ahalbidetuko duten politika aktiboak abian jartzea, kontsumoaren eremu kritikoaren eraginkortasuna (mugikortasuna, eraikuntza-isolamendua, berogailua etab), itsasoarekin erlazionatutako energia iturri berriak bezalako energia alternatiboaren garapenarekin konbinatuz. Azken finean, aldaketa klimatikoaren aurka, hiriaren inplikazioa indartzeaz gain, erregai fosiletatik eratorritako energiarekiko mendeotasunaren gutxitzea ekarriko

dute, hauen etorkizuneko egoerak prezioan desoreka nabarmenak ekarriko ditu gainera, modu progresiboan, gero eta txikiagoa izango den eskaintzaren igoera nabarmenaren erdian, eskaeraren areagotzea dela medio.

Horrelako estrategiek, bestalde, enpresaritzat aukera zabal-zabala dakarte, baita hiriak aprobetxatu behar duen epe ertain eta luzera hazkuntza esponentziala izateko gaitasuna duen sektore batean ikerketa eta berrikuntzarako ere.

Azken urteotan mugikortasun jasangarriarekin erlazionatutako jarduera garrantzitsuek, bultzada hori mantendu behar dute datozen urteotara begira. Erronkak handiak dira, baina gaur egun esku artean ditugun proiektuak (Donostialdeko metroa, AHT, mugikortasun metropolitarrak, garraio modu ezberdinen arteko koordinazioa etab.) oso garrantzitsuak dira eta duela gutxi onartu den Hiriko Mugikortasun Jasangarriaren Planaren alorrean azpimarratutako mugikortasun estrategiaren ildoarekin bat egiten dute.

2. Bakarrik dauden eta gero eta urte gehiago bizi diren adinduen populazioaren handitzeari, ahulezia modu berriei, zailtasunak dituzten pertsonen, guraso bakarreko familiei, bazterketa arriskuan dauden etorkinei erantzuna ematea ahalbidetuko duten sorospen zerbitzu sarea segurtatu.

Aurretik aipatu bezala, proiektzio demografikoak oso argiak dira aspektu honi dagokionean. Bizitza luzeraren areagotzea, guraso bakarreko familia, famili unitatea txikitzea eta abar, Donostiaren nondik norakoa datorren hamarkadan eta hurrengoetan markatuko duten elementuak izan daitezke. Hiria egoera honetarako prestatzea, beste maila instituzionaletan konpondu beharko diren kontu hauek, politika aktiboekin osatu beharko den lehentasuna da.

Horrela, adibidez, Eguneako Zentroak eta Zaharren Egoitzak biziberritzeko beharra, lur erreserbaz lagundu beharko da, ondorio honetara zuzendutako hiri planeamenduan, bere bizilekutik ahalik eta gertuen dagoen inguru bat bideratuz; era berean, populazioaren zahartzeak, hainbat aldiz aipatu den bezala, irisgarritasunaren sustapenerako eta hiri

5.2. Definizio estrategikoa

osoan zehar, hesiak ezabatzeko politikak sustatzea eskatzen du eta bertan, hiriko Irisgarritasun Planak abiapuntu gisa balio behar du.

Erakunde publikoetatik, izaera berritzailearekin, erakunde publiko eta pribatuen eta hirugarren sektorearen arteko elkarlanean oinarritzen den eskusartze estrategiko baten planteamendua saihestezina den arren, aipatu bezala, hiritarren babesa guztiz beharrezkoa izango da baita ere, hirian dagoenarekin alderaezina den dimentsio bateko sorospen sistema bat mantentzeko bidean.

3. Pertsona guztientzat gertuko zerbitzu publiko (sozialak, kulturalak, hezkuntza arlokoak, kirolekoak, sanitarioak, etab.), nahiz pribatuen (dendak, etab.) sorrera/indartzeari bultzada, beraien behar bereziak eta hiri osoan zehar, hiritarren arteko harremanerako elkarbizitza espazioen sorrera erraztea kontuan hartuta.

Donostiak hiriko auzoetan gertuko zerbitzuen sorrera sustatu du azken urteotan, kultur etxe, kirol gune, hezkuntza zentro eta abarreko sarea emaitza izanik, ondorioz, hauetan zentraltasun berriak garatzea suertatuz.

Hiri konplexutasunaren planifikazio modu berriek argi adierazten dute gertuko merkataritza, auzoetako pertsonen artean harremana sustatzen duten jarduerak, lurraldean erabileraren “mixtotasuna”, espazio publikoen eraketa eta abar bezalako faktoreak kontuan izateko beharra, gizarte kapital handiagoa eratuko duen hiritarren arteko harremana bilatuz. Topaketa ahalbidetzen duten espazio eta jarduera hauek berebizikoak dira, mota honetako proiektu eta jarduerak sortzea ahalbidetuko dute sare sozial eta elkartearen sorrerarako. Sozializazio prozesu hau, aldi berean, gizarte kohesionatuago bat lortzeko tresna indartsua da baita ere.

Gertuko zerbitzuen indartze honek, donostiarren bizikaltateari lehen mailako zerbitzua egiten dio, ongi balioztatuta gainera, zerbitzuen eskuragarritasuna, edota gizarte harremanen loturaren mantentzeari dagokienean, nolabaiteko desberdintasunarekin, zenbait esparru/auzotan.

4. Jaiotza-tasaren igoera sendotzeko estrategia sustatu, erakundeen arteko kooperazioaren bitartez, aitaltasun/amatasunari laguntza politika bilaka dadin, familia eta lana uztartzea erraztuz...

Udal ikuspuntutik, gakoa, bizitza familiarra eta lanekoa uztartzeari eta haur eskolen zabalpenari dagokienean praktika onak mantenduz, familiei inguru lagunkorra eskaintzetik pasa daiteke, era berean, familiaren laguntzarako erakundeen arteko jarduera plan bat burutu behar da, neurri sakonak planteatuz.

5. Gizartearen osotasunari zuzendutako aisialdi eskaintza zabalaren sorrera erraztu eta arreta berezia jarritz, gazteei zuzendutako jardueri dagokienean.

Aisialdi eskaintza baten beharra, gazteentzat batez ere, beste hiriekin behin eta berriz konparagarri gisa agertzen den elementu bezala.

Aisialdi eskaintza “talentua, sormena” bertan mantentzeko eta erakartzeko faktore nagusienetakoa da hiri batean. Aisialdi eskaintza on batek, batez ere gazteei zuzendutakoa, gazteak Donostiara erakartzea ahalbidetuko luke, irudi gazteago bat indartu eta agure hiriaren eskaintza gaztetua ahalbidetuz.



6. Bikaintasuneko hiri espaziora bideratutako estrategiarekin jarraitu, hiriko espazio tradizionalen eraldaketa edota berrasmatzea sustatzearen bidez (Urgull, Ulia, Urumea, Igeldo, trenbide ardatza, etab.), baloreen jartzeko, horrela paisaia lagunkorra eta jasangarria hirian indartuz, paisaia eredu sortzaileak barneratzen dituen hiri diseinu bati esker (arteak, parkeak, etab.).

Espazio tradizionalen eraldaketa, edota berrasmatzea berebizikoa izan da hiriaren gaurkotze eta berrikuntzari dagokienean. Nautikoa, Kursala, Aquariuma, Tabakalera, San Telmo... Espazio ugari jasan dute horrelako eraldaketaren bat, beraien sorrera bultzatu zuten jarduerak kontuan hartuta, baina gaurkotuz, berrasmatuz.


Donostiaren bizitza-kalitatea hobetzen jarraitzeko aukerako espazioak – baina aldi berean, hiriaren proiektzioa ere bai –, hortxe daude, Urgull, Ulia, Igeldo... Hiria berriz pentsatu eta honen inguruko irudi berritzailearen ekarpena egiteko modu bat da.

Hiria eremu ezberdinak lantzen joan da, hauetan funtsezko aspektuekin erlazionatutako ezagutzaren ekarpena egin du, sortzaileak har dadin eta hiriaren eraldaketa osoaren ildotik jarraituz. Itxura zestatikoak den irudia izan arren, Donostiako hiri espazioa, bere garaian berritzaileak ziren hirigintza eskusartzeetatik abiatuta gauzatu da (Kortazarren Zabalgunean, Nautikoa, Paseo Berria Kursaal, Zurriola, Haize Orrazia,...) natura eta gizakiaren jardueraren arteko oreka egokia mantenduz. Hiriko tentsio berritzaile hori indartu, natura eta gizakiaren jardura berritzailearen arteko oreka mantenduz, dudarik gabe, erreferente izaten jarraitzeko berebiziko elementua da.

Hiriak hirigintza planifikazio berritzaile baten alde egiten duen apustua jada existitzen den ezagutzaren oinarritu behar da (EHUren Arkitektura Goi Eskola), baita eremu honekin lotutako industri sektoreen presentzia ere, Mugikortasun Plan Jasangarriarekin batera, irisgarritasun eta hiriko lagunkortasunari dagokienean. Horrela, Pasaia Badiako bezalako aukera eta eraldatzeko eta biziberritzeko behar handiko espazio batek, honen aplikaziorako sekulako aukera ona ematen du.

7. Kalitatea, sormena eta berrikuntzarekin lotutako merkataritza, ostalaritza eta turismo eskaintza lortu, hiria bizi eta gozatzeko tokirik erakargarriena bezala identifikatzea ahalbidetu dezan.


Ezinezbestekoa da 2010 Plan Estrategikoan diseinatutako estrategian sakontzea, merkataritza, hotel, ostalaritza eta orokorrean aisialdiarekin eta produktu turistikoekin erlazionatutako sektoreetan kalitatea eta berrikuntza sustatzearen zentzuan. Hiriak aurrera egin du merkataritza eta turismo sektoreen egituren sorreran (Donosti SSshops eta Donostia Turismoa), baina bere aurrean modernizazio, lehiakortasun, singularitasun eta beste hainbat erronka handi ditu (diseinua, kalitatea, arreta,...).



5.3. Estrategiatik ekintzara

Plan Estrategikoa garrantzitsua da, nonbaitera heldu nahi dugula kontuan hartuta, norakoa definitzen laguntzen gaituelako. Baina norako horretara heltzen laguntzen dutenak ekintza ildoak eta proiektu estrategikoak dira. Diseinatutako ibilbide hau egitea ahalbidetzen duten proiektuak daude epe labur, ertain eta luzera begira. Plan honek baldintza horiek betetzen ditu eta proiektu zehatz sorta bat planteatzen du, garatzen joan beharko diren ekintza ildoekin batera, are gehiago plan hau planteatzen den egoera berezia eta batez ere etorkizunari begira dagoen ziurgabetasuna kontuan hartuta.

Proiektuen zabaltzearen oinarrizko ideiak eta ekintza ildoak aurkezten ditugu.



5.3.1 DSSn Diseinatua

ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZAREN HIRIA b+Z

- Nazioarteko perfila duten unibertsitate gune edota bikaintasun alorren sorrera sustatu
- Talentua erakartzeko prozesuak erraztea
- Ezagutza trukatzeko nodoen sorreraren sustapena
- Ezagutza zientifikoaren dibulgazioa
- Kultur Parkeen eta Ezagutzaren Hiriko sarea
- Berrikuntzarekin erlazionatutako enpresa eta jardueren sorrera erraztu
- Hiria eta lurraldearen gaitasunen Marketina, alor gainerakorretan (batez ere Bio, Nano, eta IKTak).

DONOSTIA LAB

- Smart city-Hiri Inteligentea
- Hiri-laborategia esperimenezkoa
- Berrikuntzaren kulturari bultzada
- Urumea@

EKONOMIA SORTZAILEKO JARDUEREI BABESA

- Kultura
- Media/ikus-entzunezkoa
- Musika
- Softwarea
- Alorreko enpresa liderrak erakartzea

ENERGIA

- Energia Berriztagarrien eta eraginkortasun energetikoaren Clusterra
- Enertic

i-TOURISM

- Turismoarekin erlazionatutako produktu eta zerbitzuetan berrikuntza

GASTRONOMIA

- Basque Culinary Center
- Gastronomiaren Clusterra

KIROLA

- Kirol arloko Berrikuntza Gunea.
- Surf DSS
- Pasaia Kirol Portua

ZAHARTZEAREN BERRIKUNTZA POLOA

5.3.2 Pertsonak eta Baloreak

BAKEAREN KULTURA

- Giza Eskubideen Institutua- Bakearen Etxea
- Hiri Hezitzailea-Baketzea
- Bakearen aldeko Ekintzaileen Nazioarteko Saria

HIRI IREKIA

- Biztanle berrien harrera eta gizarteratzeko programa
- Interkulturaltasunaren sustapena

ADINAREKIN HIRI LAGUNKORRA

- Nazioarteko erreferente
- Belaunaldien arteko harremanaren sustapena
- Zahartze Aktiboaren Sustapena
- Boluntariotzari bultzada - Portale Solidarioak

DSS IRISGARRIA

- Minusbaliotasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna erraztu

KAPITAL SOZIALAREN SORRERA BULTZATU

- Gizarte Berrikuntza Gune baten eraketa
- Kapital Sozialaren Osaketa Plana
- Aktibismo Sozialeko Bankua
- Ehun bateragarriari bultzada

DSS LINGUA - GIZARTE ELEANITZA

- Donostia Euskararen Hiriburu
- Hizkuntzen ezagutza indartzea

GOBERNANTZARI BULTZADA

- Gobernantza Demokratikoaren Institutua
- Demokrazia Partehartzailea

5.3.3 Hiri Lotua

DSS CONNECTION

- Atotxako Gune Intermodala
- Abiadura Handiko Trena
- Autobus Geltokia
- Donostialdeko Metroa
- Mugikortasun metropolitarraren koordinazioa/optimizazioa
- Aireportu Sarearen optimizazioa
- Pasaiaiko kanpoko portuaren proiektuan era aktiboan lan egitea

DSS LANKIDETZA INTELIGENTEA

- Kolaborazio metropolitarra bultzatzea
- Ordu beteko distantziara dauden hiriekin kolaborazioan sakontzea
- Abiadura Handiko Trenaren lurraldeak
- Tamaina ertaineko hiri sarearen sorrera eta lider papera
- Pasaiaiko Badiaren biziberritzea

NAZIOARTEKO DONOSTIA

- Irudi eta posizionamendu estrategia
- Donostia Europako Kultur Hiriburu 2016

5.3.4 Bizi, Gozatu

i-URBAN

- Berrasmateza/biziberritzea: Urgull, Uria, Igeldo
- Kultur Parkeen Sarea
- Berrikuntza Urbanoaren Institutua
- Urumea Ibai Parkea
- Aquarium 3. fasea

DSS BARNERATUA

- Adinduen kolektiboari arreta beharren planifikazioa
- Emakumearen etxea
- Beste hainbat kolektibo

EKODONOSTIA-INGURUMEN ESTRATEGIA

- Norberaren hornikuntza Energetikorako Estrategia
- Aldaketa Klimatikoaren aurkako borroka
- Hiriko Mugikortasun Urbano Jasangarria.
- HHSen Plan Integrala

GERTUKO ZERBITZUAK

- Auzoetako zentralitateak bultzatu, gertuko zentro publikoak indartzearen bidez (Kultur arlokoak, Sozialak, Hezkuntza arlokoak, Sanitarioak, ...)
- Gertuko merkataritza sustatu

JAIOZTA-TASAREN SUSTAPENA

- Jaiotza-tasaren sustapenean lagun dezaketen neurriak


DONOSTIA JOSTALARIA - GAZTEEN AISIALDI

i-SHOP

- Merkataritzan berrikuntza

DSSn BIZI. ETXEBIZITZAKO SARBIDEA

- Hiri Antolamendurako Plan Orokorra-ren etxebizitza planaren garapena



6. Pertsona eta erakunde gonbidatuak

6.1. Batzorde Delegatua

AÑORGA TXIKI BE

Javier Beorlegui Jna.

ADEGI

José Miguel Ayerza Jna. (Presidenteordea)

DONOSTIAKO UDALA

Duñike Agirrezabalaga And.(Alternatiba)

José Luis Arrue Jna. (PP)

Ainhoa Beola And. (Aralar)

Ricardo Burutaran Jna. (EA)

Odón Elorza Jna. (Alkatea)

Xabier Ezeizabarrena Jna. (EAJ-PNV)

Marisol Garmendia And. (Zinegotzi Delegatua)

ATZEGI ELKARTEA

Jose Luis Basoko Jna.

(Gizarte Kontseiluko Presidente)

GIPUZKOAKO GANBERA

Agustín Eizagirre Jna.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Jon Basterra Jna.

DONOSTI SSHOPS

Lourdes Lazaro And.

EMAUS GIZARTE FUNDAZIOA

Nerea Kortajarena And.

FATRONIK

Luis Goenaga Jna.

GOBERNU ZENTRALA

Francisco Jordán De Urries Jna.

EUSKO JAURLARITZA

Koldo Hualde Jna.

Iñaki Beristain Jna. (2008ra arte)

KUTXA

Ignacio Zuzuarregui Jna.

Alberto Martinez Jna. (2010era arte)

MONDRAGÓN CORPORACIÓN COOPERATIVA

Javier Mutuberria Jna.

DSS ESTRATEGIA BULEGOA

Kepa Korta Jna.

(Gizarte Kontseiluko Presidenteordea)

DONOSTIAKO TEKNOLOGIA PARKEA

Lucio Hernando Jna.

Joakin Telleria Jna. (2008ra arte)

PASAIKO UDALA

Maidier Ziganda And.

TABAKALERA-KGNZ

Mirian Anitua And.

Joxean Muñoz Jna. (2010ra arte)

SAN SEBASTIÁN GIPUZKOABASKET

German Cea Jna.

KULTUR LANTEGIA TAILERRA

Aitor Salaberria Jna.

TISA

Hutsune Mendiburu And.

DONOSTIAKO DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

A. Fernando de la Iglesia Jna.

Jose M^a Guibert Jna. (2008ra arte)

NAFARROAKO UNIBERTSITATEA

Mikel Arcelus Jna.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Cristina Uriarte And. (Presidente)

6.2. Gizarte Kontseilua

ALOKAIRUA BE BENTA BERRI

Luciano Vázquez Jna.

AÑORGA TXIKI BE

Javier Beorlegui Jna.

LANTXABE BE

Juan Carlos Berzosa Jna.

ADEGI

Enpresa eta Kanpiko Harremanetarako Koordinatzailea

Juan Mancisidor Jna.

AENA Donostiako Aireportua

José Manuel Sánchez Jna.

AMPAS(BAIKARA)

Imanol Zubizarreta Jna.

GIPUZKOAKO OSTALARITZA ENPRESARIEN ELKARTEA

Mikel Ubarrechena Jna.

PASAIKO PORTUKO AGINPIDEA

Gregorio Irigoyen Jna.

DONOSTIAKO UDALA

Duñike Agirrezabalaga And. (Alternatiba)

José Luis Arrue Jna. (PP)

Ainhoa Beola And. (Aralar)

Ricardo Burutaran Jna. (EA)

Odón Elorza Jna. (Alkatea)

Xabier Ezeizabarrena Jna. (EAJ-PNV)

Marisol Garmendia And. (PSE-EE)

CADENA SER

Ricardo Cantera Jna.

GIPUZKOAKO GANBERA

Agustín Eizagirre Jna.

CCOO

CCOOKO lurraldeko arduraduna

Mikel Telletxea Jna.

HIRITARRAK

Jesús M^a Araneta Jna.

Andrés Ballesterro Jna.

Jaime Díaz de Mendibil Jna.

Ane Estella And.

Toñi Gaspar And.

Izaskun Vázquez And.

ABOKATUEN ELKARGOA

Lurdes Maiztegui And.

GIZARTE EKINTZARAKO KONTSEILUA (EMAUS FUNDAZIOA)

Nerea Kortajarena And.

MERKATARITZA KONTSEILUA

Maite Jauregi And.

KOOPERAZIO KONTSEILUA

Mertxe Digón And. (Intered Fundazioa)

KULTUR KONTSEILUA

(KULTUR LANTEGIA TAILERRA)

Aitor Salaberria Jna.

KIROL KONTSEILUA

(SAN SEBASTIÁN GIPUZKOA BASKET)

Germán Cea Jna.

EUSKARAREN KONTSEILUA

Dani Goñi Jna. (Bagera elkarte)

GAZTE KONTSEILUA

Haiett Fornies

INGURUMEN KONTSEILUA (SEO)

Ramón Elozegi Jna.

MUGIKORTASUN KONTSEILUA

Luis Murguia Jna.

EMAKUMEAREN KONTSEILUA

Amaia Lasheras And.

PLANTEAMENDU KONTSEILUA

Joxean Medina Jna.

(Ondarearen Defentsarako Elkarte)

TURISMO BATZORDEA

Manu Narvaez Jna.

DBUS DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA

Gerardo Lertxundi Jna.

DSS ESTRATEGIA BULEGOA

Kepa Korta Jna. (Presidenteordea)

DIPC

Pedro Miguel Etxenike Jna.

DIARIO VASCO

Enrique Erentxun Jna.

ELA

ELKARTU

(Gipuzkoako Minusbaliatu Fisikoen Koordinatzailea)

Raquel Barroso And.

EUSKO JAURLARITZA

Lehendakaritza

EUSKO TREN

José Ignacio Asensio Jna.

